



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2019ko urtarrilaren 18a

5. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Legea, Nafarroako Eskubide Kulturaleri buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).
- Foru Lege proiektua, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legea aldatzen duena (18. or.).
- Foru Lege proiektua, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta Foru-sektore Publiko Instituzionalari buruzkoa (22. or.).
- Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako Foru Lege proiektua. Osoko Bilkurak osoko zuzenketak ezetsi ditu (61. or.).
- Foru Lege proiektua, aldatzen duena martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legea, Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboen araubide iragankorrari buruzkoa. Aurkeztutako zuzenketak (62. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Legea, Nafarroako Eskubide Kulturaleri buruzkoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2019ko urtarrilaren 11n egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Eskubide Kulturaleri buruzko Foru Legea onetsi zuen

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2019ko urtarrilaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Nafarroako Eskubide Kulturaleri buruzko Foru Legea

HITZAURREA

I

Nazio Batuen Batzar Nagusiak 1948ko abenduaren 10ean onartutako Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 27. artikuluan ezarrita dagoenez, pertsona orok du eskubidea erkidegoaren bizitza kulturalan libreaki parte hartzeko, artez gozatzeko, aurrerapen zientifikoan eta horrek dakartzan onuretan parte hartzeko, bai eta norberak egindako lan zientifiko, literario edo artistikoak direla-eta dagozkion interes moralak babestuta izateko ere. Ondoren, Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen 1966ko Nazioarteko Ituneko 15. artikulua adierazi zuen itunaren sinatzaile diren estatuak eskubide horiek aitortzen dizkiotela pertsona orori, eta horrekin batera ezarri zuen estatuen konpromisoa, eskubide horiek ziurtatzeko behar diren neurriak hartzeko.

Nazioarteko zenbait testu eta agiritan ere aipatzen da gai hau. Hauek dira nabarmenenak: Kultur Aniztasunari buruzko Adierazpen Unibertsala, Unescoren Konferentzia Nagusiak 2001eko azaroaren 2an onetsia; aipatutako Nazioarteko Itunaren 15.1 a) artikulua buruzko 21. Ohar Orokorra (pertsona orok eskubidea du bizitza kulturalan parte hartzeko), Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordeak 2009an egindakoa; eskubide kulturalen alorreko errelatore bereziak 2010etik aurrera egindako txosten aldizkakoak eta sektoria-

lak; edo, hertsiki araugintzaren esparruan, Unescoren Konbentzioa, kultur aniztasuna babestu eta sustatzeari buruzkoa, Parisen 2005eko urriaren 20an egindakoa, Espainiako Erresumak 2006ko abenduaren 18an berretsi zuena.

Iturri horiei guztiei gehitzen ahal zaizkie bizitza kulturalan parte hartzeko eskubidea dela-eta Europako Kontseiluaren Batzar Parlamentarioan izandako ekimenak eta lanak, bai eta gai zehatzei buruzko beste batzuk ere, hala nola kultur ondare material eta immaterialaren babesari buruzkoak. Denen artean, ezbairik gabeko munta duen esparru kontzeptual bat tankeratzen dute, estatuen barnean arauzko zehaztapena behar duena alabaina, elementu haietako askok indar juridiko loteslerik ez daukatenez.

II

Espainiako 1978ko Konstituzioaren 44.1 artikulua ezartzen du botere publikoek kultura edonoren irispidean egotea sustatu eta zainduko dutela, guztiek baitute hartarako eskubidea. Eskubide horren edukia legegileak zehaztu beharrekoa dela begi-bistakoa da, eta Estatuko ordenamenduan nahiz Nafarroako Foru Komunitatekoan emandako xedapen sektorial batzuk lagungarriak dira kulturaren arlo jakin batzuetan hura zedarritzeko, hala nola ondare material eta immaterialaren kasuan, edo museo, artxibo eta liburutegiei dagokienez, esate baterako.

Komeni da, halere, kultur eskubideen antolaketak juridikoa halako moduz egitea non, eskubide horiek egikaritzen diren sektoreei ezinbesteko arreta emateaz harago, eskubideen beraien esparru orokor, argi eta zehatz bat eskainiko baita, arestian aipatutako nazioarteko testuetan oso argi bereizi diren ideia nagusiak ardatz harturik. Alegia, unibertsaltasuna, kultur aniztasuna eta pertsona orori askatasuna aitortzea bere identitate kulturala aukeratzeko eta bizitza kulturalan parte hartuko duen ala ez, eta nola, erabakitzeko. Izan ere, unibertsaltasuna, aniztasuna eta askatasuna dira

kultur eskubideen bizkar-hezurra osatzen duten balioak, eta ez da harritzekoa hala izatea, onartuz gero ezen eskubide guztiak, zein diren ere haiei eransten zaizkien adjektiboak, pertsonen duintasunarekin daudela uztarturik. Horregatik, adibidez, kultur aniztasuna ezin da erabili giza eskubideen errespetuarekin bateraezinak diren jardunbideak edo adierazpenak justifikatzeko, halakoak izateagatik pertsonen duintasunaren kontrakoak baitira.

Eskubide kulturalak egiazko eskubide direnez gero, botere publikoek horiekiko dituzten betebeharrak gainerako eskubideekiko dituzten berberak dira: errespetatu, babestu, eta haien egiazko erabilera erraztu eta sustatzea. Horretarako, nahitaezkoa da eskubideen edukia zehaztea, eta gizarte demokratiko batean lan hori gehienbat herritarren ordezkari dagokie –parlamentuei, alegia–, ukatu gabe epaileek eta auzitegiek ere, beren eginkizun juridikionala betez, zehaztapenak eranstea edo interpretazioak egitea, horretara ezkerro.

III

Horiek dira Nafarroako Eskubide Kulturalen buruzko Foru Lege honen abiapuntuak; Nafarroako Foru Eraenta Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 44.8 artikuluan xedatutakoan babesten da eskumenei dagokienez, eta haren xedea da Nafarroako Foru Komunitateko herritarren eskubide kulturalak bermatu eta sustatzea, honakoak defendatuko dituzten politika kulturalak bultzatuz: kulturak ondasun amankomun bezala duen balioa, eta kulturarako irispidea izateko nahiz bizitza kulturalen parte hartzeko eskubideak, gizarte berdinzaleagoa eta demokratikoagoa eraikitzeko zutabe diren aldetik.

Nafarroa identitate aberatsa eta askotarikoa duen erkidegoa da, bere-bereak diren gobernantza ereduetan errotutako historia duena; horregatik, kulturak kidetasun-sentimendua sortzen du, pentsamolde kritikoa hezurmamitzen, jasangarritasuna hobetzen, erkidegoko lurralde egituren taxuketan eragiten, eta gizartearen elementu integratzailea, eraldatzailea eta dinamizatzailea da, enplegua sortzeko eta garapen ekonomikorako faktore garrantzitsua izateaz gain.

Horrenbestez, foru lege hau kulturarako eskubidetik eskubide kulturaletarako aurrerapausoa da, eta lagungarria izanen da eskubide horiek giza eskubide gisa erabili daitezken, eta kulturarako nahiz sorkuntza artistikorako irispidea izateko eta kultur bizitzan parte hartzeko aukerak unibertsalak izan daitezken; orobat, sormen-gaitasunerako pizgarri eta arte adierazpenetarako babes izanen da,

eta babesa eta aitortza emanen dizkie kultur arloko langile direnen eta kultur eta sorkuntza industrietako ekintzaileen zereginari.

IV

Foru lege honek honako egitura du: sei titulu, xedapen gehigarri bat, bi xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat eta bost azken xedapen.

I. tituluan biltzen dira xedapen orokorrak eta foru legearen xedea, oinarriko printzipioak eta aplikazio esparrua. Era berean, kultur eskubideak zein diren adierazten du titulu horrek, eta horiek osotara eta libreki egikaritzea bermatzeko agintzen die Nafarroako Foru Komunitateko botere publikoei.

II. tituluan kulturarako irispidea izateko eta bizitza kulturalen parte hartzeko eskubidea arautzen da. Administrazio Publikoek zaindu beharko dute eskubide horiek betetzen direla, eta behar diren baldintzak sustatu nahiz neurriak hartuko dituzte egiazko berdintasunean gauzatuak izan daitezken, inklusioa ziurtatuz pertsona eta talde ahulentzat eta desgaitasuna dutenentzat, bai eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna ere.

Kulturarako irispidearen arloan, aurreikusten da, batetik, ez bakarrik fisikoki irisgarriak izatea kultur zentroak, museoak, artxiboak, liburutegiak, antzokiak, auditorioak, kultur ondarea osatzen duten ondasunak eta, oro har, edozein ekipamendu kultural, baizik eta irispide birtuala edukitzea informazioaren teknologien eta kultur bitartekari-tzaren bidez.

Berriaz arautzen dira zenbait gai: Nafarroako Kultur Ondarearen parte diren ondasunetarako irispidea eraentzen da, zehaztasunez adieraziz zer araubide izanen duen Nafarroako Kultur Ondareari buruzko azaroaren 22ko 14/2005 Foru Legean adierazitako betebeharrak, bisita publikoa baimentzearenak; ondare immaterialerako irispidea eta haren sustapena; dokumentu-ondararako, museo eta bilduma museografiko iraunkorretarako irispidea, eta, azkenik, liburu eta liburutegietarako irispidea.

Zinemaren eta ikus-entzunezkoen arloari dagokionez, nabarmentzekoa da kulturaren arloko eskumena duen departamentuaren mendeko Nafarroako Zinematekaren eginkizunen arautzea.

II. tituluan daude, halaber, arte eszenikoei, musikari, kultur eta sorkuntza ekosistemari eta kultur ekipamenduei dagozkien xedapenak.

Azkenik, aitortzen da pertsona orok, banaka nahiz taldean, eskubidea duela bizitza kulturalen

eta kultur arloko politika publikoekin lotutako erabakiak hartzeko prozesu garrantzitsuetan parte hartzeko, betiere gardentasunaren, informazio publikorako irispidearen eta gobernu irekiaren gaineko araudiaren esparruan, eta ezertan ukatu gabe partaidetza-tresnak aurreikusten dituzten beste arau batzuetan xedatutakoa.

III. titulua arte eta literatur sorkuntzari eta ikerketa zientifikoari buruzkoa da. Alde batetik, I. kapituluak heltzen dio sortzeko eta ikertzeko askatasunari, eta II. kapituluak, berriz, Administrazio Publikoek esparru horietan egin beharreko sustapen eta zabalkundeari.

IV. tituluak arautzen du Administrazio Publikoek kulturaren arloan duten erantzukizuna, eta ezartzen du haien jarduna bete behar dela jardueraren publikoaren gardentasunaren gaineko araudiaren esparruan.

Bestalde, kultur sektoreetan lan egiten duten pertsonen profesionalizazioa bermatzeko xedeaz, kulturaren arloko eskumena duen departamentuak bete beharko dituen jarduketak ezartzen dira.

Foru Komunitateko Administrazioari dagokionez, kulturaren arloko eskumena duen departamentuari gai hauen gaineko eskumenak esleitzen zaizkio: kultur ondarea babestu eta handitzea; herritarrek kulturarako irispidea izatea; arte sorkuntza eta zabalkundea bultzatu eta sustatzea; foru lege honetan aitortutako eskubideak eraginkorrak direla eta legea betetzen dela zaintzea, ezertan ukatu gabe Nafarroako Gobernuari dagozkion eskumenak eta Foru Komunitateko Administrazioari dagozkion departamentuekiko koordinazioa.

Horretarako, kulturaren arloko eskumena duen departamentuak garatu beharko dituen jarduketak, neurriak eta programak ezartzen dira, hain zuzen foru legearen xedeak eta helburuak betetzeko eta jasotzen dituen eskubideak eta printzipioak egiaz aitortu eta erabiltzeko behar direnak.

Udalerrien kasuan, toki araubideko oinarritzko legeriari jarraikiz, betiere berezko eskumen gisa egiten dute kulturaren eta kultur ekipamenduen sustapena, Estatuko eta autonomia erkidegoetako legeriaren baldintzetan; horrez gain, foru legeak haien kultur ondarearen zabalkundea egin eta hari balioa emateko eginkizuna esleitzen die, ukatu gabe arlo horretako eskumena duen departamentuarekin lankidetzan aritzea, hura babestu, arautu eta jakitera emateko.

Bereziki, udalerrak kultur ondare immaterialaren zabalkundeaz eta sustapenez arduratuko dira, eta ahaleginduko Nafarroako herri kulturen eta

kultura tradizionalen agerpen ezberdinak testuinguru historiko, kultural eta lurraldekoan kokatzen.

Udalerriek, beren eskumenak betez eta bakarka edo udalez gaindiko entitateen bidez, besteak beste sustatuko dituzten kultur zerbitzuak jasotzen dira.

V. tituluan Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseilua jasotzen da, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak kulturaren arloan duen kontsulta eta aholkuetarako organoa izateko. Halaber, haren eginkizunak aipatzen dira eta osaera ezartzen, erregelamenduz garatuko dena, haren antolaketa eta funtzionamendua bezalaxe.

Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseilua Nafarroako Kulturaren Kontseiluaren oinordekoa denez, foru lege honen xedapen indargabetzaile bakarrik xedatzen du bereziki indargabetuko dela Nafarroako Kultur Ondareari buruzko azaroaren 22ko 14/2005 Foru Legearen 10. artikulua, kontseilua juridikoki taxutu zuena. Lehen xedapen iragankorrean, bestalde, ezartzen da Nafarroako Kulturaren Kontseiluaz ordenamendu juridikoan egiten diren aipamenak Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseiluaz eginak direla ulertuko dela, eta foru lege honek indarra hartzen duenean Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseiluko kide izanen direla gaur egun Nafarroako Kulturaren Kontseiluko kide diren horiek.

Nafarroako Kulturaren Kontseiluaren osaera, antolaketa eta jardunbidea ezartzen dituen araudi indardunean ezarritakoarekin bat gaur egungo kideen agintaldia amaitu ondoren, Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseiluko kideak hautatuko dira, foru lege honetan xedatutakoari jarraikiz.

VI. titulua finantza eta zerga xedapenei buruzkoa da, eta gai hauek aurreikusten ditu: kulturaren finantzaketa publikoa; kulturaren arloko eskumena duen departamentuak diru-laguntzak eta laguntzak ezartzea; kultur mezenasgoaren zabalkundea; eta kultur ekintzailtzarako funtsak sortzea eta krediturako irispidea, Foru Komunitateko Administrazioari dagozkion beste departamentu batzuekin edo beste entitate batzuekin elkarlanean egiteko aukerarekin.

Foru legeak zerga arloko foru legeriara igortzen du eskubide kulturalen arloan aplikatzekoak diren zerga onuren gaia, eta espresuki aipatzen ditu kultur mezenasgoari, babesletzari, zinema ekoizpenei eta ikus-entzunezko serieei dagozkienak.

Xedapen gehigarri bakarrean ezartzen denez, kulturaren arloko eskumena duen departamentuak zerbitzu-gutunak onetsi beharko ditu, foru lege

honek indarra hartzen duenetik hasita urtebeteko epean, eta haietan zehaztuko da zein diren bere eskumen esparruetako prestazioak.

Lehen xedapen iragankorraren xedea, arestian esan bezala, Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseilua Nafarroako Kulturaren Kontseiluaren oinorde egitea da. Bigarren xedapen iragankorrek Nafarroako Kulturaren Atari Digitalaren ezarpena arautzen du.

Xedapen indargabetzaile bakarrak foru lege honen aurkako maila bereko edo beheagoko xedapen guztiak indargabetzen ditu, eta espresuki, honakoak: Nafarroako Kultur Ondareari buruzko azaroaren 22ko 14/2005 Foru Legearen 10. artikulua, baita haren 28. artikuluko b) eta c) apartatuak ere, indarra hartzen dutenetik aurrera, foru lege honen azken xedapenetatik bosgarrenaren bigarren paragrafoarekin bat, 10. artikuluko 2., 3., 4., 5. eta 6. apartatuak.

Azkenik, azken xedapenetako lehenak Nafarroako Liburutegien Sistema arautzen duen azaroaren 19ko 32/2002 Foru Legea aldatzen du, liburutegi publikoen oinarrizko zerbitzuei dagokienez; azken xedapenetako bigarrenak Ikuskizun Publikoak eta Josteta Jarduerak arautzen dituen martxoaren 13ko 2/1989 Legea aldatzen du, errazte eta sustatze aldera adingabeak eskubide kulturalak baliatzea; azken xedapenetako hirugarrenean Foru Komunitateko zerga-araudiaren egokitzapena jasotzen da; azken xedapenetako laugarrenak ahalmena ematen dio Nafarroako Gobernuari foru legea erregelamenduz garatzeko; eta azken xedapenetako bosgarrenak indar-hartzea ezartzen du.

I. TITULUA Xedapen orokorrak

1. artikulua. Xedea.

1. Foru lege honek eskubide kulturalen araubide juridikoa ezartzen du Nafarroako Foru Komunitatean, eta pertsona guztiei bermatzen die eskubide horiek eraginkortasunez erabiltzea, foru legean bertan eta gainerako arau aplikagarrietan xedatutakoari jarraikiz.

2. Foru lege honetan xedatutakoa betetzeko, Nafarroako Administrazio Publikoek koordinatuko dituzte eskubide kulturalekin lotuta gauzatzen dituzten jarduketak, bermatu eta sustatuko dute eskubide horien erabilera eta kultur ondasun eta zerbitzuetarako irispidea izatea, eta ziurtatuko dute sortzaileen, kultur eragileen eta herritarren parte-hartzea bizitza kulturalan eta kulturaren arloko politika publikoak diseinatu, garatu eta ebaluatzeko prozesuetan.

2. artikulua. Oinarrizko printzipioak.

Honako hauek dira foru lege honen inspirazio-printzipioak, Nafarroako botere publikoek kulturaren esparruan gauzatzen duten jardunari ere oinarri eman behar diotenak:

a) Pertsona guztiek kulturarako irispidea izatea eta bizitza kulturalan libreki parte hartzea erraztera bideratutako ekintzak sustatu eta betetzea.

b) Kultur aniztasuna eta norberaren kultur identitatearen hautatze libreki errespetatzea eta inklusioaren eta kulturarteko harremanen sustapena.

c) Nafarroako kultur ondare materiala eta immateriala babestea, zaintzea, ezagutaraztea eta balioan jartzea.

d) Errespetatzea adierazpenerako eta sorkuntza artistikorako askatasuna eta ekoizpen eta sormen lanetatik eratorritako eskubide utziezinen gozamina.

3. artikulua. Aplikazio esparrua.

Foru lege hau Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldean aplikatuko da.

4. artikulua. Eskubide kulturalak.

1. Eskubide kulturalak honako balio hauek oinarritzen dira: askatasuna, kultur aniztasuna, genero berdintasuna, diskriminazio eza, pluralismoa, kohesio soziala, eskuragarritasuna eta garapen jasagarria.

2. Foru lege honetan xedatutakoaren ondorioetarako, herritarren kultur eskubide dira, berdin delarik indibidualki ala kolektiboki baliatzen diren:

a) Norberaren kultur identitatea libreki aukeratzeko, kultur erkidego bateko edo batzuetako kide izateko nahiz ez izateko, eta aukeratze hori errespetatua izateko eskubidea, halatan babesturik kultur aniztasunerako eskubidea.

b) Iritzi askatasuna eta norberak aukeratutako hizkuntzako adierazpenerako askatasuna izateko eskubidea, ezertan ukatu gabe Nafarroako hizkuntza ofizialen gaineko araudian xedatutakoa.

c) Kulturarako irispidea eta Nafarroako Administrazio Publikoek eskaintzen dituzten ondasun eta zerbitzu kulturalerako irispidea askatasunez eta berdintasunez izateko eskubidea.

d) Ekoizpen eta sorkuntza literario, artistiko, zientifiko eta teknikorako eskubidea eta talentuaren eta sormenaren garapenerakoa, bai eta horien emaitzak jendearenganatu eta banatzeko ere.

e) Bizitza kulturalan norberak aukeratutako jardueren bidez libreki parte hartzeko eskubidea,

norberaren praktika kulturalak gauzatzekoa, sormenez jokatzekoa eta sormen jardueretan parte hartzekoa.

f) Foru lege honek aitortzen dizkien eskubideetan eragina izan dezaketen erabakiak hartzeko prozesu garrantzitsuetan modu aktibo eta informatuan libreki parte hartzeko eskubidea.

g) Nafarroako kultur ondare material eta immaterialerako irispidea libreki eta parekotasunez izateko eskubidea, ondare horren titulartasuna zein den ere, bai eta hartaz gozatzekoa ere, eta norbere erkidegoarekin elkarlanean aritzeko eskubidea ondare hori berreskuratu, ikertu, babestu, zaindu, jendearenganatu, balioan jarri eta sustatzeko zereginetan.

h) Herri kulturak eta kultura tradizionalak ezagutzeko eskubidea.

i) Memoria kulturala eta historikoa berreskuratzeko eskubidea.

j) Foru lege honetan aitortzen diren kultur eskubideak eraginkortasunez erabiltzeko garrantzitsua den informazio guztia jasotzeko eskubidea, bai eta kulturaren arloko informazioa eskatzekoa ere, gardentasunaren eta informazio publikorako irispidearen gaineko araudian ezarritako baldintzetan.

k) Kultur informazioa sortu eta jendearenganatzeko eskubidea, betiere errespetatuz sortzaileen eta egileen eskubide uko egin ezinezkoak.

l) Norbere literatur, arte eta zientzia ekoizpen lanetatik eratorritako egile-eskubide uko egin ezinezkoak babestuta izateko eta haietaz gozatzeko eskubidea, arloaren gaineko araudiarekin bat.

3. Foru lege honetan aipatzen diren eskubideak erabiliko dira bertan eta aplikatzekoak diren gainerako arau eta xedapenetan ezarritakoarekin bat, eta errespetatuz Konstituzioak, giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen babeserako Europako Hitzarmenak eta eskubide eta askatasunei buruz Estatuak berretsitako nazioarteko itun eta akordioek ezartzen dituzten mugak.

5. artikulua. Eskubide kulturalen bermea eta sustapena.

1. Foru lege honetan eta aplikatzekoak diren gainerako arauetan aurreikusitako baldintzetan, Nafarroako Foru Komunitateko botere publikoek bermatuko dute eskubide kulturalak osotara eta libreki erabiltzea egiazko berdintasuneko araubidean, horretarako behar diren aurrekontu-neurriak hartuz, bai eta behar diren gainerako neurriak ere, izaera positiboa eta sustapenekoa dutenak barne.

2. Aplikatzekoak izanen dira, kasua bada, legezketasuna berrezartzeko neurriak eta zehapen araubidea, jasota daudenak kultur ondare, artxibo, agiri, museo eta bilduma museografiko iraunkorrei buruzko foru araudian eta gainerako ordenamendu juridikoan.

II. TITULUA

Kulturarako irispidea izateko eta bizitza kulturean parte hartzeko eskubidea

I. KAPITULUA

Kulturarako irispidea izateko eskubidea

6. artikulua. Kulturarako irispidea.

1. Nafarroako Administrazio Publikoek begiratu dute kulturarako irispidea eta bizitza kultureko parte-hartzea egiazko berdintasunez gauzatzeko, eta diskriminaziorik gabe jatorria, etnia, erlijioa, ideologia, sinesteak, generoa, sexu orientazioa, desgaitasuna edo beste edozein egoera pertsonal edo sozial dela-eta.

2. Nafarroako Administrazio Publikoek baldintza egokiak sustatuko dituzte pertsonaren eta hark osatzen dituen taldeen askatasuna eta berdintasuna errealak eta eraginkorrak izan daitezen kulturarako irispidea izateari eta bizitza kulturean parte hartzeari dagokienez, eta horiek erabatekoak izatea zailtzen edo eragozten duten oztopoak kenduko dituzte. Horretarako sustatuko dute herritarrek kulturarako irispidea izatea eta bizitza kulturean parte hartzea, eta beharrezkoak diren neurri guztiak hartuko dituzte, positiboak barne, pertsona eta talde ahulen eta desgaitasuna dutenen inklusioa ziurtatzeko, bai eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna ere.

7. artikulua. Kulturarako irispide fisikoa.

1. Nafarroako Administrazio Publikoek progresiboki bermatu beharko dute irispide fisikoa, psikikoa eta sensoriala aurreko artikuluan xedatutakoaren arabera izatea kultur zentroetan, museoetan, artxiboetan, liburutegietan, antzokietan, auditorioetan, kultur ondareko ondasunetan eta, oro har, kultur ekipamendu orotan.

2. Nafarroako Administrazio Publikoek herritarrei behar den informazioa eta behar bezala eguneratua emanen diete arestian aipatutako toki, zentro eta gunetarako irispidearen baldintzei buruz. Informazio horretan jasoko dira, gutxienez, jendearentzat irekita egoteko ordutegia, ordaindu beharreko prezioa, baldin badago, eta eskura dauden zerbitzu osagarriak.

3. Herritarrentzako informazioa eta arreta eskainiko dira euskarari buruzko araudian eta irisgarritasun unibertsalari buruzkoan xedatutakoarekin bat.

8. artikulua. Kulturarako irispide birtuala. Nafarroako Kulturaren Atari Digitala.

1. Nafarroako Administrazio Publikoek erraztu egingen dute kulturarako irispidea informazio-teknologiaren bitartez lortzea, eta teknologia horien bitartez ezagutaraztea beharrezkoa eta eguneratua den informazioa, kultur zentroei, museoei, artxiboari, liburutegiei, kultur ondareko ondasunei eta, oro har, edozein kultur ekipamenduri buruzkoa. Horrek barne hartzen ditu garrantzi kultural bereziki jotzen diren toki, eraikin edo guneen bisita birtualak; batez ere, horietarako sarbide fisikorako murrizgarri espezifikoak daudenean.

2. Herritarrentzako informazioa eta arreta 7. artikuluko 3. apartatuan adierazitako baldintzetan eskainiko dira.

3. Kultura arloko eskumena duen departamentuak Nafarroako Kulturaren Atari Digitala sustatuko du, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren titulartasuneko zerbitzu publiko gisa, herritarrek haren bitartez eskura dezaten kultur informazioa eta dokumentazioa, eta Nafarroako kultur esparru digitala garatu eta sendotzen laguntzeko.

4. Nafarroako Kulturaren Atari Digitalak irisgarritasun unibertsalaren irispideak beteko ditu.

5. Ulertzen da artikuluko honetan xedatutakoa ez dela oztopo izanen gardentasunaren gaineko araudiak aipatzen duen Gobernu Irekiaren Atariaren bitartez bideratzen diren zerbitzuetarako.

9. artikulua. Kultur bitartekaritza.

1. Nafarroako Administrazio Publikoek kultura eta arte bitartekaritzako prozesuak jarriko dituzte eskura, herritarrei arte eta kultur adierazpenen kultur kodeetarako irispidea izaten laguntzeko, eta haiek ezagutu eta ulertzearekin lotzeko, bai eta herritarren eskura jartzeko ere kultur ekoizpenak behatzea eta haietaz gogoeta egitea ahalbidetzen duten baliabideak.

2. Kultur eragileek tresnak eta ekintzak sustatuko dituzte, lanak eta edukiak beren testuinguruetan ulertzea ahalbidetzeko, eta herritarrek esanahien eraikuntzan parte har dezaten laguntzeko.

II. KAPITULUA

Kultur adierazpenetarako irispidea

10. artikulua. Nafarroako Kultur Ondareko ondasunak.

1. Pertsona orok du eskubidea Nafarroako Kultur Ondarea berdintasunez gozatzeko, ondasunen zainketa- eta babes-beharrizanak errespetatuz.

2. Edozein titulurengatik Nafarroako Kultur Ondareko ondasunen jabe edo edukitzaile diren pertsona edo entitateek betebeharrak hauek dituzte:

a) Baimena ematea interes kulturekotzat deklaratuak diren ondasunen eta ondasun higiezin inbentariatuaren doako bisita publikorako, halako moduz non hilean lau egunez eta egunean lau orduz egin ahalko baita gutxienez ere, aurrez adierazitako egun eta orduetan. Interes kultureko ondasun higigarriari dagokienez, zilegi izanen da, edozein titulurengatik jabe edo kasuko eskubideen edukitzaile direnek hala eskatuta, arestian aipatutako betebeharrak horren ordeztu haiek gordailuan uztea, kultura arloko departamentu eskudunak haien erakusketa publikorako erabakitzen duen zentroan.

b) Interes kultureko ondasun higigarriak maileguan uztea Nafarroako Administrazio Publikoek antolatu edo sustatutako aldi baterako erakusketa publikoetarako.

c) Behar bezalako egiaztagiria duten ikeritzaileak baimentzea Nafarroako Kultur Ondareko Ondasunen Erregistroan inskribatuta dauden ondasunetarako irispidea izan dezaten, horretarako eskaera arrazoitua egin ondoren; eskaera horri uko egiten ahalko zaio soilik horretarako arrazoiak daudenean, kulturaren arloko eskumena duen departamentuak arrazoi horiek egiaztatu ondoren. Ondasun higigarriari dagokienez, zilegi izanen da, edozein titulurengatik jabe edo edukitzaile direnek hala eskatuta, arestian aipatutako betebeharrak horren ordeztu haiek gordailuan uztea, kultura arloko eskudun den departamentuak xedatzen duen zentroan.

3. Artikulu honetan xedatutakoa halaber aplikatuko zaio interes kulturekotzat deklaratuak izanik Eliza Katolikoaren jabetzakoak diren ondasunei buruzko legediari, irispide publikoa ahalbidetze aldera kasuan kasuko lankidetzak akordioaren bitartez; hori, halere, ez da eragozpena izanen 1. apartatuan aurreikusitako eskubiderako.

4. Ezin izanen da urtean 60 egun natural baino gehiagokoa izan a), b) eta c) letretan aipatzen diren mailegu eta gordailuen denbora-muga.

5. Salbuespen gisa, kultura arloko eskumena duen departamentuak zilegi izanen du 2. apartatuan ezarritako betebeharrak betetzetik aske uztea, osorik edo hein batean, ofizios edo pertsona nahiz entitate interesdunek hala eskatuta, behar bezala justifikatutako arrazoiengatik; besteak beste, pertsonen segurtasuna bermatu beharra, edo kultur ondasunaren zainketa.

6. Kultura arloko eskumena duen departamentuak bisitaldi publikorako egutegiak eta ordutegiak onetsi eta behar bezala ezagutaraziko ditu. Horretarako, ondasunen jabe edo edukitzaile diren pertsona edo entitateei eskatuko die beren proposamenak egiteko, departamentuak ezartzen dituen epe eta baldintzetan.

7. Nafarroako Administrazio Publikoek, kultur ondarea eta horren osagai diren ondasunek jasozten dituzten balioak ezagutaraztearen arloan dituzten eginkizunak betetzeko, tokian bertan informazioa eskainiko diete herritarrei ondasun horien kultur esanahiaz eta ondasun horiek araudian aurreikusten diren babes kategorietakoren batean sartzeko arrazoiez.

11. artikulua. Ondare immateriala.

1. Pertsona guztiak dute eskubidea Nafarroako ondare immaterialaren parte diren ondasunetarako irispidea izateko eta haien esanahia ezagutzeko, ikerketarako izan edo ez, eta ondasun horiek Nafarroako Ondare Immaterialaren Inbentarioan sartuta egon edo ez. Eskubide horren erabilera bat etorri beharko du Kultur Ondare Immaterialaren Babesa dela-eta Unesco tankeratutako Printzipio Etikoekin.

2. Kulturaren arloko eskumena duen departamentua toki entitateekin, elkarteekin eta artikulu honetan aipatzen diren ondasunen titularrekin elkarlanean arituko da ondasun horien zabalkundea egiteko, horiek ezagutzera emateko eta horiek balioan jartzeko, batez ere Nafarroako Ondare Immaterialaren Inbentarioko dokumentazioaren bidez eta herritarrei eduki horietarako irispidea errazteko neurriak ezarriz.

3. Kulturaren arloko eskumena duen departamentuak lagunduko du herri kultura eta kultur tradizional direnak oro har garatzen eta, bereziki, haien molde eta adierazpide guztiak garatzen, sektoreko entitateekin lankidetzan arituz garapen hori ahalik eta onena izan dadin. Halaber, beti ahaleginduko da landa-munduak eta hiri-munduak haien taxuketan, zaintzan eta adierazpidean duten parte-hartzea agerian jar dadin.

4. Berariazko deialdien bidez sustatuko dira Nafarroako herri kulturen eta kultura tradizionalen adierazpenak suspertzen eta balioan jartzen dituzten toki-ekimenak, eta elkarlanean sortuko dira programa espezifikoak.

12. artikulua. Artxiboak eta Dokumentu-ondarea.

1. Pertsona guztiak dute eskubidea Nafarroako Dokumentu-ondarearen parte diren ondasunak ezagutza- eta ikerketa-helburuetarako kontsulta-

tzeko, ondasun horiek Nafarroako Artxiboen Sistemari sartuta egon edo ez.

2. Nafarroako titulartasun pribatuko Dokumentu-ondarearako irispidea ezagutza- eta ikerketa-xedeetarako bermatze aldera, ondasun horien jabe edo edukitzaile diren pertsonak edo entitateek foru lege honen 10. artikuluko 2. apartatuan adierazita dauden betebeharrak izanen dituzte; halere, zilegi izanen dute horiek bete ordez dokumentuen gordailua egitea Nafarroako Errege Artxibo Nagusian.

3. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak digitalizatu egingen ditu Nafarroako Dokumentu-ondarearen parte diren titulartasun publikoko dokumentuak.

4. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak sustatu egingen du Nafarroako Dokumentu-ondarearen parte diren titulartasun pribatuko dokumentuen digitalizazioa, eta langintza horretan lagunduko du dokumentu horietarako irispidea errazteko, batez ere Nafarroako Kulturaren Atari Digitalaren bidez. Titulartasun pribatuko dokumentuen zuzeneko kontsultaren edo gordailua egitearen ordez digitalizazioa erabiliko da, salbu eta interesdunek frogatzen badute beharrezkoa zaiela dokumentuetarako irispidea izatea, ezagutzari edo ikerketari dagozkion arrazoiengatik. Kulturaren arloan eskudun den departamentuak arrazoi horiek egiaztatu beharko ditu.

13. artikulua. Museoak eta bilduma museografiko iraunkorrak eta arte plastikoak.

1. Pertsona guztiak dute eskubidea Nafarroako Museoen eta Bilduma Museografiko Iraunkorren Erregistroan inskribatutako museoetarako eta bilduma museografiko iraunkorretarako irispidea izateko, foru lege honetan ezarritako baldintzetan.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa ukatu gabe, aitortuak eta Erregistroan inskribatuak izan diren museo eta bildumetan dauden ondasunen jabe edo edukitzaile diren pertsonak edo entitateak behartuta daude foru lege honen 10. artikuluko 2. apartatuan ezarritako betebeharrak betetzera.

2. Bisitarako ohiko ordutegiez gain, artikulu honetan aipatzen diren museo eta bilduma museografiko iraunkorretarako sarbidearen doakotasunari buruz honakoa ezartzen da:

a) Jende guztiarentzat astean doako bisita egun bat izanen da gutxienez ere, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren titulartasuneko museoetan eta bilduma museografiko iraunkorretan.

b) Museoei eta bilduma museografiko iraunkorrei Nafarroako Aurrekontu Orokorretako partida izendunen bidez ematen zaizkien diru-laguntzak arautzeko oinarriek doako sarbiderako ordutegi bat ezarriko dute jende guztiarentzat, zentro horien irekitze-ordutegien arabera.

c) Jende guztiarentzako doako bisitarako ordutegia irizpide bezala baloratuko da museoei eta bilduma museografiko iraunkorrei funtzionamendu-dirulaguntzak emateko garaian.

3. Kulturaren arloko eskumena duen departamentua elkarlanean arituko da artikulu honetan aipatzen diren museoen eta bildumen titularrekin, batez ere bildumen digitalizazioa egiten, bisita birtualen arloan eta beste baliabide tekniko batzuekin egin daitezkeen jarduera guztietan, mota guztietako bisitarien instalazio eta edukietarako irispidea izan dezaten errazteko.

4. Arte plastikoak eta ikusizkoak sustatzeko xedeaz, kulturaren arloko eskumena duen departamentuak prestakuntza, esperientziazioa eta ikerketa sustatuko ditu haien lengoaia ezberdinei buruz.

14. artikulua. Liburua eta liburutegiak.

1. Pertsona guztiek dute eskubidea Nafarroako liburutegi publikoetako oinarriko zerbitzuetarako irispidea izateko, Foru Komunitateko liburutegi-sistemaren gaineko araudian ezarritako baldintzetan.

2. Kulturarako irispidea izateko eskubidea gauzatzen laguntzeko, Nafarroako Gobernuak irakurketaren sustapenerako planak egin eta garatuko ditu; aldizka ebaluatu eta eguneratuko dira plan horiek, aurrekontuko zuzkidura egokia esleitu zaien, eta berrikuntza teknologikoetara moldatuko dira.

Irakurketaren sustapenerako planek arreta berezia emanen diete haur eta gazteei, irakurtze-ohitura sendotzeko, bai eta gizartean egoera ahulagoan dauden sektoreetan daudenen, desgaitasuna dutenen eta migratzaileen beharrei ere.

3. Kulturaren arloko eskumena duen departamentuak Nafarroako Ondare Bibliografikoaren parte diren titulartasun publikoko funts bibliografikoak digitalizatuko ditu.

4. Kulturaren arloko eskumena duen departamentuak Nafarroako Ondare Bibliografikoaren parte diren titulartasun pribatuko funts bibliografikoaren digitalizazioa sustatuko du eta horretan elkarlanean arituko da, horietarako irispidea errazteko, batez ere Nafarroako Kulturaren Atari Digitalaren bidez horiek eskuan jarri. Titulartasun pribatuko funts bibliografikoaren digitalizazioa

zuzeneko kontsultaren edo gordailuaren orde egingen da, salbu eta interesdunek frogatzen badute dokumentuetarako sarbidea derrigorrezkoa zaiela ezagutza- edo ikerketa-arrazoiengatik. Kultura arloko eskumena duen departamentuak arrazoi horiek egiaztatu beharko ditu.

5. Kulturaren arloko eskumena duen departamentuak agiri irisgarriak izanen ditu, eta, horretarako, desgaitasunaren arloko entitate espezializatuarekin arituko da elkarlanean.

6. Kulturaren arloko eskumena duen departamentuak plan eta programak bultzatuko ditu literatura sorkuntzako obretarako (genero guztietakoak) mesedegarriak diren baldintzak sustatzeko, bai eta beste arte-adierazpen batzuekin eta giza eta gizarte zientziekin lotutako gaien azterketa, kritika eta ikerketa ere; horretarako, sortzaile eta idazle berrientzako eta liburu-argitalpenerako laguntza-tresna espezifikoak tankeratuko ditu.

7. Kulturaren arloko eskumena duen departamentuak beharizan sozialei egokitutako liburutegi-eredu bat bultzatuko du, hura egokituz eskaintako irakurketa-plan eta -zerbitzuei, gizartearentzat hurbilagokoa den sistema digital bati egokituta.

15. artikulua. Nafarroako Zinemateka, zinemagintza eta ikus-entzunezkoak.

1. Nafarroako Zinemateka kulturaren arloko eskumena duen departamentuaren menpe egonen da, eta, besteak beste, eginkizun hauek izanen ditu zinemagintza eta ikus-entzunezko jarduerarekin lotuta:

a) Irabazi-asmorik gabe ziklo eta saioak edo beste edozein zinemagintza-adierazpide antolatuz ondare zinematografikoa ezagutaraztea, hura zeinahi euskarritan editatzea eta kultura zinematografikoa jendearenganatzeari begira egokituz josten diren jarduera guztiak egitea.

b) Nafarroako Foru Komunitatean dagoen ondare zinematografiko eta ikus-entzunezkoa, bai eta zinemagintzari loturiko beste edozein elementu ere, defendatu, berreskuratu, babestu, zaharberritu, dokumentatu eta katalogatzea.

c) Edozein euskarritako filmen eta ikus-entzunezko lanen artxiboa babestu eta zaintzea, bai eta oro har funts zinematografiko guztiak ere, hala bere jabetzakoak nola jatorria lege-gordailu, borondatezko gordailu, dohaintza, jaraunspen edo legatuetan dutenak.

d) Organo eskudunak arlo honetan ematen dituen laguntza publikoen onuradunek entregatu beharrekoak diren lan zinematografikoak edo ikus-

entzunezkoak babestu eta zaintzea, bai eta jendearenganatzea ere, ezartzen diren baldintzetan.

e) Ikerketak eta azterlanak egitea eta sustatzea, arreta berezia emanez Nafarroako filmografiari.

f) Autonomia erkidegoetan ezarritako zinemathekin elkarlanean aritzea haien jardueretan, bai eta Zinemateka Nazionalean sartuta daudenekin, Film Artxiboen Nazioarteko Federaziokoekin eta beste batzuekin ere.

2. Kulturaren arloko eskumena duen departamentuak eginkizun hauek izanen ditu ikus-entzunezkoen sektoreari dagokionez:

a) Ikus-entzunezko kultura sustatu eta jendearenganatzeko planak egin eta garatuko ditu; aldizka ebaluatu eta eguneratuko dira plan horiek, aurrekontu zuzkidura egokia esleituko zaie eta berrikuntza teknologikoetara moldatuko dira.

b) Navarra Film Commission erakundearen bitartez, Nafarroan lan egiteko behar duten informazioa emanen die ikus-entzunezko sektoreko enpresa eta profesionaleri, naziokoei nahiz nazioartekoei, eta, horrekin batera, aholkularitza integrala lokalizazioak aurkitzeko, ekoizpeneko logistikan eta behar duten beste edozein zerbitzutan.

Era berean, Nafarroako enpresa eta profesionalen nazioarteratzea eta kanpoko proiektzioa sustatuko ditu, bai eta beste lurralde batzuekiko aliantzak ere, ikus-entzunezkoen sektoreko beste eragile batzuekin lankidetzan.

c) Ikus-entzunezko kultur sorkuntzarako baldintza mesedegarriak ikuspegi guztietatik sustatuko dituzten planak eta programak bultzatuko ditu, ikusgai eginen dituztenak zinemaren eta ikus-entzunezkoen lengoia eboluzionaraziko duten proposamen berritzaileak bereziki.

d) Ikus-entzunezkoen arloko kontzepzio desberdinen jendearenganatzea errazteko jaialdiak edo lehiaketak antolatu edo sustatuko ditu.

16. artikulua. Arte eszenikoak eta musika.

1. Nafarroako Administrazio Publikoek, arte eszenikoek eta musikaren sektoreetako arte eta kultur adierazpideen gozamina bermatzeko, eginkizun hauek izanen dituzte, zeinek bere eskumenen alorrean:

a) Sustatuko dute arte eszenikoek eta musikaren sektore profesional eta amateur-ek parte har dezaten Nafarroako Foru Komunitateko arlo horietako kultur politikak diseinatu eta garatzen.

b) Gizartean arte eszenikoek eta musikak prestigioa har dezaten begiratuko dute, berezko balioa duten adierazpide soziokulturalak eta artistikoak diren aldetik, eta sustatuko dute haien praktika, publikoen prestakuntzari begira duen garrantziari arreta emanez bereziki, bai eta hura egiten dutenei ere, sektore profesionaletik nahiz amateur-etik etorri, ez bata ez bestea kaltetu gabe.

c) Arte eszenikoek eta musikaren sustapenerako programak diseinatuko dituzte, eta arte lengoia garaikide berrien jendearenganatzean lagunduko dute.

d) Jaialdiak edo lehiaketak antolatu edo sustatuko dituzte, bai eta unean uneko kultur adierazpideak ere, kultur kontzepzio desberdinen jendearenganatzeari laguntzeko.

e) Arte eszeniko eta musikalen sorkuntzari eta ekoizpenari laguntzeko bideak ezarriko dituzte, horien artean zuzendaritza artistikoak, gune eszenikoek eta baliabideen lagatzea bertan egoitza duten konpainientzat eta Nafarroan sormen edo ikerketa proiektuak garatzeko egonaldi artistikoak egiten dituztenentzat.

f) Arte eszenikoek garapena bultzatuko dute, lan eta ikuskizun eszenikoak sortzea nahiz horien sustapena eta jendearenganatzea egitea, bai eta haien banaketa egokia ere, sustapen plan berritzaile bidez.

g) Elkarlanean arituko dira emanaldietarako sareak diseinatzeko eta mantentzeko, arreta berezia emanez Nafarroako sorkuntza lanei, horrela arte eszeniko eta musikalen programazioa ziurtatzeko Nafarroako udalerrietan, emanaldietarako guneak bilduko dituen behar besteko sare dibertsifikatu baten bidez, formatuen eta ikusle moten arabera.

2. Bereziki, kultura arloko eskumena duen departamentuak eginkizun hauek izanen ditu:

a) Sorkuntzarako, ekoizpenerako, emanaldietarako, banaketarako eta zabalkunderako berritzaile laguntza larriak garatuko ditu, bai eta ikerketa nahiz elkartegintza sustatzeko ere; horretarako, eskaintzaren aniztasuna eta publiko-ekoizpena eta beharrak bultzatuko ditu.

b) Nafarroako arte eszenikoek eta musikaren sektoreei buruzko informazio iturriak izaten saiatuko da, lehen nahiz bigarren mailakoak, joerei buruzko analisiak egiteko.

c) Nafarroako arte eszeniko eta musikalen ondarea osatzen duten ondasun materialen eta immaterialen kontserbazioa eta haiei buruzko ikerketa bultzatuko ditu.

17. artikulua. Kultur eta sorkuntza ekosistema.

Foru lege honen ondorioetarako, kultur eta sorkuntza ekosistema harreman-ingurune bat da, non profil desberdinek (artistikoak, zientifikoak eta teknikoak) parte hartzen baitute, mota desberdinetako eredu bidez sormena eta berrikuntza hedaturik.

Pertsona guztiak dute eskubidea kultur eta sorkuntza ekosistemak eragiten dituen eta kultur politiken esparruan sustatzen diren adierazpideetarako irispidea izateko eta haietaz gozatzeko. Eskubide hori bermatzeko, kulturaren arloko eskumena duen departamentuak honela jokatu du:

1. Kultur eta sorkuntza ekosistemaren berri izaten lagunduko du, Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldean horri buruzko mapaketak eginez.

2. Kultur eta sorkuntza ekosistema ikuspuntu sozialetik, ekonomikotik eta prestakuntzakotik ezagutzeko behar diren azterlanak sortuko ditu.

3. Kultur proiektu eta prototipoak ekoiztea sustatuko du, norgehiagokako prozedura erabiliz.

4. Pizgarriak emanen ditu kultur eta sorkuntza ekosistemak tokia izan dezan espezializazio adimentsuko estrategietan edo sortzen diren bestelako plan eta estrategietan, batez ere estrategia horien alderdi ekonomiko, teknologiko, kultural eta sozialak integratuko dituen kultur politika baten barruan.

5. Zabalkunderako eta ezagutzera emateko behar diren ekintzak antolatu eta bultzatuko ditu.

6. Kultura komunala eta librea aldeztu eta sustatuko ditu.

18. artikulua. Kultur ekipamenduak.

1. Pertsona guztiak dute eskubidea Nafarroako Administrazio Publikoen kultur ekipamenduetan gauzatzen diren adierazpen eta agerpen artistikoak sustatzen dituzten zerbitzu, programa eta jardueretarako irispidea izateko.

2. Kulturaren arloko eskumena duen departamentuaren kultur ekipamendu berri guztiak izan beharko dute bideragarritasun plan bat eta Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseiluak emandako nahitaezko txosten bat.

3. Kulturaren arloko eskumena duen departamentuak udalen kultur ekipamenduak eraikitzen eta hornitzen lagunduko du, haien lurralde-banaketa orekatu bat lortze aldera, aintzat harturik proportzionaltasun-irizpidea eta kokatuta dauden toki entitatearen errealitateari egokitzearen irizpidea.

4. Aurreko apartatueta xedatutakoaz gain, Nafarroako udalerriek ahalegina eginen dute, bakarrik edo udalez gaindiko entitateen bitartez, kultur ekipamenduen arloan dituzten eskumenez baliatuz, langile profesionalak dituzten gertuko kultur ekipamenduak lortzera eta/edo sorkuntza-gune kogestionatuak eta autogestionatuak lortzera bideraturiko neurriak hartzen.

5. Kulturaren arloko eskumena duen departamentuak sustatuko du mapaketak egin daitezzen, joeren diagnostikoa eta azterketak egiteko baliagarriak izanzen direnak, Nafarroako kultur ekipamenduen kasuan nahiz arte eta kultur sormena bultzatzen duten guneen kasuan.

6. Kulturaren eta arteen arloko ekipamenduek irisgarritasun unibertsalaren gaineko araudiak esparru horietan ezartzen dituen eskakizunak bete beharko dituzte.

III. KAPITULUA**Bizitza kulturalen parte hartzea eta erabakiak hartzea****19. artikulua.** Bizitza kulturalen parte hartzea.

1. Bizitza kulturalen parte hartzeko eskubideak berekin dakar pertsona orok, berez, beste batzuekin batera edo erkidego bateko kide gisa, libreki esku har dezakeela erkidegoaren bizitza kulturalen, bere kultur praktikak gauzatu, hautatuko hizkuntza erabili, eta kultur ezagutzak eta adierazpideak garatu eta beste batzuekin partekatu.

2. Bizitza kulturalen parte hartzeko eskubideak bere baitan hartzen du norbere erkidegoaren nahiz beste erkidego batzuen kultura ezagutu eta hautatzeko askatasuna.

3. Bizitza kulturalen parte hartzeko eskubideak berekin dakar, halaber, pertsona orok egin dezakeela bere ekarpena erkidegoaren adierazpen material eta intelektualak sortzen, baita parte hartu ere kide den erkidegoaren garapenean.

20. artikulua. Erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzea.

1. Gardentasunaren, informazio publikorako irispidearen eta gobernu irekiaren gaineko araudiaren esparruan, eta parte hartzeko bideak aurreikusten dituzten beste arau batzuetan xedatutakoa ukatu gabe, herritarrek eskubidea dute bizitza kulturalen libreki parte hartzeko, eragiten dieten kulturaren arloko politika publikoekin lotutako erabakiak hartzeko prozesu garrantzitsuetan esku hartuz, eta beren kultur eskubideez baliatuz.

Nafarroako Administrazio Publikoek bultzatuko dute herritarrek eskubide hori erabil dezaten.

2. Erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzeko eskubidea erabiltzen ahalko da banako gisa edo kulturaren eta kultur nahiz sorkuntza adierazpenen sustapena helburutzat duten elkarte, erakunde eta entitateen ordezkari gisa.

III. TITULUA

Arte eta literatur sorkuntza eta ikerketa zientifikoa

I. KAPITULUA

Sorkuntzarako eta ikerketarako askatasuna

21. artikulua. Arte eta literatur sorkuntzarako askatasuna.

Ordenamendu juridikoarekin bat, pertsona guztiek dute eskubidea arte eta literatur ekoizpen eta sorkuntzarako, bai eta aukeratzen dituzten lengoaiak, kodeak eta formatuak erabiliz beren sormenlanak adierazi edo formulatzeko ere.

22. artikulua. Ikerketa zientifikorako askatasuna.

Ordenamendu juridikoarekin bat, pertsona oro balia daiteke ikerketa zientifikorako askatasunaz, aukeratzen dituen jakintza arlo eta eremuetan.

23. artikulua. Aurrerapen zientifikoaren onurez gozatzeko eskubidea.

Ordenamendu juridikoarekin bat, pertsona orok du eskubidea aurrerapen zientifikoaren eta haren aplikazioen onurez gozatzeko.

24. artikulua. Egile eskubideak.

1. Ordenamendu juridikoarekin bat, pertsona orok du eskubidea norberak egindako literatur, zientzia edo arte ekoizpenen kariaz dagozkion uko egin ezinezko eskubideak gozatu eta haien babesarako; eskubide horren helburua da pizgarri bat ematea ekarpen aktiboa egin dakien arte eta zientzietan eta gizartearen kultur aurrerapenari.

2. Kultur sorkuntzaren edozein formatan diharduten pertsonak eskubidea dute zergen ikuspuntutik tratamendu arrazoizkoa, inpartziala eta berdintasunezkoa jasotzeko, aintzat hartua izanez, kasua bada, jarduera horretatik datozkien diru-sarreraren irregularitasuna eta noizbehinkakotasuna, bai eta horiek beste jarduera profesional edo ekonomiko batzuekiko duten osagarritasun-izaera.

II. KAPITULUA

Administrazio Publikoek arte sorkuntza eta ikerketa zientifikoa sustatu eta jendearenganatzea.

25. artikulua. Administrazio Publikoak eta arte eta literatur sorkuntzaren eta ikerketa zientifikoaren sustapena eta jendearenganatzea.

Nafarroako Administrazio Publikoek jardunaldiak, biltzarrak, jaialdiak edo beste edozein ekitaldi egitea sustatuko dute, arte eta literatur sorkuntza eta ikerketa zientifikoa bultzatu eta jendearenganatzeko.

26. artikulua. Ikerketa zientifikoari laguntzea.

Nafarroako Administrazio Publikoak elkarlanean aritzen ahalko dira ikerketa zientifikoan diharduten erakunde akademikoekin, ikerketa zientifikorako ezinbestekoa den askatasuna zainduz eta, beraz, ikertzaileen jardunaren gauzatzean esku-sartzeak edo interferentziak ekidinez. Horretarako, ekitaldi zientifikoak diruz laguntzen ahalko dituzte, hala nola biltzarrak, jardunaldiak, hitzaldi zikloak edo mintegiak, ikerketa proiektuak, liburuen eta aldizkarien argitalpena, edo zientziaren berri emateko beste edozein bide.

27. artikulua. Aurrerapen zientifikoaren onurak sustatzea.

Nafarroako Administrazio Publikoek sustatuko dute aurrerapen zientifikoaren eta haren aplikazioen onurez gozatzeko, bizitza kulturalean parte hartzeko eskubidearekin lotuta. Horretarako, sustatuko dute herritarrek irispidea izan dezaten zientziaren eta haren aplikazioen onurarako, jakintza zientifikoa barne, Liburutegiaren Sarearen, Nafarroako Kulturaren Atari Digitalaren eta beste tresna batzuen bitartez.

28. artikulua. Kulturaren arloko eskumena duen departamentuak sustatutako jardunaldi akademikoak eta dibulgazioak.

Kulturaren arloko eskumena duen departamentuak Nafarroako kulturari buruzko ikerketa jendearenganatzeko bideak jarriko ditu, biltzarrak, jardunaldiak, hitzaldi zikloak edo mintegiak antolatuz, publiko espezializatuari zuzenduta nahiz dibulgatorako.

29. artikulua. Kulturaren arloko eskumena duen departamentuak sustatutako argitalpenak.

Kulturaren arloko eskumena duen departamentuak formatu desberdinetako argitalpenak sustatuko ditu Nafarroako kulturari eta giza eta gizarte zientzietan buruzko emaitzak jendearenganatzeko, bide hauek erabiliz, besteak beste:

a) Artikuluak argitaratuz aldizkari espezializatu hauetan: “Príncipe de Viana”, “Fontes Linguae Vasconum”, “Cuadernos de Etnografía y Etnología de Navarra”, “Trabajos de Arqueología de Navarra”, bai eta etorkizunean sor litezkeen beste batzuetan ere, kultura librearen printzipioak aplikatuz.

b) Monografiak argitaratuz.

IV. TITULUA

Administrazio Publikoen erantzukizuna kulturaren arloan

30. artikulua. Gardentasuna eta jardunbide egokiak.

1. Nafarroako Administrazio Publikoen kulturaren arloko jarduna bat etorriko da jarduera publikoaren gardentasunaren gaineko araudiarekin, eta, ordenamendu juridikoan xedatutakoaren esparruan, jardunbide egokiak ezarriko ditu kontratazioaren eta dirulaguntzen arloan, baita jarduerarako babes eta pizgarri izanzen diren beste neurri batzuk ere.

2. Bereziki, Nafarroako Administrazio Publikoen kultur arloko jarduketak diskriminaziorik ezaren eta kultur eskubideen berme eta eraginkortasunaren printzipioak beteko ditu.

3. Kulturaren arloko eskumena duen departamentuak jardunbide egokien kode bat egin eta erabiliko du.

31. artikulua. Nafarroako administrazio eta erakunde publikoen argitalpenetarako irispidea eta haien erabilera.

Nafarroako administrazio eta erakunde publikoen berezko argitalpenetarako irispidea eta haien erabilera Kultura Libre eta Komunalaren printzipioen arabera izanzen dira, Copyfarleft-aren oinarriak jasotzen dituzten lizentziak tarteko. Horretarako, Nafarroako administrazio eta erakunde publikoek kasuko sorkuntza-eskubideen lagapena lortu eta erabakiko dute.

32. artikulua. Kultur sektoreen profesionalizazioa.

Kulturaren arloko eskumena duen departamentuak, kultur sektoreetan lan egiten duten pertsonen profesionalizazioa bermatzeko, honakoak egingen ditu:

a) Behar diren neurriak sustatuko ditu, bermatze aldera sektoreei dagozkien lanpostuen aitortza eta, halaber, kudeatzaile, liburuzain, artxibozain, sustatzaile, ikertzaile, bitartekari, teknikari eta kultur sektoreetako beste batzuen trebakuntza eta espezializazioa.

b) Berak bakarrik edo beste entitate batzuekin elkarlanean, kultur eragileentzako prestakuntza eta trebatze ekintzak bultzatuko ditu, erronka berriei erantzun kualifikatua emateko eta kultur sektoreen garapen iraunkorra bermatzeko.

33. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa.

1. Kulturaren arloko eskumena duen departamentuak beteko ditu Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak gai hauetan esleituak dituen eskumenak: kultur ondarea babestu eta handitzea; herritarrek kulturarako irispidea izatea; arte sorkuntza eta jendearenganatzea bultzatu eta sustatzea; eta foru lege honetan aitortutako eskubideak eraginkorrek direla eta legea betetzen dela begiratzea. Horiek guztiak, betiere, ukatu gabe Nafarroako Gobernuari dagozkion eskumenak eta Foru Komunitateko Administrazioko gainerako departamentuekiko koordinazioa.

2. Kulturaren arloko eskumena duen departamentuak Nafarroaren kultur garapena sustatuko du, eta kultur zerbitzuen, baliabideen eta jardueren kalitatezko kudeaketa eraginkorra bultzatuko; horrekin batera, horietarako irispidea berdintasunez izateko bideak jarriko ditu, eta bermatuko du pertsona guztiak baliatu ahal izatea Nafarroako bizitza kulturalean libreki parte hartzeko eskubideaz; aintzat hartuz, bereziki, Nafarroan gizarteratze-zailtasun gehienekin bizi diren taldeak.

3. Bereziki, eta foru lege honen xede eta helburuak betetzeko, kulturaren arloko eskumena duen departamentuak honakoak egingen ditu:

a) Koordinazio eta lankidetzaren harremanak ezarriko ditu Nafarroako Administrazio Publikoek atxikita edo menpean dituzten kulturaren arloko erakunde eta entitateekin.

b) Koordinazio eta lankidetzaren harremanak ezarriko ditu kulturaren sektoreekin lotura duten entitate, lanbide elkarte, fundazio eta gobernuz kanpoko erakundeekin.

c) Koordinazio eta lankidetzaren harremanak ezarriko ditu kulturaren arloan eskumena duten autonomia erkidegoetako, estatuko, Europako edo nazioarteko beste erakunde eta sare batzuekin, kanpoan Nafarroako kulturari tokia egin eta haren berri emateko.

d) Nafarroako kanpo ekintzaren eta Foru Komunitateko kultur politikaren esparru orokorren barruan, jarduketak sustatuko ditu eta bere jarduerak koordinatuko ditu Nafarroaren proiektuari laguntzen dioten erakundeekin.

e) Ikertzaile, sustatzaile, kudeatzaile, teknikari, sortzaile, interprete eta egileen prestakuntza, eguneratze eta profesionalizaziorako neurriak eta programak sustatuko ditu kultur eta arte adierazpideen eremu desberdinetan.

4. Horrez gain, kulturaren arloko eskumena duen departamentua:

a) Elkarlanean arituko da hezkuntzaren arloko eskumena duen departamentuarekin eginkizun hauetan:

i) Hezkuntza sisteman arte eta kultur irakaskuntzak sendotu eta handitzea.

ii) Kulturaren zeregina sendotzea hezkuntzaren arloan; horretarako, hartarako irispidea eta haren ezagutza haurtzarotik eta nerabezarotik izatea ahalbidetuko duten ekimenak bultzatuko ditu, haur eta nerabeen gaitasun kognitibo, artistiko eta sorkuntzakoak garatzen laguntzeko bitartekoa izan dadin.

b) Elkarlanean arituko da turismoaren arloko eskumena duen departamentuarekin, kultur turismo jasangarria eta orekatua bultzatzeko, erkidegoen garapen ekonomiko eta sozialerako lagungarria izan dadin, kultur ondasun eta baliabideen babes egokia arriskuan jarri gabe etorkizuneko belaunaldiei begira.

c) Elkarlanean arituko da Nafarroako kultur, zientzia eta hezkuntza erakundeekin, herritarrek haien kultur informazio eta dokumentaziorako irispidea izatea errazteko.

d) Sustatuko du sortzaile, sustatzaile, iker-tzaile, kultur kudeatzaile eta oro har herritarrek parte har dezaten kulturaren arloko politikak zehazten, garatzen, aplikatzen eta haien eragina aztertzen. Horretarako, kulturaren arloko eskumena duen departamentuak parte-hartzerako plan eta ekintzak bultzatuko ditu.

e) Sustatuko du kultur sektoreek eta eragileek parte har dezaten kultur ekintzailtzari eta kulturaren garapen ekonomikoari lagunduko dioten estrategiak, neurriak eta pizgarriak diseinatzeko.

f) Nafarroako udalerriekiko koordinazio eta ardurakidetzarako foro bat sortzea bultzatuko du, kulturaren arloko politiken artikulazioa bermatzeko.

g) Lan-mahaiak edo -foroak ezarriko ditu sustapen planak abian jartzeko kultur sektore ezberdinetan.

h) Aholkua eta laguntza emanen die Nafarroako toki entitateei kulturaren arloan.

i) Gizarteratzeko zailtasun gehien dituzten taldeek kulturarako irispide eraginkorra izatea eta

beren kultur adierazpenak egitea ahalbidetuko duten jarduketak eginen ditu.

j) Desgaitasunaren arloko erakunde eta entitate espezializatuekin elkarlanean arituko da, aholku eman diezaioten irisgarritasun unibertsalarekin lotutako gaietan, foru lege honen aplikazio esparruan.

k) Oro har, foru lege honetan jasotzen diren eskubideak eta oinarriko printzipioak eraginkortasunez aitortu eta baliatzeko bide emanen duten ekintza guztiak.

34. artikulua. Udalerriak.

1. Kultur sustapenaren arloan dituzten eskumenez baliatuz, udalerriek zeinek bere mugartean duen kultur ondarea ezagutarazi eta balioan jarriko dute, ezertan galarazi gabe arlo horretan eskumena duen departamentuarekin elkarlanean aritzea hura babestu, areagotu eta transmititzeko.

Bereziki arduratuko dira kultur ondare immateriala ezagutarazi eta balioan jartzeaz, Nafarroako herri kulturen eta kultur tradizionalen agerpen desberdinak beren testuinguruan kokatuz historiaren, kulturaren eta lurraldearen ikuspegietatik.

2. Kultura sustatzearen arloan dituzten eskumenez baliatuz, Nafarroako udalerriek, beren kabuz edo berek osatzen dituzten udalez gaindiko entitateen bitartez, honako kultur zerbitzu hauek sustatuko dituzte, besteak beste:

a) Arte eta kultur jardueren programazioa, kultur aniztasunari eta kultur adierazpen edo agerpenen aniztasunari erantzuten diona.

b) Tokian tokiko arte eta kultur elkarteak sustatu eta aldezte, eta herritarrek kulturaren arloan egindako proposamenak eta eskaerak jaso eta bideratzea.

3. Nafarroako udalerriek kultur ekintzako planak prestatzen ahalko dituzte, kultur ohiturak eta praktikak sustatzekoak.

4. Nafarroako Administrazio Publikoek sustatuko dute erabilerarik gabe dauden titulartasun publikoko guneak erabilgarri egotea bertan arte eta kultur sormena bultzatzen duten ekimenak garatzeko. Berrikuntza ere bultzatuko dute kudeaketa ereduetan, kogestioa eta autogestioa barne.

V. TITULUA

Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseilua

35. artikulua. Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseilua.

1. Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseilua Foru Komunitateko Administrazioak kulturaren

arloan duen kontsulta eta aholkularitzarako organoa da.

2. Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseilua kulturaren arloko eskumena duen departamentuari atxikitzen zaio; azken horrek funtzionamendu egokirako beharrezkoak diren laguntza eta bitartekoak emanen dizkio.

3. Hauek izanen dira Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseiluaren eginkizunak:

a) Nafarroako Foru Komunitateari aholku ematea kulturaren arloan.

b) Kulturaren arloko eskumena duen departamentuarekin elkarlanean aritzea haren kultur politikak zehazten, gauzatzen eta ebaluatzen arteen, ondarearen eta kulturaren esparruetan.

c) Arteei, ondareari, kulturari eta lurraldeari buruzko eztabaida eta ezagutza sortzea.

d) Kulturaren eta kultur politikaren arloan azterlanak eta txostenak egitea eta gomendioak helaraztea, bere ekimenez edo Foru Komunitateko Administrazioak eskatuta.

e) Jarraipena eta ebaluazioa egitea Nafarroako Kulturaren Plan Estrategikoari eta kulturaren arloko eskumena duen departamentuaren ekintza planei buruz.

f) Nafarroako Gobernuari proposatzea Vianako Printzea Kulturaren Saria nori eman.

g) Informazioa jasotzea kulturaren arloko eskumena duen departamentuaren aurrekontu proiektua egiteko prozesuari eta haren betearazpenari buruz.

h) Kultur ondarea babestu eta areagotzeko egoki iruditzen zaizkion ekimenak plazaratzea eta neurriak proposatzea.

i) Ordenamendu juridikoak ematen dizkion gainerako eginkizunak betetzea, bai eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak haren esku uzten dituenak ere.

4. Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseiluko kideak hauek izanen dira: Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren ordezkariak, Nafarroako toki entitateenak, kultur entitateenak, Nafarroako Gazteriaren Kontseiluarenak, eta Kontseiluaren eginkizunen esparruan prestigio handia, ezagutza espezializatua edo presentzia frogatua duten pertsonak. Kontseiluko lehendakaria kulturaren arloan eskumena duen departamentuaren titularra izanen da.

Kontseiluaren osaeran genero parekotasuna bermatuko da.

5. Beren eginkizunak betetzeagatik, kideek erregelamenduz ezartzen diren ordainsariak jasoko dituzte.

6. Erregelamenduz ezarriko dira Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseiluaren osaera, antolamendua eta funtzionamendua.

VI. TITULUA

Finantza eta tributu arloko xedapenak

I. KAPITULUA

Kultur politiken finantzaketa

36. artikulua. Finantzaketa publikoa.

Kulturaren finantzaketa publikoa bermatzeko, Nafarroako Gobernuak, aurrekontu orokorrak prestatzean, aurrekontu kreditu egokia ezarriko du kulturaren arloko eskumena duen departamentuarentzat, eta hurbildu egingen da Nafarroako Foru Komunitatearen antzekoak diren Europako erregioen batez bestekora.

37. artikulua. Diru-laguntzak eta bestelako laguntzak.

Urtero, kulturaren arloko eskumena duen departamentuak diru-laguntzak eta bestelako laguntzak ezarriko ditu erabakitzen diren kultur sektoreetarako, foru lege honen 2. artikuluan aipatzen diren printzipioekin bat.

38. artikulua. Mezenasgoa.

1. Kulturaren arloko eskumena duen departamentuak kultur mezenasgoa ezagutarazten eta hedatzen lagunduko du, indarreko araudiaren barruan; horretarako, ez-zuzeneko kultur politika bat egingen du, zeinak aldeztuko baititu finantzaketa, mezenasen eta kultur sorkuntzaren artean proiektu-ikuspegi konpartitua egotea, eta gizarte zibilak parte hartu eta ardurakidetzat izatea.

2. Nafarroako administrazio publikoek mikro-mezenasgoa bereziki sustatu eta harentzako pizgarriak emanen dituzte, horretara bideratutako berriazko ekintzen bitartez.

39. artikulua. Kultur ekintzailtzarako funtsak eta krediturako irispidea.

Kulturaren arloko eskumena duen departamentua, bere kabuz edo Foru Komunitateko Administrazioaren beste departamentu batzuekin edo beste entitate batzuekin elkarlanean, funtsak edo bestelako finantza tresnak sortzeaz arduratuko da, kultur sektoreetako mikroenpresei eta enpresa txikiei kreditua ematea errazteko. Halaber arduratuko da kultur ekintzailtza sortu, garatu eta hedatzeko eta kultur ondasun eta zerbitzuak ekoizteko

pizgarria izanen den beste edozein neurri hartzeaz.

II. KAPITULUA Onura fiskalak.

40. artikulua. Onura fiskalak eskubide kulturalen arloan.

Eskubide kulturalen arloan aplikatzekoak izanen dira zergei buruzko foru legediak ezartzen dituen onura fiskalak.

41. artikulua. Kultur mezenasgorako pizgarri fiskalak.

Kultur mezenasgoaren gaineko araudiaren araberako interes sozialaren deklarazioa edo izaera duten kultur proiektuetan edo jardueretan parte hartzeak zergei buruzko foru legeetan ezartzen diren onura fiskalak izanen ditu.

42. artikulua. Babesletza.

Interes sozialeko deklarazioa duten kultur jardueren babesletzarako kontratuak eragindako publikitate gastuek eskubidea emanen dute zergei buruzko foru legeetan aurreikusten diren kenkariak egiteko.

43. artikulua. Zinema-ekoizpenak eta ikus-entzunezko serieak.

Zinema-ekoizpenetan eta ikus-entzunezko serieetan egiten diren inbertsioek eskubidea emanen dute zergei buruzko foru legeetan aurreikusten diren kenkariak egiteko.

Xedapen gehigarri bakarra. Zerbitzu-gutunak.

Foru lege honek indarra hartu eta urtebeteko epean, kulturaren arloko eskumena duen departamentuak zerbitzu-gutunak onetsiko ditu, eta bertan zehaztuko da zein diren prestazioak bere eskumen esparruetan, haien kalitatea hobetzeko eta herritarren beharrei, gogoei eta eskaerei hobe ki erantzuteko, bai eta, azkenik, foru lege honetan aitortzen diren eskubide kulturalen erabilerarako irispidea bermatzeko ere.

Lehen xedapen iragankorra. Nafarroako Kultura Kontseilua.

1. Foru lege honek indarra hartzen duenetik aurrera, Nafarroako Kultura Kontseiluaren izena Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseilua izanen da.

2. Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseiluak foru lege honek esleitzen dizkion eginkizunak beteko ditu eta, halaber, ordenamendu juridikoaren gainerakoak Nafarroako Kultura Kontseiluari esleitutakoak.

3. Ordenamendu juridikoan Nafarroako Kultura Kontseiluaz egiten diren aipamenak aurrerantzean Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseiluaz eginak direla ulertuko da.

4. Foru lege honek indarra hartzen duenean, Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseilua gaur egun Nafarroako Kultura Kontseiluko kide direnek osatuko dute.

Gaur egungo kideen agintaldia amaitzen denean, Nafarroako Kultura Kontseiluaren osaketa, antolaketa eta jardunbidea ezartzen dituen indarreko araudiarekin bat, Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseiluko kideak izendatuko dira foru lege honetan xedatutakoari jarraikiz.

Bigarren xedapen iragankorra. Nafarroako Kulturaren Atari Digitala ezartzea.

Nafarroako Foru Administrazioak foru lege hau onesten denetik gehienez ere hiru urteko epean irekita eduki beharko du Nafarroako Kulturaren Atari Digitala. Horretarako, Gobernuak atari horren diseinu orokorrari buruzko proiektu bat aurkeztu beharko du gehienez ere 6 hilabeteko epean, Nafarroako Parlamentuak ezagutu eta hartan parte har dezan.

Atari digital horrek gutxienez ere jasoko du bere irekitze-unean Nafarroako Foru Administrazioarena den eta administrazio horretan dagoen informazioa, zeinari denboran zehar gehituko baitzaizkio foru lege honen 8. artikuluan zehazten diren edukiak, baldin eta une horretan ez badago haiei buruz modu birtualean erakusteko moduko informaziorik.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arau-indargabetzea.

Indarrak gabe uzten dira foru lege honetan ezarritakoaren kontrako maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak; eta, bereziki:

– Nafarroako Kultur Ondareari buruzko azaroaren 22ko 14/2005 Foru Legearen 10. artikulua.

– Nafarroako Kultur Ondareari buruzko azaroaren 22ko 14/2005 Foru Legearen 28. artikuluko b) eta c) letrak, 10. artikuluko 2., 3., 4., 5. eta 6. apartatuek indarra hartzen dutenetik aurrera, foru lege honen azken xedapenetako bosgarrenaren bigarren paragrafoarekin bat.

Azken xedapenetan lehenbizikoa. Nafarroako Liburutegien Sistema arautzen duen azaroaren 19ko 32/2002 Foru Legea aldatzea.

Nafarroako Liburutegien Sistema arautzen duen azaroaren 19ko 32/2002 Foru Legearen 12. artikuluko 1. apartatuak testu hau izanen du aurrerantzean:

“1. Hauek dira Nafarroako liburutegi publikoen oinarrizko zerbitzuak: informaziorako irispidea izatea; aretoetan mota guztietako dokumentuak irakurri eta kontsultatzea, edozein euskarri eta formatutan, babes, zainketa eta osotasun berme egokiekin; dokumentuen mailegua, banakakoa, kolektiboa eta liburutegien artekoa; Interneterako eta lineako informazio zerbitzuetarako sarbidea”.

Azken xedapenetan bigarrena. Ikuskizun Publikoak eta Josteta Jarduerak arautzen dituen martxoaren 13ko 2/1989 Foru Legearen aldaketa.

Martxoaren 13ko 2/1989 Foru Legearen 10. artikulua 5. apartatuko a) letra aldatzen da. Honela geldituko da:

“a) Dantzaleku, diskoteka eta antzekoak, salbu eta zuzeneko emanaldiak daudenean; halakoetan, izan ere, hamasei urte baino gutxiagokoak beren guraso edo tutoreekin sartu ahalko dira. Emanaldiak irautean duen bitartean zuzen identifikaturik egonen dira, eta emanaldia amaitzen denean adingabeak ezin izanen dira establezimenduan geratu”.

Azken xedapenetan hirugarrena. Araudi fiskala egokitzea.

Foru lege honen 24. artikulua 2. apartatua xedatutakoarekin bat, Foru Komunitateko araudi

fiskala egokituko da Artistaren Estatutua prestatzeko Azpibatzailearen txostenean egiten diren proposamen eta gomendioetara, honako gaietan: fiskalitatea, batetik, eta prestazio publikoen jasotzea jabetza intelektualaren eta sormen jarduerengatiko eskubideen ondoriozko diru-sarrerak ere jasotzearekin bateragarria izatea. Aipatu txostena 2018ko ekainean onetsi zen Diputatuen Kongresuan.

Azken xedapenetan laugarrena. Arauak emateko ahalmena.

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio foru lege hau garatzeko arauak emateko eta foru lege hau betetzeko behar diren neurriak hartzeko.

Azken xedapenetan bosgarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Aurrekoa gorabehera, 10. artikuluko 2., 3., 4., 5. eta 6. apartatuek legea Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta urtebetera hartuko dute indarra.

Foru Lege proiektua, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legea aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urtarrilaren 8an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2018ko abenduaren 26an hartutako Erabakiaren bidez, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektua igorri dio Nafarroako Parlamentuari.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 127., 152.1 eta 153 artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Xedatzea Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektua prozedura arruntari jarraituz izapidetu dadila, Erregelamenduko 152 eta 153. artikuluetan ezarritako berezitasunekin.

2. Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Batzordeari ematea proiektu horretaz irizpena emateko ahalmena.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik hilabete bateko epea irekiko da, **2019ko otsailaren 11ko eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoarekin bat, talde parlamentarioek, foru parlamentarien elkarteek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dizkiote proiektuari.

Iruñean, 2019ko urtarrilaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru Lege proiektua, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legea aldatzen duena

ZIOEN AZALPENA

Abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen xedea Nafarroako Gobernua eta lehendakaria, Nafarroako foru erakundeak eta haien legegintza ekimena eta araugintzarako ahalmena erregula-

tzea da, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoan ezarritakoarekin bat.

Foru lege honen azken tituluak –laugarrenak– Nafarroako Gobernuaren legegintzarako ekimena eta arauak emateko ahalmena erregulatzen ditu, eta xedapen orokorrak egiteko prozedurak arautzen ditu, lege mailakoak izan edo erregelamendu mailakoak izan.

Horrez gain, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak, VI. tituluan, legegintzarako ekimena eta arauak emateko ahalmena erregulatzen ditu; erregulazio hori ez da oinarrizkoa autonomia erkidegoetako legegintza ekimenetarako, Konstituzio Auzitegiaren 2018ko maiatzaren 24ko epaiarekin bat.

Estatuko legegileak uste du bere eremuan arau xedapenak prestatzeko lana administrazio prozedura arautzen duen arauan erregulatu eta jaso behar dela, eta horixe bera adierazi du urriaren 1eko 39/2015 Legean. Ikuskera horrekin bat etorrira, komenigarritzat jo da Nafarroako Gobernuaren legegintza ekimenaren eta araugintzarako ahalmenaren izapideak ezartzen zituzten xedapenak berrantolatzea, eta Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan administrazio prozeduraren berezitasunak ezartzen dituen foru arauaren barnean kokatu.

Gainera, gogorarazi behar da, urriaren 27ko 7/2010 Lege Organikoaren bidez, 21.bis artikulua gehitu zitzaiola Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoari; artikulua berri horrek honako hau ezartzen du: “kasu berezi eta oso presakoetan, Nafarroako Gobernuak behin-behineko legezko xedapenak eman ahal izanen ditu, foru lege-dekretu forma hartuko dutenak”. Hala ere, nahiz eta aukera hori gure ordenamenduan sartu abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legea onetsi ondoren, oraindik garatu gabe zegoen legegintzaren aldetik.

Horregatik guztiagatik, gomendatzen da abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legea aldatzea, honako helburu hauei begira: lehenik eta behin, foru lege-dekretuen onespina eta Gobernuari eta kontseilariari erregelamendu eskumenak esleitzea arautzen dituen esparru juridikoa garatzea; bigarrenez, eta Nafarroako Gobernuaren araugintzarako ahalmena gauzatzeari dagokionez, aldaketa beharrezkoa da, gobernu hori arautzen duen

arauen bakarrik ager daitezten arau eskumenen esleipena eta xedapen bakoitzaren eta haien benetako esparruaren definizioa.

Azkenik, bigarren artikulua bidez, hizkera ez-inklusiboa zuzenduko da Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen testuan.

Lehenengo artikulua.

Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen agindu hauek, IV. tituluan aipatzen direnak, aldatu, eta honela idatzita geldituko dira:

“IV. TITULUA. Nafarroako Gobernuren legegintzarako ekimena eta arauak emateko ahalmena

51. artikulua. Legegintzarako ekimena.

1. Nafarroako Gobernuak legegintzarako ekimena, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 19. artikuluan aurreikusia, honela garatzen du: foru lege proiektuak eginez, onetsiz eta, gero, Nafarroako Parlamentura igorri.

2. Nafarroako Gobernuari dagokio foru lege proiektuak onestea, kontseilari eskudunak edo eskudunek proposaturik.

3. Foru lege proiektua behin onetsita, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentura bidaliko du erantsitako dokumentazioarekin eta hari buruzko erabakia hartzeko beharrezkoak diren aurrekariekin batera.

52. artikulua. Legegintzako foru dekretuak.

1. Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 21. artikuluan aurreikusitako kasuan, Nafarroako Gobernuak foru lege mailako arauak eman ditzake, “legegintzako foru dekretu” izena hartuko dutenak.

2. Nafarroako Gobernuari dagokio legegintzako foru dekretuak onestea, kontseilari eskudunak edo eskudunek proposaturik.

3. Legegintzarako eskuordetzaz baliatu orduko, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentuari behar den jakinarazpena bidaliko dio, zein horretarako testu artikuluduna edo bategina egonen baita.

53. artikulua. Tributu-harmonizaziorako legegintzako foru dekretuak.

1. Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Parlamentuak eskuordeturik, foru lege mailako arauak eman ditzake tributuei buruzko foru legeak aldatzeko, baldin eta tributu-araubide erkidearen aldatzea batek behartzen badu, Hitzarmen Ekonomikoan ezarritakoarekin bat, Estatuan indarra duten arau funtsezko eta formazko berberak aplikatu daitezten Foru Komunitatean.

2. Nafarroako Gobernuaren xedapenei, aipatu legegintzarako eskuordetzaren ondorio direnean, “tributu-harmonizaziorako legegintzako foru dekretu” izena emanen zaie.

3. Xedapen horiek Estatuko tributu-aldaketa argitaratu eta bi hilabeteko epean eman eta argitaratu beharko dira.

4. Tributu-harmonizaziorako legegintzako foru dekretuek atzerako eragina izan dezakete, haien indarraldia eta harmonizatu beharreko araubide erkideko arauen indarraldia, horrela, bat etor daitezten.

5. Tributu-harmonizaziorako legegintzako foru dekretuak Nafarroako Parlamentura igorriko dira onetsi eta hamar eguneko epean, behar den parlamentu-kontrola izan dezaten. Hori ez da eragozpen izanen, hala ere, foru dekretu horiek ofizialki argitaratu eta indarra hartzeko.

54. artikulua. Foru lege-dekretuak.

1. Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 21.bis artikuluan aurreikusitako kasuan, Nafarroako Gobernuak foru lege mailako arauak eman ditzake, “foru lege-dekretu” izena hartuko dutenak.

2. Nafarroako Gobernuari dagokio foru lege-dekretuak onestea, kontseilari eskudunak edo eskudunek proposaturik, eta horiek onetsi ondoren Nafarroako Parlamentuari igorriko zaizkio baliozkotze aldera.

3. Foru lege-dekretuak indarrrik gabe utziko dira baldin eta horiek aldarrikatu eta biharamunetik hasita 30 eguneko epe luzaezinean Nafarroako Parlamentuak ez baditu espresuki baliozkotu. Horretarako, aurretik foru lege-dekretuak eztabaibatu eta osorik bozkatuko dira. Idatz-zati honetan ezarritako epean, Parlamentuak foru lege-dekretuak foru lege proiektu gisa tramitatu ahal izanen ditu, presako prozeduraren bidez.

55. artikulua. Erregelamendu-ahalmena.

1. Gobernua, eta Nafarroako Gobernuko lehendakaria eta kontseilariak dira erregelamendu-ahalmenaren titularrak.

2. Nafarroako Gobernuaren izaera orokorreko xedapenek edo erregelamenduek foru dekretuaren forma hartuko dute; lehendakariaren lehendakariaren foru dekretuarena, eta kontseilariaren foru aginduarena.

3. Nafarroako Gobernuari edo departamentu bakoitzeko titularrari erregelamenduzko garapenerako gaikuntzak ematen ahalko zaizkio foru lege bidez.

56. artikulua. Araugintzaren hierarkia eta legereserba.

1. Arauzko xedapenak hierarkia honi lotuta daude:

a) Nafarroako Gobernuak edo lehendakariak onetsitako foru dekretuak.

b) Kontseilariaren foru aginduak.

2. Erregelamenduek ezin diete kontra egin Espainiako Konstituzioari, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoari, gainerako legeei edo goragoko mailako xedapen orokorrei.

3. Erregelamenduek ezin dute erregulatu hierarkian goragoko arauak bere dituzten gaiak.

4. Ez dute indarririk izanen artikulua honetako aurreko idatz-zatietan ezarritakoa betetzen ez duten erregelamenduek.

57. artikulua. Arauen publizitatea.

Foru lege mailako arauak eta erregelamenduek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko dira indarra har dezaten eta ondorio juridikoak izan ditzaten.

58. artikulutik 63. artikulura artekoak edukirik gabe geldituko dira”.

Bigarren artikulua.

Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legean aipatutako karguei buruzko hitzak eta adierazpenak, bai tituluari bai hitzaurrean, artikuluen testuan eta amaierako xedapenetan aldatu, eta honela idatzita geldituko dira (Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 30. artikuluko 1. eta 2. idatz-zatietan ezarritakoari dagokionez hitzaurre horretan aipatzen dena izan ezik):

Gaztelaniaz honako hauek aipatzen diren tokian, ondoan adierazitakoak esan beharko dira: “la denominación de “Decretos Forales del Presidente” esamoldearen ordez, “la denominación de “Decretos Forales de la Presidenta” o “Decretos Forales del Presidente”; “su Presidente” esamol-

dearen ordez, “su Presidenta o Presidente”; “El Presidente” esamoldearen ordez, “La Presidenta o Presidente”; “el Presidente” esamoldearen ordez, “la Presidenta o Presidente”; “del Presidente” esamoldearen ordez, “de la Presidenta o Presidente”; “al Presidente” esamoldearen ordez, “a la Presidenta o Presidente”; “del nuevo Presidente” esamoldearen ordez, “de la nueva Presidenta o Presidente”; “los Presidentes” esamoldearen ordez, “las Presidentas o Presidentes”; eta “el Presidente electo” esamoldearen ordez, “la Presidenta electa o el Presidente electo”.

Eta berdin jokatu da honako hauekin: “uno o varios Vicepresidentes” esamoldearen ordez, “una o uno, o varias Vicepresidentas o Vicepresidentes”; “uno o varios vicepresidentes” esamoldearen ordez, “una o uno, o varias vicepresidentas o vicepresidentes”; “de entre ellos al Vicepresidente o Vicepresidentes” esamoldearen ordez, “de entre ellas o ellos a la Vicepresidenta o Vicepresidente, o Vicepresidentas o Vicepresidentes”; “al Vicepresidente o Vicepresidentes” esamoldearen ordez, “a la Vicepresidenta o Vicepresidente, o Vicepresidentas o Vicepresidentes”; “los Vicepresidentes” esamoldearen ordez, “las Vicepresidentas o Vicepresidentes”; “el Vicepresidente o los Vicepresidentes” esamoldearen ordez, “la Vicepresidenta o Vicepresidente, o las Vicepresidentas o Vicepresidentes”; “el Vicepresidente o Vicepresidentes” esamoldearen ordez, “la Vicepresidenta o el Vicepresidente, o Vicepresidentas o Vicepresidentes”; “como Vicepresidente o Vicepresidentes” esamoldearen ordez, “como Vicepresidenta o Vicepresidente, o Vicepresidentas o Vicepresidentes”; eta “del Vicepresidente o Vicepresidentes” esamoldearen ordez, “de la Vicepresidenta o Vicepresidente, o Vicepresidentas o Vicepresidentes”.

Ildo berari jarraikiz, “denominada Oficina del Portavoz del Gobierno de Navarra” esamoldearen ordez, “denominada Oficina de la Portavoz del Gobierno de Navarra u Oficina del Portavoz del Gobierno de Navarra” esanen da; “del Portavoz” esamoldearen ordez, “de la Portavoz o el Portavoz”; “el Portavoz” esamoldearen ordez, “la Portavoz o el Portavoz”; “al Portavoz” esamoldearen ordez, “a la Portavoz o al Portavoz”; eta “un Portavoz” esamoldearen ordez, “una o un Portavoz”.

Eta honako hauekin berdin: “el Consejero Secretario” esamoldearen ordez, “la Consejera Secretaria o el Consejero Secretario”; “del Consejero Secretario” esamoldearen ordez, “de la Consejera Secretaria o Consejero Secretario”; eta “será Consejero Secretario” esamoldearen ordez, “será Consejera Secretaria o Consejero Secretario”.

Halaber, “a uno o varios de los Consejeros” esamoldearen orde, “a una o a uno, o a varias o varios de las Consejeras o Consejeros”; “todos los Consejeros interesados” esamoldearen orde, “todas las Consejeras y Consejeros interesadas o interesados”; “un Consejero” esamoldearen orde, “una Consejera o Consejero”; “Los Consejeros” esamoldearen orde, “Las Consejeras o Consejeros”; “los Consejeros” esamoldearen orde, “las Consejeras o Consejeros”; “sobre Consejeros” esamoldearen orde, “sobre Consejeras o Consejeros”; “como Consejeros” esamoldearen orde, “como Consejeras o Consejeros”; “el Consejero” esamoldearen orde, “la Consejera o Consejero”; “al Consejero” esamoldearen orde, “a la Consejera o Consejero”; “de Consejeros” esamoldearen orde, “de Consejeras y Consejeros”; “ser Consejero” esamoldearen orde, “ser Consejera o Consejero”; “de Consejero” esamoldearen orde, “de Consejera o Consejero”; “del Consejero” esamoldearen orde, “de la Consejera o Consejero”; “otros Consejeros” esamoldearen orde, “otras Consejeras o Consejeros”; “otro Consejero” esamoldearen orde, “otra Consejera o Consejero”; “un nuevo Consejero” esamoldearen orde, “una nueva Consejera o Consejero”; eta “y Consejeros” esamoldearen orde, “y Consejeras o Consejeros”.

Honako esamolde hauekin berdín jokatuko da: “de Director General” esamoldearen orde, “de Directora General o Director General”; “Directores Generales” esamoldearen orde, “Directoras Generales o Directores Generales”; “los Secretarios Generales o Secretarios Generales” esamoldearen orde, “las personas titulares de las Secretarías Generales Técnicas”; eta “que sea Secretario” esamoldearen orde, “que sea Secretaria o Secretaria”.

Azkenik, honako hauek ere erabiliko dira: “los miembros” esamoldearen orde, “las y los miembros”; “le sustituya” esamoldearen orde, “la o le sustituya”; “todos sus miembros” esamoldearen

orde, “todas y todos sus miembros”; “tanto ellos” esamoldearen orde, “tanto ellas y ellos”; “del titular” esamoldearen orde, “de la o del titular”; “aquél será sustituido” esamoldearen orde, “dicha persona será sustituida”; “de este último” esamoldearen orde, “de esta o este último”; “el de más edad” esamoldearen orde, “la o el de más edad”; “el de menor edad” esamoldearen orde, “la o el de menor edad”; “estará sujeto” esamoldearen orde, “estará sujeta o sujeta”; “serán nombrados y cesados” esamoldearen orde, “se nombrarán y cesarán”; “éste será suplido por uno” esamoldearen orde, “se suplirá por una o uno”; “por el más antiguo” esamoldearen orde, “por la o el más antiguo”; “lo imposibilite” esamoldearen orde, “la o lo imposibilite”; “firmados por el mismo” esamoldearen orde, “firmados por la misma o el mismo”; “suplirán a aquel” esamoldearen orde, “suplirán a aquella o a aquél”; “los Titulares” esamoldearen orde, “las y los Titulares”; “por él propuestos” esamoldearen orde, “por ella o por él propuestos”; “ser suplidos” esamoldearen orde, “ser suplidas o suplidos”; “alto” esamoldearen orde, “alta o alto”; “la designación de los mismos” esamoldearen orde, “su designación”; “será nombrado” esamoldearen orde, “será nombrada o nombrado”; “el cual podrá autorizar” esamoldearen orde, “quien podrá autorizar”; “serán nombrados y cesados” esamoldearen orde, “se nombrarán y cesarán”; “más antiguo” esamoldearen orde, “de mayor antigüedad”; eta, amaitzeko, “Parlamentario” esamoldearen orde, “Parlamentaria o Parlamentario”.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Lege proiektua, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta Foru-sektore Publiko Institutuzionalari buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urtarrilaren 8an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2018ko abenduaren 26an hartutako Erabakiaren bidez, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta Foru-sektore Publiko Institutuzionalari buruzko Foru Lege proiektua igorri dio Nafarroako Parlamentuari.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 127. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Xedatzea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta Foru-sektore Publiko Institutuzionalari buruzko Foru Lege proiektua prozedura arruntari jarraituz izapidetu dadila.

2. Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Batzordeari ematea proiektu horretaz irizpena emateko ahalmena.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik hilabete bateko epea irekiko da, **2019ko otsailaren 11ko eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoarekin bat, talde parlamentarioek, foru parlamentarien elkarteek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dizkiote proiektuari.

Iruñean, 2019ko urtarrilaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru Lege proiektua, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta Foru-sektore Publiko Institutuzionalari buruzkoa

ZIOEN AZALPENA

1.

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoak 49.1 artikuluko c) eta e) letretan eskumen osoa esleitzen dio Foru Komunitateari, bere foru araubidea dela eta, Nafarroako berezko zuzenbidearen espezialitateetatik edo berezko

antolaketatik datozen prozedura administratiboko edo, kasua bada, ekonomiko-administratiboko arauak emateko eta, orobat, Foru Diputazioaren, haren administrazioaren eta haren menpe dauden entitate publikoen araubide juridikoa finkatzeko. Betiere, administrazio publikoetan herritar guztiak berdin tratatzeko eskubidea bermatu behar du.

Eskumen hori erabiliz, Foru Komunitateko Gobernuari eta Administrazioari buruzko apirilaren 11ko 23/1983 Foru Legea eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legea onetsi ziren.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legea onetsi zenetik, Administrazio Publikoa aldatu, eta bere funtzionamendua errealitate sozial berriari egokitu behar izan dio herritarrei zerbitzu egokiagoak eman ahal izateko; izan ere, gaur egun Administrazioaren eta herritarren arteko harremanak bilakaera teknologikoari lotuta ulertu eta garatzen dira nahitaez. Zerbitzuak ematen dituzten erakundeen testuinguruaren eraldaketa eta aldaketa sozialak ikusirik, behar-beharrezkoa da administrazioa berritzea. Aldaketa hori azaleratzen hasi zen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan administrazio elektronikoa ezartzeko apirilaren 4ko 11/2007 Foru Legea onestearrekin batera.

Bestalde, antolamendu juridikoa ere nabarmen aldatu da Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legea eta Sektorre Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legea onestearrekin batera. Oinarrizkoak direnez, lege horiek gure Administrazioaren antolamenduari eta funtzionamenduari eta herritarrekiko harremanei eragiten diete.

Beraz, bidezkoa da lehenengo pausoa ematea gure araudia oinarrizko legediari egokitzeko eta gure garairako egokiagoa den administrazio berria ezartzeko. Horretarako, ezinbestekoa da foru lege hau prestatu eta onestea, honako hauek arautze aldera:

a) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta Foru-sektore Publiko Institutuzionalaren antolaketa, funtzionamendua eta araubide juridikoa.

b) Foru Administrazio Publikoaren eta herritarren arteko harremanak, indarreko araudiaren esparruaren barnekoak.

c) Herritarren laguntzarekin, kalitateko arau esparrua prestatu eta horri eustea.

Alde batetik, foru lege honek honako hauek arautzen ditu: Foru Administrazio Publikoaren barne funtzionamenduaren ad intra harremanen eta Foru Komunitatean aritzen diren administrazio guztien arteko harremanen antolamendua, eta gure Administrazioaren (instituzionala barne) berariazko araubide juridikoa.

Alde horretatik, araudi berriak gure antolaketa administratiboaren berezko berezitasunei eusten die, eta antolaketa hori egokitzen die administrazio elektronikoak eta urriaren 1eko 40/2015 Lege berriak ezarritako eskakizun berriei (urriaren 1eko 40/2015 Lege horrek administrazio egitura berri bat jasotzen du, sektore publikoaren eremuan entitate berriak sartzea ahalbidetzen duena).

Hori helburu, eta herritarrentzako arreta eta zerbitzuak hobetzeko eta administrazioaren jardura eraginkorragoa izateko asmoz, foru lege hau onetsi da. Legearen helburua, beraz, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta sektore publiko instituzionala osatzen duten erakundeentzako antolaketa eta funtzionamendua arautzea da.

Beste aldetik, foru legeak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta Foru-sektore Publiko Instituzionalak herritarrekin eta enpresekin dituzten ad extra harremanak arautzen ditu.

Harreman horien esparruan, foru lege honen helburu nagusietako bat da administrazio elektronikoko orokortua ezartzea eta teknologia berriak administrazio prozedurari aplikatzea, oinarrizko legediak eskatzen duenari jarraikiz.

Zehatz-mehatz, urriaren 1eko 39/2015 Legearen zioen azalpenean honako hau xedatzen da: “Azaroaren 26ko 30/1992 Legea jada ohartu zen teknologia berriak administrazio-harremanetan duten garrantziaz, baina legezko aitortza ekainaren 22ko 11/2007 Legeak eman zien, Herritarrek Zerbitzu Publikoetan Sarbide Elektronikoa izateari buruzkoak, herritarrek administrazio publikoekin elektronikoki harremanetan jartzeko duten eskubidea ezarri baitzuen, eta orobat administrazioen betebeharra zela eskubide hori baliatzeko behar diren bitarteko eta sistemez hornitzea. Hala ere, gaur egungo ingurumarian, izapidetze elektronikoa ezin da izan oraindik prozedurak kudeatzeko modu berezi bat; administrazioen ohiko jarduketamodua izan behar du. Izan ere, paperik gabeko administrazio batek, funtzionamendu erabat elektronikoa oinarriturik, efikazia-eta efizientzia-printzipioak egokiago zerbitzatzearaz gain, kostuak aurrezten dizkie herritar eta enpresei, eta interes-

dunen bermeak indartu ere egiten ditu. Hain zuzen ere, dokumentazioa eta jarduketak artxibo elektronikoa batean izateak erraztu egiten du gardentasunerako betebeharra konpliztea, aukera ematen baitu interesdunei unean uneko informazio bizkorra eta eguneratua eskaintzeko”.

Testuinguru horretan, ezin da ahaztu herritarrei zerbitzua ematea dela Administrazioaren beraren existentzia justifikatzen duen oinarrizko printzipioa, haren jardueraren abiapuntu nagusia. Hor-taz, araudi berri honek administrazio elektronikoa benetakoa izatea nahi du Administrazioaren funtzionamendu eraginkorragoa eta arinagoa lortzeko eta herritarrentzako zerbitzuak hobetzeko asmoz.

Horrela, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta Foru-sektore Publiko Instituzionalaren ad intra eta ad extra harremanen antolamendua arau multzo bakar batean sistematizatzen da.

Amaitzeko, foru lege berriak herritarren laguntzarekin kalitateko arau esparrua prestatu eta horri eusteko araudiari ekin dio. Horrela, arauak egiteko prozedura oinarritu behar duten printzipio berriak ezartzen ditu, eta batez ere araudi horren erdierdian kokatzen ditu antolamendu juridiko horren hartzaileak.

Foru legeak 133 artikulua ditu, zazpi titulutan biltuak, bederatzi xedapen gehigarri, xedapen indargabetzaile bat, hiru azken xedapen eta bi eranskin.

2.

I. tituluak xedapen orokorrak biltzen ditu, foru legearen aplikazio-eremua mugatzen du, eta Administrazioaren ahalak eta eskubideak jasotzen ditu.

Aplikazio-eremu subjektiboari dagokionez, foru lege honek Administrazio Erroa arautzen du, baita Foru-sektore Publiko Instituzionala izenekoa osatzen duen antolaketa egitura ere. Oinarrizko legediarekin bat, araudi integrala proposatzen da, baina zehatzago azpimarratzen da administrazio publikotzat jotzen diren entitateei (“Foru Administrazio Publiko” deitutakoak) aplikatu beharreko araubide publikoa garatzeko lana, entitate horiek baitituzte herritarren mailari nagusiki eragiten dioten administrazio eskumenak.

Xedapen orokorreari dagokionez, honako printzipio honen gainean eratzten dira: administrazio elektronikoa administrazioaren ohiko jarduketamodua izan behar du. Horrela argi geratzen da teknologia berrietan oinarritzen den sistema bat

ezarri nahi duela beste administrazio batzuekin eta herritarrekin harremanak izateko.

3.

II. tituluak Foru Administrazio Publikoaren araubide orokorra arautzen du, eta honako hauek jasotzen ditu: antolaketa- eta funtzionamendua- ren printzipio orokorrak, organoak, eskumenen erabilera, eta kide anitzeko organoen arau zehatzak.

Printzipioen eremuan, foru legea saiatzen da, behar eta eskakizun sozial berrietatik datozen printzipioak ez ezik, ezarri nahi den Administrazio berriaren ondorioz eskatzen direnak ere gehitzen. Berria izateagatik, nabarmendu behar da oso garrantzitsua dela tresna informatikoak erabiltzea, eraginkorrak baitira pertsona guztiek irisgarritasuna dutela eta herritar guztiek administrazioarekiko harremanetan tratu-berdintasuna jasotzen dutela bermatzeko.

Eskumenen erabileraren araubide juridikoari dagokionez, foru lege berriak araudi berri bat jasotzen du, oinarrizko legediak ezarritako betebeharrak berrien ondorioz.

Kide anitzeko organoen araudiak berritasun garrantzitsuak ditu, funtsean lotuta daudenak izapide elektronikoen ezarpenarekin eta oinarrizko araudiak ezartzen dituen eskakizun berrieekin.

4.

III. tituluak Foru Komunitateko Administrazioaren eta Foru-sektore Publiko Instituzionalaren antolaketa arautzen du. Eremu horretan ez dago berritasun handirik, oinarrizko legedia bete beharretik ondorioztatutakoak izan ezik. Hona hemen arrazoa: Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legean ezarritako egiturak erakutsi du egokia dela kudeaketa eta zerbitzu eraginkor eta efizienteak gauzatzen jarraitu ahal izateko. Baina, oinarrizko araudiak eskatzen duen bezala, Foru-sektore Publiko Instituzionalean sortzen diren entitateak edo horien aldaketa, bat-egitea edo desagertzea Estatuko Sektorre Publikoko Entitateen Inbentarioan inskribatu behar direla jasotzen da. Halaber, sektore publiko hori osatzen duten entitate guztien gaineko eraginkortasunaren kontrola eta etengabeko ikuskapena indartzen dira, legedi hori oinarri hartuta.

Berritasun hau nabarmendu behar da: oinarrizko legediak jasotzen duen bezala, aukera dago gure eremuan administrazio agintaritzaren independenteak eta partzuergoak sortzeko; lehenengoak

kanpoko ikuskapen edo erregulazio eginkizunak gauzatuko dituzte sektore ekonomiko eta jarduera zehatz batzuen gainean, eta bigarrenak, berriz, jarduera batzuk garatuko dituzte, administrazioen edo sektore publiko instituzionala osatzen duten entitateen eskumenekoak eta interes komunekoak direnak. Orain arte figura hori Toki Administrazioaren gure legedian baino ez zen jasotzen.

5.

IV. tituluak Administrazioaren funtzionamendu elektronikoa buruzko aurreikuspenak biltzen ditu. Zehatz-mehatz, bai barne eremuan bai herritarrekiko harremanetan administrazio elektronikoa benetakoa izatea ahalbidetuko duten edo horretan lagunduko duten tresna edo aplikazio guztiak jasotzen dira; horietako batzuk berriak dira, eta beste batzuk, aldiz, dagoeneko neurri handian garatu dira gure eremuan. Izan ere, herritarrekiko harremanak dira administrazioa bera izateko arrazoiak.

Foru legean Nafarroako Gobernuaren web atariari eta egoitza elektronikoa buruz dagoen araudia eguneratzen da. Egoitza elektronikorekin estu lotuta, oinarrizko legediak "sarbide-puntu nagusi elektronikoa" deitu duenaren araudia jasotzen du, pertsonen eskubidea baita. Puntu horren bidez, herritarrek Foru Administrazio Publikoaren eta gainerako administrazio publikoen zerbitzu eta prozedura guztiak atzitzen ahalko dituzte, baita beraiei egindako prozedura, komunikazio eta jakinarazpenen izapidetze egoera zein den jakin ere.

Izapidetzeko modu berriari egokitzeko asmoz eta oinarrizko legediarekin bat, foru legeak Foru Administrazio Publikoaren identifikazio-sistemaren araudia jasotzen du, eta horren administrazio jarduketara automatizatua ere bai. Halaber, normala denez, Administrazioaren zerbitzuko langileen identifikazio- eta sinadura- sistema orokortua ezartzen du.

Era berean, eta legedi berriari egokitu beharra dela eta, Erregistro Orokor Elektronikoaren araudi berri bat jasotzen da, erregistro hori beste administrazio publiko batzuen erregistroekin guztiz elkarreragingarri eta interkonektatuta egon dadin, baldintza horiek funtsezko ardatzak baitira administrazio elektronikoa lortzeko.

Artxibo elektronikoa bakarraren araudiak tresna horren definizio argia eta zehatza du. Ez da ahaztu behar, paperik gabeko Administrazioa ezartzean, erregistro hori beharrezkoa dela administrazio agiriak lege ezartzen den aldi gorde eta zaintzen direla bermatzeko.

Amaitzeko, berritasun hau nabarmendu behar da: erregistro kontuetan laguntza emateko bulegoak egotea aurreikusten da, non Gaitutako Funtzionarioen Erregistroan inskribatutako langileak arituko diren. Bulego horien sorrera titulu honetan jasotzen da. Gainera, Ahalordetzeen Erregistro bat izan beharra ezartzen da.

Erregistro kontuetan laguntza emateko bulegoek eginkizun berri bat dute, izapide elektronikoa egitera behartuta ez daudenei laguntzekoa, hain zuzen. Horrez gain, erregistroaren berezko funtzioez eta dokumentazioaren digitalizazioaz arduratuko dira, besteak beste, eta informazioa, laguntza eta jarraibideak emanen dizkiete herritarrei Foru Administrazio Publikoaren berezko prozedurak izapidetu ahal izateko behar diren betekizunen gainean.

Gaitutako Funtzionarioen Erregistroan langileak inskribatuko dira, funtzionarioak edo administrazio araubideko kontratadunak izan, baldin eta esleituta badituzte harreman elektronikoa egitera behartuta ez dauden pertsonen izenean egin beharreko identifikazio eta sinadura elektronikoko eginkizunak eta dokumentuen jatorrizko kopia luzatzekoa, kopia horiek administrazio jarduketa automatizatuaren bidez egin ezin direnean edo horrelakorik eskatzen ez denean.

Azkenik, Ahalordetzeen Erregistroa sortzea aurreikusten da. Bertan, Foru Administrazio Publikoaren aurrean jarduteko asmoz pertsona fisikoek edo juridikoek hirugarrenen alde egiten dituzten ordezkartzak inskribatuko dira. Erregistro horrek beste administrazio publiko batzuen erregistroekin guztiz elkarreragingarri eta interkonektatuta egon behar du.

6.

V. tituluak administrazio arteko harremanak arautzen ditu, eta administrazioen koordinazioa, elkarlana eta lankidetzaren gidatu behar dituzten premisa berriak gehitzen ditu; horiek guztiak gehienbat hitzarmenen eta baterako jarduketa planen bidez gauzatzen dira. Bestalde, beste administrazio publiko batzuekiko harreman gatazkatsuei dagokienez orain indargabetzen den araudian jasotako araudiari eusten dio, eta lehen aldiz administrazio publikoen arteko harreman elektronikoei buruzko araudia sartzen da.

Administrazioen koordinazioari, elkarlanari, lankidetzari, hitzarmenei eta planei dagokienez, foru legeak arlo horren araudi askoz xeheagoa eta zehatzagoa eratzten du, kontuan hartuta eskumenak erabiltzeari begira administrazioen artean

ezartzen diren harremanak gero eta garrantzitsuagoak direla.

Administrazio publikoen arteko harreman elektronikoei dagokienez, foru legeak informazioaren eta jakintzen trukea, datuen kontsulta eta igorpena, eta sinadura elektronikoko sistemen elkarreragingarritasuna sustatzearen alde egiten du. Gainera, herritarrentzako arreta hobetze aldera, administrazioek sistema eta aplikazio informatikoa berreraikitzea eta transferitzea lehenetsiko dute, oinarrizko legediak ezarri bezala.

7.

Aurreko araudiaren ildotik, baina ezartzen den Administrazio berriari egokitu, herritarrekiko harremanetan Administrazioak izan behar dituen jarduketa arau orokorrei buruzko VI. tituluak pertsonen eskubideak eta administrazio prozedurari buruzko antolaketa berezitasunak jasotzen ditu. Halaber, izapidetze elektronikoa benetakoa izan dadin Administrazioak bere gain hartzen dituen betebeharrak arautzen ditu.

Alde horretatik, bai izapidetze elektronikoa bai modu horretan izapideak egitera behartuta ez dauden pertsonentzako arreta bermatzen dira, oinarrizko legedian ezarri bezala. Izapidetze hori bermatze aldera, onartutako identifikazio- eta sinadura-sistemak gure eremuan nola arautu ezartzen da. Era berean, izapide elektronikoa egitera behartuta dauden pertsonen gaitutako helbide elektronikoa bat, izapidetze hori bermatzen duena, esleitzeko aukera jasotzen du.

8.

Azkenik, VII. tituluak arau esparruaren hobekuntzari eta arauak prestatzeko prozedurari buruzkoa da. Araudiak prozeduraren oinarrizko printzipioak eta tramiteak jasotzen ditu. Helburu argia lortu nahi da: arau esparru egonkorra, kalitatekoa eta une bakoitzean aplikatzen den errealitateari egokitzen zaiona izatea. Egokitzapen hori ez litzateke posible izan, prozesu horretan herritarren parte-hartzea jasoko ez balitz.

9.

Azken zatiko xedapenei dagokienez, nabarmendu behar da indargabetu egiten dela Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan administrazio elektronikoa ezartzeko apirilaren 4ko 11/2007 Foru Legea. Arau hura mugari izan zen Administrazioan, eta, gainera, horri esker, azken urteotan egondako bilakaera teknologiko eta sozialaren ondorioz, Administrazioarako aurreikusitako

tako erronka berriei aurre egin ahal izan zaie orain arte.

I. TITULUA **Xedapen orokorrak**

1. artikulua. Esparru objektiboa.

Foru lege honek ondokoak arautzen ditu:

a) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta Foru-sektore Publiko Instituzionalaren antolaketa, funtzionamendua eta araubide juridikoa.

b) Foru Administrazio Publikoaren eta herritarren arteko harremanak, indarreko araudiaren esparruaren barnekoak.

c) Herritarren laguntzarekin, kalitateko arau esparrua prestatu eta horri eustea.

2. artikulua. Esparru subjektiboa.

1. Foru lege hau Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta Foru-sektore Publiko Instituzionalari aplikatzen zaie; honako hauek osatzen dute azken hori:

a) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarekin lotutako edo haren menpeko zuzenbide publikoko edozein erakunde publiko eta entitate.

b) Zuzenbide pribatuko entitateak, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari, haren erakunde publikoei eta harekin lotutako edo haren menpeko zuzenbide publikoko entitateekin lotuta edo haien menpe daudenak. Horiek foru lege honetan berariaz horiek aipatzen dituzten arauak lotuta egonen dira, eta, nolana ere, administrazio-ahalak betetzen dituztenean.

c) Nafarroako Unibertsitate Publikoa, haren berariazko araudiak gidatuko duena eta, modu osagarrian, foru lege honen xedapenek.

2. Foru lege honen ondorioetarako, foru administrazio publikotzat jotzen dira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa eta aurreko apartatuko a) letran aipatzen diren erakundeak eta entitateak.

3. artikulua. Foru Administrazio Publikoaren nortasun juridikoa

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, hierarkikoki ordenatutako hainbat organo osatua badago ere, bere helburuak betetze bidean nortasun juridiko bakarra izanen du.

2. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarekin lotutako edo haren menpeko zuzenbide publikoko erakunde publikoek eta entitateek nortasun

juridiko osoa dute hirugarrenetik harremanetan.

4. artikulua. Foru Administrazio Publikoaren ahalak eta eskubideak.

Foru Administrazio Publikoak, bere eskumenak erabiltzen dituenean, antolamendu juridikoak aitortzen dizkion ahal eta eskubide guztiak izanen ditu, eta betiere, honako hauek:

a) Bere burua antolatzeko ahalak.

b) Bere egintzen legezkotasunaren presuntzioa.

c) Bere egintzak eta horiek betearazi beharra.

d) Bere egintzak ofizioz berrikusteko ahalak.

e) Nahitaez betearazteko ahalak.

f) Desjabetzeko ahalak.

g) Zehatzeko ahalak.

h) Erregelamendu-ahalak.

i) Ziurtatzeko ahalak.

j) Tributu ahalak.

k) Autotutoretza ahalak.

l) Kalifikazio edo ebaluazio teknikoko ahalak.

5. artikulua. Ad intra eta ad extra harremanak.

1. Administrazio arteko harremanak baliabide elektroniko bidez garatuko dira; baliabide horiek elkarreragingarritasuna eta segurtasuna bermatu beharko dute, eta zerbitzu publikoak batera ematen lagundu.

2. Indarreko araudiaren esparruan, ahal dela, herritarrekiko harremanak baliabide elektroniko bidez gauzatuko dira, administrazio prozeduren izapidetzea hobetu eta sinplifikatzeko asmoz, eta oreka egokia bermatuko da administrazio jardueraren eraginkortasunaren eta herritarren eskubideen zaintzaren artean.

II. TITULUA **Foru Administrazio Publikoaren** **araubide orokorra**

I. KAPITULUA **Foru Administrazio Publikoa**

6. artikulua. Antolaketa eta funtzionamenduari buruzko printzipio orokorrak.

1. Foru Administrazio Publikoak interes orokorreko objektibotasunez erantzuten die, administrazio-izaerako eginkizun betearazleak gauzatuz, betiere Konstituzioari, Nafarroako Foru Eraentza

Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoari, gainerako antolamendu juridikoari eta zuzenbideari men eginez.

2. Legezketasun printzipioaz gainera, honako printzipio hauek gidatuko dituzte Foru Administrazio Publikoaren antolaketa eta funtzionamendua:

- a) Organoen hierarkia.
- b) Araudian ezarritako eskumenak banatzeko ordenari egokitzea.
- c) Deskontzentrazio, deszentralizazio eta banaketa funtzionala, beharrezkoa bada, kudeaketa edo exekuzio lanak egiteko orduan.
- d) Ekonomia, eta baliabideak egoki esleitzea helburu instituzionalen arabera.
- e) Eraginkortasuna, bere helburuak betetze bidean.
- f) Efizientzia, baliabide publikoak esleitu eta erabiltzean.
- g) Plangintza, helburuen arabera zuzendaritza, eta politika publikoen emaitzen kudeaketaren eta ebaluazioaren gaineko kontrola.
- h) Kudeaketa publikoarekiko ardura.
- i) Fede ona, konfiantza legitimoa eta leialtasun instituzionala.
- j) Administrazio prozedurak eta kudeaketa arloko jarduerak arrazionalizatu eta arintzea.
- k) Herritarrentzako zerbitzu eraginkorra.
- l) Sinpletasuna, argitasuna eta herritarrekiko hurbiltasuna.
- m) Administrazioaren jarduketaren gardentasuna, parte-hartzea eta objektibotasuna.
- n) Subsidiariorotasun eta proportzionaltasuna dagozkion eskumenak erabiltzean.
- o) Administrazioaren organo eta erakunde publikoen arteko koordinazioa.
- p) Gainerako administrazio publikoekiko lankidetasuna, koordinazioa eta elkarlana, eta eskualdeen arteko elkartasuna.
- q) Sistemen elkarrengarritasuna eta segurtasuna, eta baliabide elektronikoen irtenbideak.
- r) Herritar guztiek irisgarritasuna dutela eta herritar guztiek administrazioarekiko harremanetan tratu-berdintasuna –bereziki, emakumeen eta gizonezkoen arteko– jasotzen dutela bermatzea.

II. KAPITULUA

Foru Administrazio Publikoaren antolaketa

7. artikulua. Administrazio antolaketa.

1. Foru Administrazio Publikoak, bere burua antolatzeko ahala baliatuz, bere eskumenak erabiltzeko beharrezkotzat jotzen dituen administrazio-organoak sortzen ahalko ditu.

2. Unitate organiko bakoitza esleiturik dituen eginkizunei loturiko lanpostuek eta burutza komun batek osatuko dute.

3. Foru Administrazio Publikoaren organo gorenak dira Nafarroako Gobernua, haren lehendakaria, lehendakariordeak eta kontseilariak. Foru Administrazio Publikoaren gainerako organoak organo goren baten zuzendaritzapean izanen dira.

4. Foru Administrazio Publikoaren organoak sortu, aldatu edo kentzeko, foru lege honetan eta aplikatu beharreko gainerako arauetan ezarritakoa aplikatuko da.

5. Administrazio-organo bat sortzean, haren eginkizunak eta eskumenak mugatu beharko dira, organikoki eta eginkizunei dagokienez noren menpe egonen den zehaztu, eta abian jartzeko eta lanean jarduteko behar dituen kredituak eman. Ezin sortu daitezke egituraren beste organo batzuen bikoizketa diren organo administratiboak, aldi berean organo horien eskumena bertan behar utzi edo behar bezala mugatzen ez bada. Horretarako, bakarrik sortuko da organo berri bat, egiaztatu ondoren Foru Administrazio Publikoan ez dagoela eskualde berean eta herritar berei lotuta eginkizun berdina garatzen duen beste bat.

6. Foru Administrazio Publikoaren antolaketa ezartzen duten arauetan dagozkion eskumenak egoki erabiltzeko ezinbestekotzat jotzen den egitura finkatuko da. Orobat, eskumen horiek organoen artean banatuko ditu, unitateak eta lanpostuak uneoro esleitzen zaizkien helburuetara malgutasunez egokitu ahal izateko moduan.

7. Organoetako titularrek dute organo horren funtzionamendu zuzenaren erantzukizuna, bai eta organoari esleituriko eginkizunak behar bezala egitearen erantzukizuna ere; titularrek, egokitasun hori helburu, antolatu beharko dituzte organoetako giza baliabideak eta baliabide materialak, bidezko jarraibideen eta zerbitzu-aginduen bitartez.

8. Administrazio-organoei esleituriko eskumenak erabiltzeko behar diren egintzak, ondorio juridikoak dakartzatenak, kasuan kasuko titularrek sortzen dituzte; hori, hala ere, ez da eragozpen izanen izenpea eskuordetzan emateko foru lege honetan ezarritakoaren arabera.

9. Zilegi izanen da eginkizunei dagokienez Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldetik kanpo arituko diren organoak sortzea, Foru Administrazio Publikoak dituen eskumenak erabiltzeko.

8. artikulua. Administrazio-egituren egokitzapena.

1. Administrazio-organoetako titularrek, nork bere eskumenen arabera, bere menpe dituzten administrazio-egiturak eta langileak Nafarroako Gobernuak finkatutako helburuak hobeki betetzeko behar diren egokitzapenak egin edo sustatzeko ardura dute.

2. Administrazioaren antolaketaren eta funtzio publikoaren gaineko eskumen berariazkoak dituzten organoek, hots, arlo horretan Foru Administrazio Publiko osorako eginkizunak beren gain hartzen dituztenek, behar diren neurriak hartuko dituzte beren egitura foru lege honen printzipioei eta Nafarroako Gobernuak ezarritako irizpide eta helburuei egokitzeko, legez esleitutako baliabideen arabera.

9. artikulua. Jarraibideak eta zerbitzu-aginduak.

1. Foru Administrazio Publikoko organoek hierarkiaz beren menpe daudenen jarduerak zuzentzen ahalko dituzte jarraibideak eta zerbitzu-aginduak emanez.

2. Berariazko xedapen batek hori ezartzen badu edo hartzaileak edo sor daitezkeen ondorioak ikusita komenigarritzat jotzen bada, jarraibideak eta zerbitzu-aginduak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

3. Jarraibideak eta zerbitzu-aginduak ez betetzeak ez du ondoriorik, berez, administrazio-organoen emandako egintzen baliotasunari begira, deusetan galarazi gabe legokeen diziplinazko erantzukizuna.

III. KAPITULUA

Eskumenen erabileraren araubide juridikoa

10. artikulua. Eskumenaren ukaezintasuna eta esleipena.

1. Administrazio-eskumenez baliatzea eskumen hori berezko duten Foru Administrazio Publikoko organoei dagokie, ukaezinak baitira, kapitulu honetan arautzen diren kasuak deusetan galarazi gabe.

2. Eskumen bat oro har esleitzen denean baina departamenturik aipatu gabe, arloaren arabera finkatuko da zeini dagokion. Ezinezkoa bada departamentu jakin bati esleitzea, Lehendakariatzako

eskumena duen departamentuak hartuko du bere gain.

3. Eskumen bat, oro har, departamentu bati esleitzen zaionean baina organorik aipatu gabe, departamentuaren egitura organikoaren barnean zehaztuko da organo hori. Organo jakin bati esleitzen ez bazaio, gaiaren eskumena duen zerbitzuko titularrari edo maila bereko organoari dagokiola ulertuko da.

4. Arloa eta eskualdea direla-eta organo eskudun bat baino gehiago daudenean, organo goren hierarkiko komunak zehazten duenak gauzatuko du eskumen hori.

5. Foru Administrazio Publikoaren barreneko organo eta entitateen eskumena Nafarroako lurralde osoan erabiltzeko da, aplikatu beharreko arauetan kontrakoa adierazi ezean.

6. Administrazio-organoei esleitzen zaizkien eskumenen titulartasuna eta horiek erabiltzeko eskubidea hierarkian azpian dauden beste administrazio-organo batzuen esku uzten ahalko dira, deskontzentratze aldera, eskumenak esleitzeko arauetan ezartzen den moduan eta baldintzetan.

11. artikulua. Eskumenak organoen artean eskuordetzea.

1. Foru Administrazio Publikoko organoek administrazio bereko maila bereko edo txikiagoko beste organo batzuei eskuordetzen ahalko diete beraiek esleituta dituzten eskumenez baliatzea, hierarkian beren menpe ez badaude ere. Hierarkiaren arabera elkarri lotu gabeko organoak badira, beharrezkoa izanen da organo goren hierarkiko komunak aldeztu aurretik onestea.

2. Honako eskumen hauek ezin dira eskuordetzan eman:

a) Nafarroako Gobernuaren onespina behar duten gaiak.

b) Izaera orokorreko xedapenak onestea.

c) Erakundeekiko edo beste administrazio publiko batzuekiko harremanei buruzko gaiak.

d) Egintza deusezak ofizios berrikustea eta egintza deuseztagarriak kaltegarri deklaratzeko, egintza horiek eman dituzten organoetan.

e) Kargak ezartzen dituzten egintzak edo kalterako diren egintzak errebotatzea.

f) Errekurtsoak ebatzea errekurritutako egintzak eman zituzten organoetan.

g) Prozedura bat ebatzea, baldin eta aurretik organo aholku-emaileak aginduzko irizpena edo txostena eman badu.

h) Foru lege maila duten arauak ezartzen dituzten gaiak.

3. Beste organo batek eskuordetzan emandako eskumenak ezin dira eskuordetzan eman, legezko baimen berezia izan ezik.

4. Eskumenak eskuordetzea eta errebotatzea noiznahi egin daiteke. Agindu horiek eskuordetza egiten duen organoak onetsiko ditu eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko dira.

5. Kide anitzeko organo batek eskuordetzan eman nahi izanez gero esleiturik duen eskumen bat, eta eskumen hori ohiz erabiltzeko quorum berezi bat eskatzen bada, quorum hori bera beharko du.

6. Eskuordetze baten bidez ematen diren administrazio-egintza eta -ebazpenetan egoera hori azaldu beharko da berariaz eta, ondorio guttiarako, organo eskuordetzailleak emanak bailliran hartuko dira.

12. artikulua. Zuzenbide publikoko erakunde publikoak eta entitateak eskuordetzea.

1. Aurreko artikuluan ezarri bezala, Foru Administrazio Publikoko organo gorenek beren erakunde publikoak eta lotuta edo beren menpe dauden entitateei eskuordetzen ahalko diete beren eskumenez baliatzea, komenigarria baldin bada esleiturik dituzten helburuak lortzeko eta beren kudeaketaren eraginkortasuna hobetzeko.

2. Eskuordetze hori eraginkorra izateko, beharrezkoa izanen da eskumenak hartu behar dituen erakundeak edo entitateak aurretik onartzea. Bestela, organo goren hierarkiko komunak aldeztu aurretik onetsi beharko du.

13. artikulua. Goragokoak eskumenak bereganatzea.

1. Foru Administrazio Publikoko organoek edo noiz berenganatu dezakete beren mendeko organoek ohiz edo eskuordetzaz ebatzi beharreko gai baten edo batzuen ardura, arrazoi teknikoek, ekonomikoek, juridikoek edota gizartearen edo lurraldearen aldetikokoak hala eskatzen dutenean, oinarritzko legedian ezarri bezala.

2. Hierarkian mendeko ez diren organoei eskumenak eskuordetzan emanaz gero, organo eskuordetza-emaeleak bakarrik beregana dezake gairen baten ardura.

3. Goragokoak eskumenak bereganatzeko arrazoitu egin behar du erabakia, eta jakinarazi prozedurako interesdunei, halakorik balitz, azken ebazpenaren aurretik edo aldi berean.

4. Prozeduraren ebazpenari jarritako errekurtsioan baino ezin izanen da aurkaratu eskumenak bereganatzeko erabakia.

14. artikulua. Kudeaketa-esleipena.

1. Foru Administrazio Publikoko organoek beste organo batzuk edo zuzenbide publikoko beste erakunde edo entitate batzuei –lotutakoak edo haien menpekoak– eskuordetzen ahalko diete beren eskumeneko jarduera materialak eta teknikoak egitea, dela eraginkorrakoak izateko, dela lan horietarako baliabide tekniko egokiak ez dituztelako, hurrengo apartatuetan xedatutakoari jarraituz.

2. Kudeaketa-esleipena esleipena egiten duen organoaren departamentu bereko organo bati emateko, edo departamentuaren menpeko erakunde edo entitate publiko bati, departamentuko titularraren baimena beharko da.

3. Kudeaketa-esleipena esleipena egiten duen organoaren departamentu berekoa ez den administrazio-organu bati emateko, edo beste departamentu baten menpeko erakunde edo entitate publiko bati, bi departamentuetako titularraren baimena beharko da.

4. Kudeaketa-esleipena beste administrazio publiko bati emateko, eta beste administrazio publiko batek Foru Administrazio Publikoari emateko, hitzarmen bat sinatu beharko da, aurrekontuetan horretarako behar beste kreditu daudela egiaztatuta ondoren.

5. Kudeaketa-esleipena egiteko baimenean edo, kasua bada, hitzarmenean, honako hauek aipatu beharko dira, zehatz-mehatz: aginduaren araubide juridikoa, xedeko jarduera edo jarduerak, iraupena, agindutako kudeaketaren izaera eta hedadura eta, azkenik, eginkizunak bere gain hartzen dituenaren eginbeharrak.

6. Kudeaketa-esleipena edo hori barnean hartzen duen hitzarmena eraginkorra izan dadin, osorik argitaratuko da Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

7. Ezin izanen dira kudeaketa-esleipenen xede izan kontratuen arloan indarra duen legedian arautzen diren kontratuen berezko prestazioak.

15. artikulua. Izenpea eskuordetzea.

1. Foru lege honen 11. artikuluen 2. eta 3. apartatuetan ezarritako mugen barnean, departamentu bakoitzeko titularrak bere ebazpenen eta administrazio egintzen sinadura eskuordetzen ahalko die menpeko administrazio-organuotako titularrei bere eskumeneko arloetan (esleitutakoak zein eskuordetutakoak).

2. Beste organoetako pertsonak ere zilegi izanen dute beren menpeko organoei izenpea eskuordetzan ematea, hierarkiako nagusiak baimenduz gero eta betiere aurreko apartatuan aipatutako baldintzetan.

3. Izenpea eskuordetzea baliozkoa izateko, ez da derrigorrezkoa izanen Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

4. Izenpea eskuordetzeagatik sinatzen diren ebazpen eta egintzetan, zirkunstantzia hori eta jatorrizko agintaritzaren adieraziko dira.

16. artikulua. Ordezketza.

1. Nafarroako Gobernuaren lehendakariaren, lehendakariordeen eta kontseilarien ordezketzak eta ordezkapenak egiteko, Nafarroako Gobernua eta Lehendakaria arautzen dituen Foru Legean eta hori garatzeko arauetan xedatzen denari jarraikiko zaio.

2. Departamentu bakoitzeko titularrak izendatuko ditu, foru agindu baten bidez, zuzendari nagusien eta idazkari tekniko nagusien aldi baterako ordezkoak, baita zuzenean haien menpe dauden beste administrazio-organoen titularren ordezkoak ere, kargua hutsik dagoenean edo titularrak kanpoan edo eri dagoenean edo arrazoi pertsonalengatik aritzerik ez duenean, edo abstenitzea edo errefusatzea deklaraturik dagoen kasuetan.

3. Foru Administrazio Publikoko gainerako buruak hierarkikoki zer organoren mende dauden, horri egokituko zaio haien ordezkoak izendatzea, horretaz araudi berariazkorik ez baldin bada.

4. Ordezketzak arlo orokor baterako edo arlo espezifiko baterako egin daitezke, baita kasu jakin batzuetarako ere.

5. Ordezko bat baino gehiago izan daitezke aldi berean. Kasu horretan, arlo espezifikorako ordezkoak lehentasuna izanen du arlo orokorrerako ordezkoaren gaineratik, eta bien jarduna eten daiteke kasu jakin baterako ordezkapena egin baldin bada.

6. Ordezketza baliozkoa izateko, ez da derrigorrezkoa izanen Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, kasu jakin batzuetarako horrela ezarri ezean.

7. Norbait ordezkatzeagatik ematen diren ebazpenetan eta administrazio-egintzetan, egoera hori adierazi beharko da eta zehaztuko da zein den organoaren titularrak eta zein horren ordez benetan ari dena.

17. artikulua. Eskumenei eta eskudantzien gatazkei buruzko erabakiak.

1. Gai bat ebazteko eskuduntzat jotzen ez den administrazio-organok jarduketak igorriko dizkio eskuduntzat jotzen duen organoari zuzenean, eta horren berri eman beharko die interesdunei.

2. Prozeduran parte hartzen duten interesdunak gai bat aztertzen ari den organoari zuzentzen ahalko zaizkio, bere eskumenari uko egin diezaion eta jarduketak organo eskudunari igor diezazkion. Halaber, eskuduntzat jotzen duten organoari zuzentzen ahalko zaizkio, gaia aztertzen ari den organoari eskatzeko eskumena baliatzeari uzteko.

3. Eskudantzien gatazkak hierarkikoki elkarri lotuta ez dauden administrazio bereko organoen artean baino ezin izanen dira sortu, administrazio prozedura amaitu ez duten gaiei dagokienez.

4. Departamentuen artean eskudantzien banaketari buruz sortzen diren gatazkak Nafarroako Gobernuaren lehendakariak ebaztuko ditu.

5. Hierarkikoki elkarri lotuta ez dauden organoen artean eskudantzien banaketari buruz sortzen diren gatazkak organo goren hierarkiko komuneko titularrak ebaztuko ditu.

IV. KAPITULUA

Kide anitzeko organoak

18. artikulua. Kontzeptua eta araubide juridikoa.

1. Foru Administrazio Publikoko kide anitzeko organoak dira erabaki, aholkularitza, proposamen, erabaki, segimendu edo kontrolaren inguruko administrazio-lanak egiteko administrazioaren barrenean sortzen direnak, hartan integraturik jarduten badute eta hiru kide edo gehiago baldin badituzte.

2. Kide anitzeko organoen araubideari dagokionez, barne funtzionamendurako arauetan, kasuan kasuko organoa sortzeko xedapen edo hitzarmenetan, kapitulu honetan bildutako xedapenetan eta aplikatu beharreko gainerako arauetan ezarritakoari jarraikiko zaio.

3. Nafarroako Gobernua, berriz, Nafarroako Gobernua eta lehendakaria arautzen dituen foru legean eta horren garapenerako arauetan xedatzen denari jarraikiz arautuko da eta kapitulu honetan bildutako aginduak ez zaizkio aplikatuko.

19. artikulua. Sortzeko baldintzak.

1. Kide anitzeko organo bat eratzeke, alde aurretik honako alderdi hauek zehaztu beharko dira:

- a) Xedeak eta helburuak.
- b) Ebazteko gaitasuna; kasu horretan erabakiak ebazpen gisa emanen dira.
- c) Esleitu zaizkion eginkizunak.
- d) Egitura organikoaren barneko integrazioa eta, hala bada, haren mendekotasun hierarkikoa.
- e) Organoaren osaera, eta kideak hautatzeko irizpideak.
- f) Behar dituen aurrekontu-kredituak, lan egiteko horrelakorik behar baldin bada.

2. Erabakiak hartzeko, proposamenak egiteko, administrazio-erabakiak hartzeko oinarri diren aginduzko txostenak emateko eta beste organo batzuei segimendu edo kontrol lana egiteko arduraren kide anitzeko organoak sortu, aldatu edo kentzea eta horiek funtzionatzeko gutxienezko arauak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den berariazko arau baten bidez eginen dira.

3. Aurreko apartatuan zerrendatutako eginkizunak garatzen ez dituzten kide anitzeko organoak laneko batzorde edo taldetzat joko dira, eta horiek sortu, aldatu edo kentzea Nafarroako Gobernuaren erabaki bidez eginen da, edo arloaren arabera eskumena duen departamentuko titularrak emandako foru agindu bidez. Kasu horietan, erabaki horiek ez dute zuzeneko ondorioz sortuko hirugarrenen aurrean.

20. artikulua. Kide anitzeko organoen osaera.

1. Kide anitzeko organo guztietan lehendakaria eta idazkaria egon beharko dira, eta, gainera, lehendakariorde batek edo batzuek eta beharrezkotzat jotzen diren kideek edo berariazko beste kargudun batzuek ere osatzen ahalko dute.

2. Idazkariaren eginkizunak bere gain hartzen dituen pertsona organo bereko kidea izaten ahalko da zein ez. Organoko kidea ez bada, idazkaritza bere gain hartuko du Foru Administrazio Publikoaren zerbitzuko pertsona batek. Kide izatea ala ez kide anitzeko organo bakoitza sortzen duen tresnan zehaztuko da.

3. Organoen osaeran, ahaleginak eginen dira emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izan dadin.

21. artikulua. Lehendakariaren eginkizunak.

1. Eginkizun hauek izanen ditu:

- a) Organoaren ordezkaria izatea.
- b) Bilkura arrunt eta berezien deialdia egitea eta eguneko gai-zerrenda finkatzea.

c) Bilkuretan buru aritzea, eztabaidak moderatzea eta, aski justifikatuta dagoenean, bilkurak bertan behera uztea.

d) Bere botoarekin berdinketak desegitea, erabakiak hartu ahal izateko.

e) Organoak hartzen dituen erabakien aktak eta ziurtagiriak ikus-onestea.

f) Legeak betetzen direla ziurtatzea.

g) Organoko buru izateak berez dakartzan gainerako eginkizun guztiak betetzea.

2. Kargua hutsik edo hura kanpoan edo eri dagoenean edo beste edozein arrazoi justifikatu dagoenean, dagozkion lehendakariordeak ordeztuko du; eta, lehendakariorderik ez bada, berriz, kide anitzeko organoan hierarkia-maila, antzinatasun eta adinik handiena duen kideak ordeztuko du, betiere hurrenkera horretan.

22. artikulua. Idazkariaren eginkizunak.

1. Eginkizun hauek izanen ditu:

a) Bilkuretara joatea, boto eskubidea eta hitza dituela, organoko kidea bada, eta hitza bai baina boto eskubiderik gabe, bestela.

b) Bilkuretarako deia egitea, organoko buruak hala aginduta, eta kideentzako zitazioak egitea.

c) Kideak eta organoa elkarrekin komunikatzeko egintzak jasotzea, hau da, jakinarazpenak, datu eskaerak, zuzenketak edo haren ezagutza behar duten bestelako idazki guztiak.

d) Arazoak ebazteko bidea prestatzea, eta bilkuretako aktak idatzi eta baimentzea.

e) Onetsi diren ebazpen, kontsulta, irizpen eta erabakien ziurtagiriak ematea.

f) Kide anitzeko organoko kidea baldin bada, dagozkion eskubideak erabiltzea.

g) Kide anitzeko organoaren jarduketan legez-kotasun formala eta materiala zaintzea, eta eraketarako nahiz erabakiak hartzeko prozedurak eta erregelak errespetatzen direla bermatzea.

h) Idazkari karguari dagozkion gainerako eginkizunak.

2. Kargua hutsik edo hura kanpoan edo eri dagoenean edo beste edozein arrazoi justifikatu dagoenean, organo bakoitzaren funtzionamendurako berariazko arauak xedatu bezala ordeztuko da; eta, bestela, organo horrek hartutako erabakiaren bidez. Idazkaria kide ez bada, kide anitzeko organoko kide batek ordeztuko du, eta kide izateagatik dituen eskubideei eutsiko die.

23. artikulua. Kideen eginkizunak.

1. Interes-gatazkarik ez badago, kideek eginkizun hauek izanen dituzte:

a) Bilkuretako eguneko gai-zerrenda garaiz hartzea.

b) Bilkuretako eztabaidetan parte hartzea.

c) Boto eskubidea erabiltzea eta boto partikularra ematea, bai eta botoaren zentzua eta haren arrazoiak azaltzea ere. Kide anitzeko organoetan Foru Administrazio Publikoaren zerbitzuko langile edo agintari gisa aritzen diren kideek ezin izanen dute bazter utzi bozkatzeko eskubidea erabili beharra.

d) Galdera eta erreguak egitea.

e) Esleitu zaizkion eginkizunak betetzeko behar den informazioa garaiz jasotzea, eguneko gai-zerrendaren ingurukoak barne.

f) Karguari berez dagozkion gainerako eginkizunak.

2. Kide anitzeko organo bateko kideek ezin izanen dituzte beretako hartu organoari aitortutako ordezkarien eginkizunak, non ez zaizkien berariaz esleitzen arau baten bidez edo organoak berak kasu zehatz bakoitzerako modu baliozkoan hartutako erabakiaren ondorioz.

3. Kideak kanpoan edo eri daudenean edo justifikatzen diren gainerako kasuetan, ordezeko kideak joanen dira haien orde, horrelakorik baldin badago.

4. Berariazko beste kargu batzuk badaude, eraketa- edo funtzionamendu-arauek zehaztuko dute haien araubidea.

24. artikulua. Deialdiak.

1. Kide anitzeko organoek deialdiak egiteko araubidea erabakiko dute, funtzionamendu-arauean ezarrita ez badaukate. Araubide horretan, bigarren deialdia egiteko aukera jar dezakete, eta zehaztu zenbat kide behar diren bilkura horretan organoa balio osoz eratzeko.

2. Horrela egin ezin denean salbu, deialdiak kide anitzeko organoko kideei bidaliko zaizkie berrogeita zortzi ordu lehenago, gutxienez, baliabide elektronikoen bidez, eta mezu horietan gai-zerrenda ere bidaliko da, eztabaidatzeko beharrezkoa den dokumentazioarekin batera; eta ahal denean, bilkura zein baldintzatan egingen den adieraziko da, baita konexio-sistema ere, eta, halakorik balitz, bilkuran izateko eta parte hartzeko beharrezkoak diren baliabide teknikoak zein tokitan dauden ere adieraziko da.

25. artikulua. Kide anitzeko organoaren eraketa.

1. Organoa behar bezala eratu eta batzarrak egiteko, eztabaidak izateko eta erabakiak hartzeko, lehendakariak eta idazkariak –edo hala dago-kionean ordezekoek– eta organoko kide kopuruaren erdiak gutxienez egon beharko du, aurrez aurre edo urrutitik. Funtzionamendu-arauek zehazten ahalko dute zer kide kopuru behar den bigarren deialdian organoa behar bezala eratzeko.

2. Kide anitzeko organoko kide guztiak edo horiek ordeztu dituzten pertsonak bildurik daudenean, aurrez aurre edo urrutitik, modu baliodunera era daitezke kide anitzeko organo gisa, bilkurak eta deliberazioak egiteko eta erabakiak hartzeko, aurrez deialdirik egin gabe, kide guztiak hori erabakitzen badute.

3. Kide anitzeko organoek urrutitik egindako bilkuretan, kideak toki desberdinetan egoten ahalko dira, betiere baliabide elektronikoen bidez (halakotzat jotzen dira bide telefonikoak eta ikus-entzunezkoak ere) bermatzen bada kideen edo kideak ordeztu dituzten pertsonen identitatea, kideen adierazpenen edukia, adierazpen horiek egiten diren unea nahiz kideen arteko elkarreragitea eta interkomunikazioa denbora errealean eta bilkurak irauten duen bitartean bitartekoak eskurgarri egongo direla. Besteak beste, baliabide elektronikoko baliodunak izanen dira, konparaziorako, posta elektronikoa, audiokonferentziak eta bideo-konferentziak.

26. artikulua. Erabakiak nola hartu.

1. Ezin izanen da eztabaidatu edo erabaki eguneko gaien zerrendan sartua ez dagoen deus, salbu, kide anitzeko organoko kide guztiak bildurik daudela, gaia presazko deklaratzeko bada, gehien-goak horren aldeko botoa emanda.

2. Erabakiak botoen gehiengoaren bidez hartuko dira.

3. Organoko kideek kontrako botoa eman edo abstenituz gero, ez dute erabakien ondoriozko erantzukizunik izanen.

4. Interes legitimo baten titulartasuna frogatzen dutenek kide anitzeko organora jotzen ahal dute erabakien ziurtagiria eskuratzeko. Ziurtagiria elektronikoki bidaliko da, salbu interesdunak berariaz kontrakoa azaltzen badu, eta ez badago behartuta Administrazioarekin harremana modu horretan izatera.

5. Gehiengoaren erabakiarekin bat etortzen ez diren kideek zilegi izanen dute boto partikularrak egitea idatziz, buruak ezartzen duen bidezko epe

baten barrenean. Idazki hori onetsitako testuari erantsiko zaio.

27. artikulua. Aktak.

1. Kide anitzeko organoak egindako bilkura bakoitzaren aktan honako hauek jaso behar dira: bildutakoak, gai-zerrenda, bilera non eta noiz izan den, eztabaidetako argudio nagusiak eta erabakien edukiak; hala denean, eta kide zehatz batek eskatuta, honako hauek ere bai: hartutako erabakiaren kontrako botoak, abstentzioak eta horiek justifikatzen dituzten arrazoiak, edo aldeko botoaren azalpena.

2. Kide anitzeko organoak egindako bilkura guztiak grabatzen ahalko dira. Grabaziotik lortzen den fitxategia, grabazioaren autentikotasunari eta osotasunari buruz idazkariak egindako ziurtagiria eta bilkuran euskarri elektronikoen erabiltzen diren dokumentu guztiak bilkura-aktarekin batera jartzen ahalko dira, eztabaiden puntu nagusiak aktan jasotzeko premiarik izan gabe.

3. Edozein kidek zilegi izanen du, halaber, bere mintzaldi edo proposamena osorik transkribatzeko eskatzea, baldin eta, aktari erantsitako bilkuraren grabaziorik gabe, bertan edo organoko lehendakariak jartzen duen epean aurkezten badu bere mintzaldia hertsiki islatzen duen testua, eta hala jasoko da aktan edo, bestela, haren kopia erantsiko da.

4. Aktak bilkura berean edo hurrengo bilkuran onetsiko dira, eta zilegi izanen da, hala ere, idazkariak ziurtagiria ematea hartutako erabakien gainean, ezertan galarazi gabe akta ondoren onestea. Horrelako ziurtagirietan egoera horren berri eman beharko da. Bilkuraren ondoren kideen artean banatzen den akta bilkuran bertan onetsitzat joko da, kideen onespina jasotzen baldin badu adierazita eta jasota geratzeko aukera ematen duen edozein baliabideren bitartez.

5. Posible bada, baliabide elektronikoen bitartez bidaliko zaie akta kide anitzeko organoko kideei. Kide horiek bide horien bidez adierazten ahalko dute testuarekiko adostasuna edo eragozpenak, testuaren onespina bideratzeko; baiezkoa emanez gero, bileran bertan onartutzat joko da.

28. artikulua. Osaera mistoko kide anitzeko organoak.

1. Osaera mistoko kide anitzeko organoak dira, kide anitzeko organoa eratzeke tresnak zehaztu bezala, Foru Administrazio Publikoko kideen parte-hartzea ez ezik, honako hauena ere dutenak, eginkizunak kontuan hartuta:

a) Beste administrazio publiko batzuen ordezkariak.

b) Interes kolektiboaren ordezkari diren erakundearen ordezkariak.

c) Eskarmentu edo jakintza handia duten banakako beste kide batzuk.

2. Zenbaki honetan adierazitako kide anitzeko organoak dagokion administrazio publikoan sartuko dira, baina ez administrazio horretako egitura hierarkikoan, salbu eta organoaren sortze-arauek, eginkizunak edo izaerak horretara bultzatzen dutenean.

3. Osaera mistoko kide anitzeko organoetan parte hartzeko, beharrezkoa izanen da Foru Administrazio Publikoko kideak ez direnek beren borondatez onartzea, edo, bestela, administrazio edo erakunde horiei aplikatu beharreko arau batek zehaztea edo hitzarmen batek ezartzea.

4. Bilkura egiteko, organoko lehendakariak modu baliozkoan erabazten jotzen ahalko du, baldin eta organoko kide izanik bozeramaile izendatuta dauden ordezkariak bertaratzen badira, bai administrazio publikoetakoak bai gizartearen interesen izenean diharduten antolakundeetakoak.

5. Osaera mistoko kide anitzeko organoek erabakiak hartzeko ondorioetarako, lehendakariaren botoa ez da ebazlea izanen, organoaren funtzionamendu-arauek beraiek horrela ezarri ezean.

III. TITULUA

Foru Administrazio Publikoaren eta Foru-sektore publiko instituzionalaren antolaketa

I. KAPITULUA

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren antolaketa

29. artikulua. Departamentuen arabera egitura.

1. Banaketa funtzionalaren printzipioari jarraituz, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioa departamentutan egituratzen da. Departamentu bakoitzak Nafarroako Foru Komunitatearen eskumeneko sektore bati edo –eginkizunei dagokienez homogeneoak badira– batzuei dagokien jardura administratiboa hartuko du bere gain.

2. Departamentuak sortu, aldatu, bateratu edo kentzea eta departamentu bakoitza eskumeneko jardura administratiboaren zein sektoretan arituko den finkatzea Nafarroako Gobernuak lehendakariari dagokio eta foru dekretu bidez egin beharko du.

30. artikulua. Departamentuak.

1. Departamentu bakoitzean kontseilari bat izanen da buru eta haren menpe egonen dira departamentuari atxikirik edo haren barrenean diren organo guztiak.

2. Departamentu bakoitzean zuzendaritza nagusi bat edo gehiago eta Idazkaritza Tekniko Nagusi bat izanen dira. Azken horiek departamentuko titularraren menpe daude zuzenean.

3. Aurreko apartatuan xedatutakoa gorabehera, zuzen-zuzenean departamentuko titularraren menpe dauden beste organo batzuk ere egoten ahalko dira departamentu guztietan.

31. artikulua. Zuzendaritza nagusiak.

1. Zuzendaritza nagusiei arlo baten edo –egin-kizunei dagokienez homogeneoak badira– arlo batzuen zuzendaritzaz, kudeaketaz eta koordinazioaz arduratzea dagokie.

2. Zuzendaritza nagusiak sortu, aldatu, bateratu edo kentzea, hala nola bakoitzak eskumenean izanen dituen arloak zehaztea, Nafarroako Gobernuari dagokio. Foru dekretu bidez eginen du, departamentu bakoitzeko titularrak proposaturik.

32. artikulua. Zuzendari nagusiak.

1. Zuzendaritza nagusi bakoitzak titular bat izanen du. Honako ahalmen hauek izanen ditu:

a) atxikita dagoen departamentuan bere zuzendaritza nagusiaren proiektu, plan eta programak proposatzea eta horien exekuzioa gidatu eta egoki betetzen direla kontrolatzea.

b) Zuzendaritza nagusian sartutako zerbitzuak gidatu, kudeatu eta koordinatzea eta ongi aritzen direla begiratzea.

c) Menpean dituen baliabide finantzario eta materialak kudeatzea.

d) Bere departamentuaren eskumeneko gaietan, egitura organikoan zuzendaritza nagusiari esleituriko arloan inguruko ebazpenak ematea, betiere foru lege honen arabera eskumen hori beste organo bati esleitu ez bazaio.

e) Zuzendaritza nagusiaren xedeko arloetan hartu beharreko foru aginduen proposamenak igortzea.

f) Bere zuzendaritza nagusiaren xedeko arloetan onartu beharreko arauen proposamenak egitea.

g) Eskuordetzen edo deskontzentratzen zaizkion eskumenak erabiltzea.

h) Departamentuaren ordezkaria izatea.

i) Legeek eta erregelamenduzko xedapenek esleitzen dizkioten gainerako ahalmenak.

2. Haren izendapena eta kargutik kentzea libreki eginen dira Nafarroako Gobernuaren foru dekretu bidez, departamentu eskudunetako titularrak proposatuta. Kargutik kenduko dira, halaber, Nafarroako Gobernuko kideek kargua uzten dutenean, baina jardunean segituko dute karguz jabetuko den pertsona berria izendatu arte.

3. Zuzendari nagusien administrazio-erabakiak ebazpen gisa emanen dira, eta zuzendaritza nagusietako titularrak sinatu beharko dituzte haiek.

4. Haien ordainsariak Nafarroako Foru Komunitateko Aurrekontuetan finkatuko dira.

33. artikulua. Idazkaritza tekniko nagusiak.

1. Idazkaritza tekniko nagusiak departamentu guztietan dauden unitate organiko horizontalak dira eta beraiei dagozkie, erregelamenduz ezartzen denaren arabera, arlo tekniko eta juridikoan, giza baliabideen arloan eta aurrekontuen kudeaketaren arloan komunak diren gaiei buruzko eskumenak. Zuzenean, departamentuko titularraren menpean egonen dira.

2. Idazkari tekniko nagusiek zerbitzuko zuzendarien maila bera izanen dute eta Nafarroako Gobernuaren foru dekretuaren bidez izendatu eta kargutik kenduko dira, departamentu eskudunetako titularrak proposaturik. Izendatuak Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren funtzionario publikoak izanen dira.

3. Idazkaritza tekniko nagusiek departamentuan izapidetzen diren errekurso administratiboan ebazpena eman aurreko txosten juridikoa prestatuko dute.

4. Idazkari tekniko nagusien administrazio-erabakiak ebazpen gisa emanen dira, eta idazkaritza tekniko nagusietako titularrak sinatu beharko dituzte haiek.

34. artikulua. Zuzendaritza nagusien eta idazkaritza tekniko nagusien egitura organikoa.

1. Zuzendaritza nagusiek ondoko unitate organikoak izan ditzakete azpian:

a) Zerbitzuak.

b) Atalak.

c) Bulegoak eta ataletatik beherako beste unitate batzuk.

2. Idazkaritza tekniko nagusiek ondoko unitate organikoak izan ditzakete azpian:

a) Atalak

b) Bulegoak eta ataletatik beherako beste unitate batzuk.

3. Nafarroako Gobernuak onetsitako foru dekretu bidez sortu, aldatu eta kenduko dira zerbitzuak, zerbitzu maila duten unitate teknikoak eta atalak, kasuan kasuko departamentuko titularrak proposaturik.

4. Bulegoak eta ataletik beherako beste unitate organikoak, unitate horiek zein departamentutan sartu behar diren, hango titularraren foru agindu bidez sortu, aldatu eta kenduko dira.

35. artikulua. Zerbitzuak.

1. Zerbitzuak departamentuetako zuzendaritza arloko unitate organikoak dira. Esleiturik dituzten eskumen berariazkoek gainera, menpean dituzten atal edo unitate organikoen plangintza, koordinazioa, zuzendaritza eta kontrol lana ere egin behar dute.

2. Zerbitzuak zuzendaritza nagusi baten barnean izan daitezke edo departamentuetako titularraren menpe zuzenean.

3. Zerbitzuen azpian atalak, bulegoak eta atala baino maila baxuagoko beste unitate batzuk sor daitezke.

36. artikulua. Zerbitzuko zuzendariak.

1. Zerbitzuko zuzendariak Nafarroako Gobernuak izendatu eta kargutik kenduko ditu, foru dekretu bidez, departamentu eskudunetako titularrak proposaturik. Foru Administrazio Publikoaren edo hari atxikiriko funtzionarioen artean izendatuko da, izendapen librearen bitartez.

2. Esleitzen zaizkien lanetan arintasunaren, arrazionalizazioaren eta sinplifikazioaren printzipioen aplikazioa bultzatu eta sustatu behar dute.

3. Aurreko apartatuan aipatutako eginkizunetz gain, eskumeneko dituzten gaitan eskuordetu edo deskontzentratu zaizkienak ere beteko dituzte.

4. Haien administrazio-erabakiak ebazpen gisa emanen dira, eta zerbitzuetako titularrek sinatu behar dute.

37. artikulua. Atalak, bulegoak eta beste unitate batzuk.

1. Atalak zerbitzuen edo Idazkaritza tekniko nagusien menpeko unitate organikoak dira. Esleiturik dituzten eskumen arloei buruzko lanak beteaz eta hierarkiako nagusiarentzako txostenak eta proposamenak egitea dagokie, hala nola bule-

goek edo haien menpeko unitateek egiten dituzten lanak koordinatu, zuzendu eta kontrolatzea. Hori hala izanik ere, zuzenean departamentuko edo zuzendaritza nagusi bateko titularraren menpe dauden atalak ere sortzen ahalko dira.

2. Bulegoak eta atalez beherako beste unitate batzuk ere sortzen ahalko dira, atalek esleiturik dituzten gaien inguruan izapidetze, inbentario, erregistro, artxibo eta antzeko lanak egiteko.

3. Ataletan, bulegoetan eta atalez beherako unitate guztietan buru bat izanen da, Foru Komunitateko funtzio publikoaren arloko legerian ezarritakoaren arabera izendatu eta kargutik kenduko dena.

II. KAPITULUA

Foru-sektore publiko instituzionala

38. artikulua. Osaera eta sailkapena.

Honako entitate hauek osatzen dute Foru-sektore Publiko Instituzionala:

a) Honela sailkatzen diren erakunde publikoak:

1. Erakunde autonomoak.

2. Enpresa-entitate publikoak.

b) Zuzenbide publikoko entitateak, lotuak edo mendekoak, honela sailkatzen direnak:

1. Administrazio agintaritza independenteak.

2. Partzuergoak.

c) Zuzenbide pribatuko entitateak, lotuak edo mendekoak, honela sailkatzen direnak:

1. Sozietate publikoak.

2. Fundazio publikoak.

d) Nafarroako Unibertsitate Publikoa.

39. artikulua. Printzipio orokorrak.

1. Foru-sektore Publiko Instituzionala osatzen duten entitateen jarduketa legezkotasunaren, efizientziaren, aurrekontu jasagarritasunaren eta finantza nahikotasunaren printzipioen mende egonen da, baita kudeaketako gardentasun printzipioaren mende ere.

2. Bereziki, langileen arloan (lan-kontratudunak barne), aurrekontu arauetan eta aurrekontu orokorren urteko aurreikuspenetan ezarritako mugak hartuko dira oinarri.

3. Foru-sektore Publiko Instituzionala osatzen duten erakundeak eraginkortasunaren kontrola eta etengabeko ikuskapena egiteko sistemen mende jarriko dira.

40. artikulua. Sektore publikoaren inbentarioa.

Foru-sektore Publiko Instituzionala osatzen duen edozein entitateen sorrera, aldaketa, bat-egitea edo desagertzea Estatuko, Autonomia Erkidegoko eta Tokiko Sektore Publikoko Entitateen Inbentarioan inskribatuko da. Horretarako, dena delako entitateko zuzendaritza organo gore-naren jakinarazpena igorriko da.

41. artikulua. Eraginkortasunaren kontrola.

Foru-sektore Publiko Instituzionala osatzen duten entitateen eraginkortasunaren kontrola entitateak atxikita duen departamentuak gauzatu-ko du erregelamendu bidez horretarako gaitutako langileen bidez, eta horren xedea izanen da entitatearen berriazko jardueraren berezko helburuen betetze-maila eta baliabideen erabilera egokia ebaluatzea, beste organo batzuei dagokien kontrola galarazi gabe.

42. artikulua. Etengabeko ikuskapena.

Foru-sektore Publiko Instituzionala osatzen duten entitateen etengabeko ikuskapena ogasun arloan eskumena duen departamentuak gauzatu-ko du erregelamendu bidez horretarako gaitutako langileen bidez, eta horren xedea izanen da hura sortzea eragin zuten arazoak oraindik ote dauden eta horren finantza jasagarritasuna egiaztatzea. Etengabeko ikuskapen horretan berriaz jaso beharko dira irauteko, aldatzeko edo desagertzeko proposamenak.

1. atala Erakunde publikoak

43. artikulua. Xedapen orokorrak.

Erakunde publikoak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak bere menpean edo berari lotuak sortutakoak dira honelakoak egiteko: administrazio jarduerak, zerbitzu publikoak sustatu edo emateko jarduerak, kontraprestazioa izan dezaketen interes publikoko ondasunak sortzeko jarduerak; edo administrazio publikoei erreserbatutako jarduera ekonomikoak; sektore ekonomikoak ikuskatu edo arautzeko jarduerak. Betiere erakundearen ezaugarriek dezentralizazio funtzionaleko edo independentziako araubidean antolatu eta garatzea justifikatzen badute.

44. artikulua. Nortasun juridikoa eta ahalak.

1. Erakunde publikoek nortasun juridiko berriazkoa daukate bai eta kudeatzeko autonomia ere, foru lege honetan ezarri bezala.

2. Beren eskumenen esparruan, xedek erdiesteko behar dituzten ahal administratiboak

dagozkie, estatutuetan ezarri bezala, desjabetzeko ahalak izan ezik.

45. artikulua. Araubide juridiko orokorra.

1. Erakunde publikoak instrumentalitate printzipioari lotuko zaizkio propio eman zaizkien xede eta helburuei dagokienez.

2. Antolatu eta funtzionatzeko, erakunde publikoek Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren foru lege honetan eta hori garatzeko arautegian ezarriko diren irizpideei men egiten diete, deusetan galarazi gabe kapitulu honen 3. azpiatallean enpresa arloko entitate publikoei ezarri zaizkien berezitasunak.

46. artikulua. Sailkapena eta atxikipena.

1. Erakunde publikoak honela sailkatzen dira:

- a) Erakunde autonomoak.
- b) Enpresa-entitate publikoak.

2. Erakunde autonomoak departamentu bati edo zuzendaritza nagusi bati atxikiko zaizkio.

3. Enpresa-entitate publikoak administrazioaren departamentu bati, zuzendaritza nagusi bati edo erakunde autonomo bati atxikiko zaizkio.

47. artikulua. Baliabide ekonomikoak.

1. Erakunde publikoek ondoko baliabideak izanen dituzte finantzabide:

- a) Haien eskuetan utzitako ondasun eta esku-bideak.
- b) Ondasun eta eskubide horien produktu eta errentak.

c) Arautzen dituzten xedapenen arabera, baimendurik dituzten diru-sarrerak, ohikoak eta bereziak.

d) Nafarroako aurrekontu orokorretan esleiturik dituzten transferentzia arruntak edo kapitalekoak.

e) Administrazio baten edo entitate publikoen diru-laguntzak, ohikoak edo kapitalekoak.

f) Dohaintzak, legatuak eta entitate pribatuen eta partikularren bestelako ekarpenak.

- g) Esleitzen zaion beste edozein baliabide.

2. Gainera, enpresa-entitate publikoek euren eragiketetatik ateratzen diren diru-sarrerak izanen dituzte finantzabide.

48. artikulua. Erakunde publikoen sorrera.

1. Erakunde publikoak foru dekretu bidez sortuko dira. Bertan, ondoko datuak zehaztuko dira gutxienez:

- a) Zer erakunde publiko mota sortu den.
- b) Haren helburu orokorrak.
- c) Zein departamenturi edo zuzendaritza nagusi, edo zein erakunde autonomori atxikiko zaion.
- d) Estatutuak.

2. Foru dekreturako proiektuarekin batera jarduketa planaren proposamen bat aurkeztuko da, eta funtzio publikoaren, antolaketa administratiboaren eta aurrekontuen arloetan eskumenak dituzten departamentuek horri buruzko txostena egin beharko dute.

49. artikulua. Estatutuen edukia.

1. Erakunde publikoen estatutuek ondoko hauek arautuko dituzte:

a) Erakundearen eginkizunak eta eskumenak, eta baliatzen ahal dituen ahal administratibo orokorrak eta eskumenak nola partitzen diren bere organoen artean.

b) Erakundearen egitura organikoa, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren foru lege honetan arautuaz bestelakoa izan daitekeena. Ebazteko gaitasuna duten organoak aipatu behar dira eta, baita ere, egitura hori aldatzeko eraman behar den prozedura.

c) Zuzendaritza organoak zein diren, kide bakarrekoak edo anitzekoak ote diren eta kideak nola izendatzen diren. Kasua bada, administrazio-bidea agortzen duten egintzak eta ebazpenak nork ematen dituen ere aipatuko da.

d) Kide anitzeko organoen osaera.

e) Xedeak erdiesteko emanen zaizkien ondatsun eta eskubideak eta erakundea finantzatzeko duten baliabide ekonomikoak.

f) Giza baliabideen, ondarearen eta kontratazioaren gaineko arauak.

g) Aurrekontuen gaineko araubidea, ekonomia eta finantza arlokoa, kontu-hartzailetzakoa, finantza kontrolarena eta kontabilitatearena.

h) Merkataritzako sozietateak osatzeko edo horietan parte hartzeko gaitasuna, horrek helburuak lortzen laguntzen badu.

i) Erakunde publikoaren funtzionamendu eta antolamendu egokirako beharrezkotzat jotzen den beste edozein kontu.

2. Erakunde publikoen estatutuen aldaketa Nafarroako Gobernuaren dekretu bidez eginen da, erakunde publikoa atxikirik dagoen departamentuko titularrak proposaturik, funtzio publikoaren, antolaketa administratiboaren eta ekonomiaren

arloetan eskumenak dituzten departamentuek txostena eman ondoren.

50. artikulua. Hasierako jarduketa plana.

1. Erakunde publikoaren hasierako jarduketarako plana agiri bat da. Haren xedeak dira sortu nahi den erakundearen egitekoak zehaztea, orotariko helmugak eta haiek lortzeko behar diren helburuak ezartzea, baita haiek lortzeko egokiak diren jarduketa ildoak ere.

2. Hasierako jarduketarako planak, gutxienez ere, erakunde publikoaren kontu hauek bilduko ditu:

a) Erakundearen egitekoen adierazpen espresua.

b) Sortzea komeni dela frogatzen duen memoria.

c) Plan estrategikoa.

d) Plan ekonomiko-finantzarioa.

e) Funtzionatzeko behar diren giza baliabideei buruzko aurreikuspenak.

f) Funtzionatzeko behar dituen informazioaren teknologiko baliabideei buruzko aurreikuspenak.

3. Jarduketa planak zein epetan egin nahi den aipatuko du, behin ere lau urtetik beheitikoa izanen ez dena.

4. Nafarroako Gobernuari dagokio, atxikirik dagoeneko departamentuko titularrak proposaturik, erakundearen hasierako jarduketarako plana onesteko erabakia hartzea.

51. artikulua. Erakunde publikoetako zuzendaritza organoak.

1. Hona hemen erakunde publikoetako zuzendaritza organoak: zuzendari kudeatzailea edo kargudun baliokidea, lehendakari lanak egiten dituen, Gobernu Kontseilua edo Administrazio Kontseilua eta sortzeko foru dekretuan espresuki aipatzen diren guztiak, erakundeko ordezkari gorenak izanen direnak.

2. Nafarroako Gobernuari dagokio erakundeko zuzendaritza organo goreneko titularrak foru dekretu baten bidez izendatu eta kargutik kentzea. Izendapena eta kargu uztea erakundea atxikirik dagoeneko departamentuko titularrak proposaturik eginen dira.

3. Erakunde publikoetako zuzendaritza-kargudunak eta behin-behineko beste langileek beren lanpostuetan iraunen dute izendatu zituen agintariak berea uztean, espresuki kargugabetzen ez direino.

4. Haien administrazio-erabakiak ebazpen gisa emanen dira, eta beraiek sinatu beharko dituzte haiek.

52. artikulua. Zuzendaritzako langileen ordainsariak.

1. Erakunde publikoetako zuzendaritzako langileen ordainsariak Nafarroako Aurrekontuei buruzko foru legeetan agertu beharko dute.

2. Erakunde publikoetako zuzendaritzako langileek ez dute inolako ordainik hartuko beren karguak uztean, legeek ezartzen dituztenak izan ezik. Horretarako, ezin itundu edo hartuko da kontratu bidezko klausularik, diru ordainak aitortzea xede duenik, edozein izanik ere haien izaera nahiz zenbatekoa.

53. artikulua. Araubide ekonomikoa eta aurrekontuei eta kontratazioei buruzkoa.

Erakunde publikoen ondareari, kontratuei, aurrekontuei, kontabilitate publikoari eta finantzen kontrolari buruzko araubideak arlo horiei buruzko berriazko legerian ezartzen direnak dira.

54. artikulua. Erakunde publikoen iraungipena eta likidazioa.

1. Erakunde publikoen iraungipena Nafarroako Gobernuaren foru dekretu baten bidez gertatuko da, atxikirik dagoeneko departamentuko titularrak proposaturik, funtzio publikoaren, antolaketa administratiboaren eta ekonomiaren arloetan eskumenak dituzten departamentuek txostena eman ondoren.

2. Erakunde publikoak ondoko arrazoiengatik iraungiko dira:

a) Sortu zuen foru dekretuan aipatzen zen aldia iragatea.

b) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio zerbitzuek erakunde publikoaren helburu eta xede guztiak beren gain hartzea.

c) Helburu eta xedeak erabat lortu badira, alegia, erakunde publikoak irauteko arrazoirik ez egoatea.

d) Eraginkortasunaren kontrolaren eta etengabeko ikuskapenaren ondorioz Nafarroako Gobernuak egokitzen jotzea.

e) Estatutueta ezarritako beste edozein arrazoi.

f) Nafarroako Gobernuak hori erabakitzea, arrazoiak azalduta.

3. Iraungitzeko foru dekretuak erakunde ukitu langileei dagozkien neurriak hartuko ditu, langi-

le horiei buruzko legeen barruan. Halaber, erakunde publikoa likidatzen datozen aktibo eta pasibo osoak Nafarroako Foru Komunitatearen ondarean sartzeko zehaztuko du. Hala denean, ondasunak eta eskubideak Foru Komunitateko Administrazio zerbitzuei lotzea edo bidezko erakunde publikoari atxikitzea zehaztuko da, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren ondarea arautzen duten xedapenetan ezarritakoaren arabera.

4. Foru Komunitateko Administrazioa automatikoki subrogatuko da iraungitzeko foru dekretua hartzen den egunean, erakunde publikoak bere zordunekin dituen harreman juridiko guztietan (nagusiak zein osagarriak). Subrogazio horrek ez ditu aldatuko onartutako obligazioen finantza baldintzak, eta ezin izanen da jo harreman juridikoak suntsiarazteko arrazoitzat.

1. azpiatala

Erakunde autonomoak

55. artikulua. Definizioa eta araubide juridikoa.

1. Erakunde autonomoak dira, departamentu baten berezko jarduera gauzatzeko eta zerbitzu publikoak sustatu, eman edo kudeatzeko jarduerak egiteko agindua jasotzen duten erakunde publikoak.

2. Foru lege honetan, hori sortzeko foru dekretuan, haien estatutueta eta aplikatu beharreko Administrazio Zuzenbide orokor eta bereziaren arauetan xedatutakoak gidatzen ditu erakunde autonomoak. Administrazio araurik ez badago, zuzenbide erkidea aplikatuko da.

56. artikulua. Langileen araubidea.

1. Erakunde autonomoetako langileak funtzionarioak, estatutupekoak edo administrazio-kontratudun edo lan-kontratudunak izanen dira, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioarako ezarri bezala.

2. Langileen hautaketaren kudeaketa langileen arloko eskudantziei buruzko berriazko foru dekretu batean ezartzen denarekin bat eginen da.

3. Erakunde autonomoko giza baliabideen kudeaketaren arloko eskumenak eta langileen burutza kasuan kasuko estatutueta ezartzen den zuzendaritza organoari dagozkio.

4. Erakunde autonomoa beharturik dago funtzio publikoaren arloan eskumenak dituen departamentuak giza baliabideei buruz ezartzen dituen jarraibideak betetzera.

57. artikulua. Erakunde autonomoen egintzen aurkako inpugnazioa eta erreklamazioak.

1. Erakunde autonomoetako organoek emandako egintza administratiboak foru lege honetako VI. tituluan errekurtsio administratiboei buruz ezarritako araubidearen menpe egonen dira.

2. Erakundeko zuzendaritza-organoren gorenak egintza deusez ofizioz berrikusi, eta egintza deuseztagarriak kaltegarritzat jotzeko deklarazioak egiten ditu, haren mendeko organoek emandako egintzei eta xedapenei dagokienez.

3. Langileriaren arloko erreklamazioak funtzio publikoaren arloan eskumena duen departamentuko titularrak ebatziko ditu. Horrelako kasuetan, erreklamazioa zein lantokiri dagokion, horren gaineko ardura duen organoak txostena egin beharko du nahitaez.

58. artikulua. Ondare-erantzukizuna.

Ondarearen gaineko erantzukizuneko prozedu-errez ebazpena ematea kasuan kasuko erakunde autonomoetako kudeatzaileari edo lehendakariari dagokio.

2. azpiatala Enpresa-entitate publikoak

59. artikulua. Definizioa eta araubide orokorra.

1. Enpresa-entitate publikoak erakunde publikoak dira, zeinen esku uzten baita prestazio jarduerak egitea, zerbitzuak kudeatzea edo kontraprestazioa izan dezaketen interes publikoko ondasunak sortzea.

2. Enpresa-entitate publikoak zuzenbide pribatuaren arabera antolatzen dira, salbu eta haien organoen borondatearen osaeran, esleiturik dauzkaten administrazio-ahalen erabileran, eta foru lege honen, beste administrazio arau batzuen eta haien arauen bidez haietarako berariaz arauturiko kontuetan, baldin eta foru lege honetan xedaturikoari aurka egiten ez badiote.

60. artikulua. Administrazio-ahalen erabilera.

Enpresa-entitate publikoei esleituriko administrazio-ahalak estatutuen arabera eskumen hori espresuki atxikirik daukaten organoek bakarrik erabiltzen ahal dituzte.

61. artikulua. Langileen araubidea.

1. Enpresa-entitate publikoetako langileak lan zuzenbidearen arabera antolatzen dira, artikulua honetan aipatzen diren zehaztapenekin eta enpresa-entitate publikoari atxikiriko Foru Administrazio Publikoko funtzionarioei dagozkien salbuespenekin, horiek Nafarroako Foru Komunitateko funtzio

publikoari buruzko legeen arabera antolatuko baitira.

2. Entitate hauetako lan-kontratudunak arau hauetara jarraituz hautatuko dira:

a) Zuzendaritzako langileak ikasketa, lanbide, teknika edo zientziaren aldetik behar diren betebeharrak dituztenen artean izendatuko dira, kasuan kasuko estatutuetan xedatzen denarekin bat eginkizunak burutzeko behar direnak.

b) Beste langileak berdintasun, merezimendu eta gaitasun irizpideetan oinarrituriko deialdi publikoen bidez hautatuko dira, proba objektiboen bidez.

3. Enpresa-entitate publiko bakoitza sortzeko foru dekretuak Foru Administrazio Publikoko eta, hala bada, beste administrazio publiko batzuetako funtzionarioek entitateko destinoak betetzeko baldintzak zehaztu eta langile horien gainean entitateari dagozkion eskumenak ezarriko ditu, betiere erakunde autonomoek legez eskuordeturik dauzkatenak izanen direnak.

62. artikulua. Enpresa-entitate publikoen egintzen aurkako inpugnazioa eta erreklamazioa.

Enpresa-entitate publikoen egintza eta ebazpenak, ahal administratiboak erabiliz ematen direnak, foru lege honetako VI. tituluan xedaturikoaren bat inpugnatzeko ahalko dira.

2. atala Zuzenbide publikoko entitateak, lotuak edo mendekoak

63. artikulua. Administrazio agintaritza independenteak.

1. Administrazio agintaritza independenteak dira zuzenbide publikoko entitateak, eta, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari lotuta egonda eta nortasun juridiko propioa izanda, kanpoko ikuskapen edo erregulazio eginkizunak esleiturik dituzte sektore ekonomiko eta jarduera zehatz batzuen gainean, eginkizun horiek gauzatzeko independentzia funtzionala edo autonomia berezi bat behar izateagatik. Hori foru lege mailako arau baten bidez zehaztu beharko da.

2. Administrazio agintaritza independenteak horiek sortzeko foru legeak, haien estatutuek eta haien ikuskapenpean dauden sektore ekonomikoen lege bereziek gidatuko dituzte, eta, modu osagarrian —eta haien izaerarekin eta autonomiarekin bateragarria baldin bada—, foru lege honetan xedatutakoak (bereziki, erakunde autonomoetarako xedatutakoa) eta aplikatu beharreko Adminis-

trazio Zuzenbide orokor eta bereziaren gainerako arauak.

64. artikulua. Partzuergoak.

1. Partzuergoak zuzenbide publikoko entitateak dira, nortasun juridiko propio eta berezia dutenak. Hainbat administrazio publikok edo sektore publiko instituzionala osatzen duten entitateek sortzen dituzte beren artean edo entitate pribatuek ere horietan parte hartuta, beren eskumenen esparruan horietarako guztietarako interes komunekoa diren jarduerak garatzeko.

2. Partzuergoak oinarrizko legedian eta, hori garatzeko, Nafarroako Foru Komunitateak onesten duen araudian ezarritakoak gidatuko ditu.

3. Partzuergoak Foru Komunitateko Administrazioak edo bere erakunde publikoek eta lotutako edo haren mendeko entitateek eta beste administrazioek, erakunde publikoek edo entitate partaidetuek sinatzen duten hitzarmenaren bidez sortuko dira. Horiek sortzeko, aldez aurretik Nafarroako Gobernuak baimena eman beharko du foru dekretu bidez.

3. atala

Zuzenbide pribatuko entitateak

1. azpiatala

Sozietate publikoak

65. artikulua. Definizioa.

1. Sozietate publikoak Nafarroako ondarea arautzen duen foru legean aipatu eta arautzen direnak dira.

2. Sozietate publikoek ez dute behin ere ahalmenik izanen, agintaritza publikoa erabiltzea dakarrenik.

66. artikulua. Araubide juridikoa.

Sozietate publikoak departamentu eskudunaren tutoretzapean egonen dira, eta antolamendu juridiko pribatuaren bidezko kudeaketa izanen dute, deusetan galarazi gabe Nafarroako ondarea arautzen duen foru legean eta aurrekontuei, kontabilitateari eta finantzen eta kontratuen kontrolari buruz aplikatzekoa den araudi administratiboan ezarritako berezitasunak.

2. azpiatala

Fundazio publikoak

67. artikulua. Definizioa eta araubide juridikoa.

1. Fundazio publikoak Foru Administrazio Publikoaren eremuan haren eskumenerako helburuak egiteko sortzen direnak dira, Foru Zuzenbide

Zibilarren Bildumarekin bat. Entitate sortzailearen eskumen esparruari loturiko jarduerak egiten ahalko dituzte bakarrik.

2. Sortzen direnean, fundazioaren ondarea gehienbat sortzailearen zuzeneko edo zeharkako diru-ekarpenek osatuko dute.

3. Fundazio publikoak arloa dela eta eskumena duen departamentuaren tutoretzapean egonen dira, eta antolamendu juridiko pribatuaren bidezko kudeaketa izanen dute, deusetan galarazi gabe foru lege honetan eta kontratazioari, aurrekontuei, kontabilitateari eta finantzen eta kontratuen kontrolari buruz aplikatzekoa den araudi administratiboan ezarritako berezitasunak.

4. Fundazio publikoek ez dute behin ere ahalmenik izanen, agintaritza publikoa erabiltzea dakarrenik.

68. artikulua. Sorrera eta estatutuak.

1. Nafarroako Gobernuak sortuko ditu fundazio publikoak, erabaki baten bidez, interesa duen departamentuak proposaturik, funtzio publikoaren, antolaketa administratiboaren eta ekonomiaren arloetan eskumenak dituzten departamentuek txostena eman ondoren.

2. Erabaki horren bidez fundazio publikoa arautuko duten estatutuak onetsiko dira. Horiek adierazi beharko dituzte, Foru Zuzenbide Zibilarren Bildumako kontuez gain, zer departamenturi atxikitzen zaizkion, patronatuaren kaltean administrazio sortzaileak beretzat gorde dituen ahalmenak eta bertan parte hartzeko modua.

3. Zehazki, fundazio publikoa aldatu eta iraungitzeko ahalmena beretzat gorde beharko du administrazio sortzaileak. Egintza horiek artikulua honetako 1. apartatuan zehaztu bezala onetsi beharko dira.

4. Estatutuak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

IV. TITULUA

Foru Administrazio Publikoaren funtzionamendu elektronikoa

69. artikulua. Nafarroako Gobernuaren web ataria.

1. Nafarroako Gobernuaren web ataria Foru Administrazio Publiko osorako sarbide elektronikorako webgunea da. Horren bidez, herritarrek legez edo erregelamenduz zehaztutako informazioa atzitzen ahalgo dute etengabe eta doan, Internet bidez.

2. Nafarroako Gobernuaren web atariak antolaketaren administratiboaren eta informazio sistemen gaitetako eskumenak dituzten departamentua edo departamentuak izanen ditu arduradun eta kudeatzaile tekniko; sarbide bateratua izanen du.

3. Nafarroako Gobernuaren web ataria Foru Administrazio Publikoaren sarbide-puntu nagusi elektronikoa aipatuko da.

4. Nafarroako Gobernuaren web ataria gaztelaniz eta euskaraz egonen da. Era berean, interes orokorrekoa dela jotzen bada, beste hizkuntza batzuetan ere emanen da informazioa.

5. Nafarroako Gobernuaren web ataria pertsona guztientzat irisgarria izateko moduan diseinatu da, bereziki desgaitasuna duten pertsonen begira.

6. Nafarroako Gobernuaren web atariak genero-ikuspegia txertatuko du bere edukietan, hizkeran eta irudietan.

7. Bertan jasotako informazio orokor guztiak beren data edo azken gaurkotzearen data eramanen dute.

70. artikulua. Nafarroako Gobernuaren web atariaren edukia.

Nafarroako Gobernuaren web atarian, herritarrek honako informazio hau atzitzen ahalko dute gutxienez:

a) Nafarroako Aldizkari Ofiziala.

b) Nafarroako Foru Komunitateak emandako lege eta erregelamendu xedapenak, behar bezala gaurkotuak, herritarrentzat interes handiena duten gaitetakoak.

c) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta Foru-sektore Publiko Institutuzionalaren antolaketa-egitura. Foru Administrazio Publikoaren egitura, bulego mailaraino edo balioakideraino dauden arduradunak identifikatuko dira, eta posta elektronikoko haien helbidea adierazi.

d) Foru Administrazio Publikoko kide anitzeko organoen inbentarioa.

e) Nafarroako aurrekontu orokorrak eta Nafarroako kontu orokorrak, Nafarroako Parlamentuak onetsiak.

f) Herritarrei eskaintzen zaizkien zerbitzuak eta bere eskumeneko prozeduren zerrenda, honako hauek adierazita, gutxienez: ebazteko organo eskuduna, prozedura erregulatze arau zehatzak, ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epeak, eta isiltasun administratiboaren efektuak.

g) Funtzio publikoarekin zerikusia duten deialdiak, eta horien izapide-egintza nagusiak eta emaitzak.

h) Diru-laguntza publikoak ematearekin zerikusia duten deialdiak.

i) Kontratuei buruzko legeek aipatzen duten Nafarroako Kontratazio Ataria.

j) Lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzko legerian aipatzen den hirigintza planeamenduko erregistroa, zeinaren barruan egonen den hirigintza planei buruzko araudia, gaurkoturik.

k) Nafarroako errepideei buruzko legediak aipatzen duen Nafarroako errepideen mapa ofiziala.

l) Iradokizun, erreklamazio eta kexetarako buzoia atzitzea.

m) Lege edo erregelamenduz aginduta inskribatzea nahitaezkoa den erregistro administratibotarako estekak.

n) Foru Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa eta sarbide-puntu nagusi elektronikoa atzitzea.

ñ) Agiriak elektronikoki aurkezteko erregistroen arloko laguntza ematen duten bulegoen zerrenda eguneratua, adierazita zer egun eta ordutan egonen diren zabalik.

o) Egun baliogabeen egutegia epeak zenbatzeko ondorioetarako, toki entitateena barnean hartuko duena.

p) Erantzukizunpeko jakinarazpenaren eta aurretiazko komunikazioaren eredu eguneratuak.

q) Aplikazioen direktorioa eta Foru Administrazio Publikoak egunean izan beharko du, libreki berrerabiltzeko, Elkarreragingarritasunaren Eskema Nazionalean xedatuarekin bat.

r) Berrerabilera, irisgarritasun eta gardentasunari buruzko araudian webguneetarako derrigorrezkotzat jotzen diren edukiak eta funtzionaltasunak.

s) Interes orokorrezkotzat jo edo legez edo erregelamenduz exijitzen diren bestelako informazioak.

71. artikulua. Egoitza elektronikoa.

1. Egoitza elektronikoa telekomunikazio sareen bidez herritarren eskura dagoen helbide elektronikoa da, betiere titularra Foru Administrazio Publiko bada. Helbide elektronikoa bat egoitza elektronikotzat jotzen bada, modu nabarian agerrarazi beharko da.

2. Hala bada, egoitza elektronikoa ezartzeak berekin dakar Administrazioak ardura izatea egoitza elektronikoko horren bidez eskuratzen ahal diren informazio eta zerbitzuen osotasuna, egiazkotasuna eta eguneratzea bermatzeko. Baldin eta egoitzak administrazio titularra ez den beste organo, erakunde edo entitate baten erantzukizunpeko informazioa, lotura edo esteka badu, administrazio titularra ez da informazio, lotura edo esteka horren osotasunaren, egiazkotasunaren eta eguneratzearen erantzule izanen.

3. Foru Administrazio Publikoa identifikatzea eta, hala denean, interesdunak identifikatzea edo elektronikoki sinatzea eskatzen duten jarduketak eta izapide guztiak egoitza elektronikoen bidez eginen dira.

4. Erregelamendu bidez zehaztuko dira, oinarriko legediarekin bat, Foru Administrazio Publikoaren eremuan sor daitekeen egoitza elektronikoa (edo egoitza elektronikoko elkartuak) sortzeko baldintzak eta tresnak, honako printzipio hauei jarraikiz: gardentasuna, publizitatea, erantzukizuna, kalitatea, segurtasuna, erabilgarritasuna, irisgarritasuna, neutraltasuna eta elkarreragingarritasuna.

5. Honako hauek identifikatzen direla ziurtatu beharko da beti: egoitzaren organo titularra, iradokizunak, erreklamazioak eta kexak egiteko eskura dauden baliabideak, komunikazio seguruen sistemaren ezarpena –beharrezkoa denean–, eta egiaztapen-kode seguruen edo antzeko sistemen argitalpena, kopia elektronikokoak baliozkoak direla egiaztatzea ahalbidetzen duena.

6. Egoitzan, interesdunak eskabideak aurkezteko erabiltzen ahalko dituzten aurkezpen orokorreko ereduak eta sistemak agertuko dira, baita direktorio geografiko bat ere, zeinak interesdunak lagunduko baitie identifikatzen beren etxetik gertuen dagoen erregistroen gaitan laguntza emateko bulegoa.

7. Gainera, egoitzan oinarriko araudian eta egoitza ezartzeko erregelamenduan aurreikusten diren gutxienezko edukia eta herritarren eskurako zerbitzuak egonen dira.

8. Egoitza elektronikoen informazioak, zerbitzuak eta transakzioak argitaratzean, irisgarritasuna eta erabilgarritasun printzipioak errespetatuko dira, horri dagokionez ezarritako arauarekin bat, baita estandar irekiak eta, hala behar badu, herritarrek erabili ohi dituztenak ere.

9. Egoitza elektronikoen webgunea autentifikatzeko ziurtagiri onartuak edo kualifikatuak edo horien bitarteko baliokidea erabiliko dituzte beren

burua identifikatzeko eta haiekin komunikazio segurua bermatzeko.

72. artikulua. Sarbide-puntu nagusi elektronikoa.

1. Sarbide-puntu nagusi elektronikoa pertsonen eskubide bat da, pertsonen aukera ematen diona, sarbide-puntu horren bidez, administrazio guztien zerbitzu eta prozedura guztiak eskuratzeko eta horien izapideen egoera eta horiei egindako jakinarazpen eta komunikazioak jakiteko.

2. Sarbide-puntu nagusi elektronikoa bat ezarriko da foru lege honen aplikazio-eremurako. Foru legeari egoitza elektronikoa bat lotuko zaio, eta pertsona bakoitzak Foru Administrazio Publikoaren dituen harremanen buruzko arlo pertsonalizatua gehituko du. Horretarako, Estatuaren sektore publikoaren sarbide-puntu nagusi elektronikoa eta arlo pertsonalizatuari (“herritarren karpeta” izenekoa) atxikitzea hautatzen ahalko da, oinarriko araudian ezarri bezala.

3. Pertsonen arlo pertsonalizatuaren barnean, administrazio prozedura batean interesdunak direnek honako aukera hauek izanen dituzte eskura, harremanen baliabide elektronikoen bidez baldin badituzte:

- a) Administrazio izapideei jarrapena egin.
- b) Komunikazioak ondorio juridiko osoekin jaso, eta jakinarazpenak eskuratzeko agertu.
- c) Haiei egindako komunikazio eta jakinarazpenak atzitu ondorio juridiko osoekin, baztertuak eta iraungitakoak barne.
- d) Administrazioak dituen datuak atzitzen lagundu, zenbait datuen izaera erreserbatua deusetan galarazi gabe.
- e) Ziurtagiriak lortzen lagundu, eta prozeduran eta lotutako izapideetan sartzea

73. artikulua. Foru Administrazio Publikoaren identifikazio-sistemak.

1. Foru Administrazio Publikoak bere burua identifikatzeko zigilu elektronikoa bat erabiltzen ahalko du, oinarriturik egonen dena ziurtagiri elektronikoa aitortu edo kalifikatu batean zeinak betetzen dituen sinadura elektronikoen oinarriko legeriak eskatutako baldintzak.

2. Foru Administrazio Publikoa identifikatutzat joko da Interneten duen atarian bere informazio gisa argitaratzen duen informazioari dagokionez.

3. Zigilu elektronikoa administrazio elektronikoen arloan eskuduna den departamentuko tituluak emandako foru agindu baten bidez ezarriko

da, eta egoitza elektronikoan edo web atarian argitaratuko da.

4. Administrazio jarduketan benetakotasuna bermatzeko, zigilu elektronikoaren sistema edo egiaztapen-kode seguruen sistemak erabiltzen ahalko dira. Egiaztapen-kode seguruen sistemak oinarritzeko araudian ezarritako baldintzak beteko dituzte, eta zuzeneko eta doako egiaztapen-prozedura ezarri beharko da interesdunentzat.

74. artikulua. Administrazio jarduketa automatizatua.

1. Administrazioaren jarduketa automatizatuzat ulertzen da baliabide elektronikoak bakarrik erabiliz egindako edozein egintza edo jarduketa, baldin eta hartan zuzenean esku hartu ez badu Foru Administrazio Publikoaren zerbitzuko pertsona batek. Jarduketa horietan adieraziko da zer organo jo behar den erantzuleztat inpugnazioaren ondorioetarako.

2. Administrazio elektronikoaren arloan eskuduna den departamentuari dagozkio zehaztapenak, programazioa, mantenua, gainbegiratzeak eta kontrol kalitatea definitzea eta, hala behar badu, informazio sistemaren eta haren iturri kodearen ikuskaritza.

3. Administrazio jarduketa automatizatuen benetakotasuna bermatzeko, aurreko artikuluan aurreikusitako sistemak erabiltzen ahalko dira.

75. artikulua. Administrazioaren zerbitzuko langileen identifikazioa eta sinadura elektronikoa.

1. Funtzio publikoaren eta administrazio elektronikoaren arloan eskudunak diren organoek Foru Administrazio Publikoaren zerbitzuko langileek erabili behar dituzten identifikazio eta sinadura elektronikoko sistemak zehaztuko dituzte. Segurtasun publikoagatik sinadura elektronikoko sistemak langileen identifikazio-zenbaki profesional bakar bati lotuta egoten ahalko dira, nahiz eta kasu horretan hura emateko segurtasun publikoari lotutako jarduketetara mugatuko den horien erabilerak.

2. Identifikazio eta sinadura elektronikoko sistema horiek ezberdinak izan daitezke segun eta zein den Segurtasun Eskema Nazionalaren arabera eskatzen den segurtasun maila eta egindako dokumentu publikoen izaera. Informaziorako baino ez diren dokumentuek eta administrazio espediente baten zati ez direnek ez dute sinadura elektronikorik beharko.

3. Foru Administrazio Publikoaren zerbitzuko langileei berariaz emandako ziurtagirietan oinarritzen diren sinadura elektronikoko sistemak baka-

rik erabiltzen ahalko dira langileen lanpostuen berezko eginkizunak gauzatzeko edo beste administrazio publiko batzuekin harremanak izateko – onartzen badituzte–.

4. Aurretik aipatu diren organoak eta langileek beraiek sistema horiek mantendu eta eguneratzeaz arduratuko dira, baita haien segurtasunari eusteaz ere.

76. artikulua. Artxibo elektronikoa.

1. Euskarri elektronikoan gorde beharko dira administrazio espediente baten zati diren dokumentu elektroniko guztiak eta interesdunen eta Administrazioaren arteko harremanen frogak balioa dutenak. Dokumentu elektronikoak gordetzeko gutxieneko aldia kultur ondarearen eta artxiboen eta agiriaren arloko foru araudiaren arabera zehaztuko da.

2. Dokumentu elektronikoak artxibo elektronikoa bakar batean gordeko dira; artxibo hori osatuko dute prozedurak amaitu ondoren dokumentu eta espediente elektronikoak biltegitratzea eta kudeatzea ahalbidetzen duten azpiegiturak, sistemak eta zerbitzuek. Haien antolaketa eta araubide juridikoa oinarritzeko legedian eta berariazko foru araudian ezarritakoaren arabera zehaztuko da errege-lamendu bidez.

77. artikulua. Erregistro Orokor Elektronikoa.

1. Foru Administrazio Publikoak erregistro elektronikoa orokor bat izanen du, eta bertan edozein administrazio organotan, erakunde publikotan edo haiei loturik edo haien mende dauden entitateetan aurkeztu edo jasotzen den agiri oro bertan geldituko da jasota. Halaber, hartan idatziko da agiri ofizialen irteera. Gainera, erregistroaren bidez dokumentuak aurkezten ahalko dira beste administrazio publiko batzuei Internet bidez igortzeko.

2. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari loturiko edo haren mendeko erakunde publikoek beren erregistro elektronikoa izaten ahalko dute, Foru Administrazio Publikoaren erregistro orokor elektronikoarekin guztiz elkarreragingarri eta interkonektatuta.

3. Erregistro kontuetan laguntza emateko bulegoek emanen dute arreta erregistro elektronikorietan.

4. Erregistro Orokor Elektronikoak eta 2. apartatuan aurreikusitako erregistroek guztiz elkarreragingarriak izan beharko dute beste administrazio publiko batzuen erregistroekin, halako moduan non bermatzen den erregistroko idazpenen eta

edozein erregistroan aurkezten diren dokumentuen transmisio telematikoa.

5. Erregistro elektronikoen sartzeko egoitza elektronikoen, izapidetze elektronikoen begira epeak kontatzeko balioak diren egunak agertuko dira, baita egun horietan abiaraz daitezkeen izapidetak ere.

6. Oinarrizko araudian eta foru arlokoan xedatutakoak eta horretarako onesten den erregelamendu araudiak gidatuko dituzte erregistro elektronikoen.

7. Izapide unitateen espedienteak kudeatzeko sistemakiko elkarreragingarritasuna bideratu beharko dute erregistro elektronikoei euskarria ematen dieten aplikazioak eta informazio-sistemak.

78. artikulua. Erregistro kontuetan laguntza emateko bulegoak.

1. Foru Administrazio Publikoak erregistro kontuetan laguntza emateko bulegoen sare bat izanen du.

2. Oinarrizko legediarekin eta foru lege honekin bat, bulego horiek honako eginkizun hauek izanen dituzte:

a) Izapide elektronikoen egitera behartuta ez daudenek administrazio publikoetako edozein organori zuzenduta aurkezten dituzten dokumentuak erregistratzea.

b) Izapide elektronikoen egitera behartuta ez daudenek paperean aurkezten dituzten dokumentuak digitalizatzea.

c) Pertsonak aurkezten dituzten eskabide, komunikazio eta dokumentuak zer egunetan eta ordutan aurkezten diren frogatzen duen ordainagiria egitea, horiek aurkeztuz gero.

d) Interesdunek aurkezten dituzten eta administrazio espediente bati gehituko zaizkion euskarri elektronikoko edo paperezko kopia ziurtatu elektronikoen egitea.

e) Baliabide elektronikoen erabiltzen laguntzea oro har, hau da, laguntza eta informazioa ematea honako hauekin loturik: identifikazioa eta sinadura elektronikoa, horretarako dauden baliabideak eta erabilera moduak.

f) Izapide elektronikoen egitera behartuta ez dauden interesdunei berriazko laguntza ematea, halako moduan non bulegoan dauden eta gaituta dauden funtzionarioek edo lan-kontratadunek behar bezala egingen duten identifikazioa edo sinadura elektronikoa administrazio prozeduran, baldin

eta interesdunek baliabide horiek ez badituzte eta adostasun espresua adierazten badute.

g) Hala bada, administrazio prozedurako interesdunen identitatea egiaztatzea.

h) Hartzaile izanen den organoaren, lantokiarren edo administrazio unitatearen identifikazio-kodea jakitera ematea interesdunei, horiek horren berri ez badute.

i) Jakinarazpenak egitea, interesduna bulegoan bat-batean agertu eta une horretan komunikazio edo jakinarazpen pertsonala egitea eskatzen duenean.

j) Bulego horietan agertuz apud acta ahalordea egin ahal izatea.

k) Indarreko xedapenen arabera jendeak egin nahi dituen proiektuek, jarduketek edo eskabideek bete beharreko baldintza juridiko edo teknikoei buruzko informazioa, laguntza eta orientabidea ematea, Foru Administrazio Publikoaren eskumeneko prozedurei dagokienez.

l) Ziurtagiri elektronikoen edo identifikazioko edo sinadura elektronikoko beste sistema batzuk egitea.

m) Horretarako onesten den erregelamendu araudiak esleitzen dion beste edozein.

3. Indarreko araudiaren esparruan, erregelamendu batek arautuko ditu haien egitura eta antolaketa, haien zerbitzura dauden pertsonak, pertsona horien eginkizunak eta funtzionamendua.

79. artikulua. Ahalordetzeen Erregistro Elektronikoa.

1. Foru Administrazio Publikoak Ahalordetzeen Erregistro Elektronikoa bat izanen du, eta bertan agerraraziko dira Foru Administrazio Publikoaren aurrean jarduteko asmoz pertsona fisikoek edo juridikoek hirugarrenen alde egiten dituzten ordezkariak. Hala ere, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari lotutako edo haren mendeko erakunde publikoek ahalordetzeen erregistro elektronikoa propioak izaten ahalko dituzte horien aurrean berriazko izapidetak egiteko.

2. Ahalordetzeen Erregistro Elektronikoa eta, hala bada, erakundeen erregistro bereziak elkarrelingarriak izanen dira haien artean, beste administrazio publikoen erregistroekin, merkataritza erregistroekin, jabetzaren erregistroekin eta notario protokoloekin.

3. Oinarrizko legedian xedatutakoak eta horretarako onesten den erregelamendu araudiak gidatuko dituzte Ahalordetzeen Erregistro Elektronikoa

eta, behar denean, erakundeen erregistro bereziak.

4. Honako hauek egingen dira erregelamendu bidez: inskripzio baldintzak arautu, apud acta ahalordea egoitza elektronikoan agertuz ematen denean onartzen diren sinadura-sistemak zehaztu, eta, erregistro kontuetan laguntza emateko bulegoetan emandako apud acta ahalordetzea izanez gero, gaitutako funtzionarioek edo administrazio-kontratadunek aurrez aurreko izapidea egiteko aukera izatea. Horretarako, izaera juridikoko organoek bulego horietako langileei laguntzeko sistema koordinatu bat ezarriko dute beharrezkotzat jotzen denerako. Legez ezarritako kategoriekin bat, erregelamenduak erregistroan inskriba daitezkeen ahalordeen ereduak onetsiko ditu, horiek Foru Administrazio Publikoaren aurrean egin beharreko jarduketetara mugatzen direnean.

80. artikulua. Gaitutako Funtzionarioen Erregistroa.

1. Gaitutako Funtzionarioen Erregistro bat edo beste sistema baliokide bat izanen du Foru Administrazio Publikoak, eta gaitutako funtzionarioak edo administrazio-kontratadunak agertuko dira bertan, beren eginkizunen artean honako hauek derrigor dituztenak:

a) Harreman elektronikoak egitera behartuta ez dauden pertsonen izenean egin beharreko identifikazio eta sinadura elektronikoa.

b) Dokumentuen jatorrizko kopiak egitea, kopia horiek administrazio jarduketa automatizatuaren bidez egin ezin direnean edo horrelakorik eskatzen ez denean.

2. Erregistro hori gainerako administrazio publikoen gaitutako funtzionarioen erregistroekin guztiz elkarrengingarri eta interkonektatuta egonen da.

3. Erregistro horretan inskribatuko dira, gutxienez, erregistro kontuetan laguntza emateko bulegoak.

4. Oinarrizko legedian xedatutakoak eta horretarako onesten den erregelamendu araudiak gidatuko dute Gaitutako Funtzionarioen Erregistroa.

V. TITULUA

Administrazioen arteko harremanak

81. artikulua. Araubide orokorra.

1. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta gainerako administrazio publikoen arteko harremanak, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoan eta foru lege honetan ezarritakoaz gainera, honako hauek ere arautuko dituzte:

a) Estatuaren oinarrizko araudia eta Europar Batasuneko zuzenbidea.

b) Toki araubidearen legedia, toki administrazioaren entitateekiko harremanetan.

2. Ondorio horietarako, araudian ezarritako elkarlan, koordinazio eta lankidetzaren tresnak eta teknikak erabiliko dira, erakundeen lankidetzaren eta leialtasun printzipioei eta administrazio publikoen artean elkarlanean aritu beharri jarraikiz.

I. KAPITULUA

Elkarlana, lankidetzaren eta koordinazioa

82. artikulua. Elkarlanaren kontzeptua.

1. Elkarlantzat hartzen da helburu komunak lortzeko gainerako administrazio publikoekin aritzeko betebeharra.

2. Foru Administrazio Publikoak honakoak bete beharko ditu:

a) Errespetatzea gainerako administrazioek beren eskumenak erabiltzeko duten eskubide legitimoa.

b) Haztatzea, norberaren eskumenak erabiltzerakoan, ukitutako interes publiko guztiak, eta, zehazki, gainerako administrazioek kudeatu behar dituztenak.

c) Behar duten informazioa ematea gainerako administrazioei, beren eskumenak erabiliz egiten ari diren jarduerari buruz, edo pertsonen, gai baten gaineko informazioa osorik eskura izan dezaten.

d) Laguntza ematea, norberaren eremuan, gainerako administrazioei, beren eskumenak modu eraginkorrean erabiltzeko hala eskatzen dutenean.

e) Betetzea elkarlanean aritzeko betebeharraren ondoriozko eginbeharrak eta arau bidez ezarritako gainerakoak.

3. Errekeritutako laguntza eta elkarlana kasu hauetan bakarrik ukatzen ahal da: ez badu hori emateko ahalmenik berariazko araudian ezarritakoaren arabera; ez badu horretarako baliabide nahikorik, edo, emanaz gero zaintzeko esleitu zaizkion interesak asko kaltetuko balitu, edo bere funtzioak ez betetzea eraginen balio; edo eskatutako informazioa konfidentziala edo isilpekoa denean. Laguntza emateko ukoa arrazoituta jakinaraziko zaio eskaera egin duen administrazioari.

4. Elkarlanaren barnean sartzen da beste administrazio publikoen egintzak edo horien ondorioak nork bere lurralde esparrutik kanpo gauzatzea ere. Elkarlanean aritzeko betebeharraren

ondorioz sor litezkeen kostuak jasanarazten ahal dira hala erabakitzen bada.

83. artikulua. Elkarlanerako teknikak.

Elkarlanean aritzeko betebeharraren ondoriozko eginbeharrak teknika hauen bidez gauzatuko dira:

a) Eskaera jaso duen organoak dituen informazioa, datuak, dokumentuak edo frogabideak ematea bere eskumenak erabiltzeko horiek behar dituela eskaera egin duen administrazioari.

b) Informazio administratiboko sistema integratuak sortzea eta mantentzea, datuak eguneraturik, osorik eta modu iraunkorrean izateko, Espainia osoko administrazioaren jardura eremuekin loturik.

c) Laguntza emateko betebeharra, gainerako administrazioek beren eskumenak hobeki erabiltzeko egindako eskaerei erantzuteko, batez ere administrazio jardueren ondorioak haien lurralde esparrutik kanpo gauzatzen direnean.

d) Hitzarmenak formalizatzea.

e) Araudian aurreikusitako beste edozein.

84. artikulua. Lankidetzaren kontzeptua.

1. Lankidetzatzat hartzen da Foru Administrazio Publikoak, borondatez eta bere eskumenak erabiliz, berariazko konpromisoak hartzea, egintza bateratuak egiteko gainerako administrazio publikoekin.

2. Foru Administrazio Publikoa lankidetzan ariko da beste administrazio publikoekin, interes orokorraren mesedetan, eta borondatez erabakitzen ahal du nola erabili bere eskumenak printzipio hau ahalik eta hobekien betetzeko.

85. artikulua. Lankidetzarako teknikak.

Lankidetzan aritzeko betebeharraren ondoriozko eginbeharrak teknika hauen bidez gauzatuko dira:

a) Lankidetzarako organo pertsonifikatuak sortzea edo horietan parte hartzea.

b) Parte hartzea beste administrazio publiko batzuen kontsulta-organoetan.

c) Parte hartzea erakunde publikoetan edo beste administrazio bati lotutako edo horren menpeko entitateetan.

d) Beste administrazio publiko batzuei uztea bitarteko materialak, ekonomikoak edo pertsonalak.

e) Administrazioen arteko lankidetzak, gai jakin bat arautzen duen araudia modu koordinatuan aplikatzeko.

f) Derrigorrezkoak ez diren txostenak egitea, administrazioek beren eskumenak ukitzen dituzten proposamenen edo jarduketan gaineko irizpidea adierazteko.

g) Ondarearen arloko lankidetzak jarduketak – titulartasun aldaketak eta ondasunak lagatzea barne– ondarearen arloko legerian aurreikusitakoak.

h) Araudian aurreikusitako beste edozein.

86. artikulua. Koordinazioaren kontzeptua.

Koordinaziotzat hartzen da Foru Administrazio Publikoak duen betebeharra bermatzeko gai berberak ukitutako administrazio publikoen jarduketan koherentzia, emaitza komuna lortzeko, araudiak hala aurreikusten duenean.

87. artikulua. Koordinaziorako teknikak.

Koordinatzeko betebeharraren ondoriozko eginbeharrak teknika hauen bidez gauzatuko dira:

a) Koordinaziorako organo pertsonifikatuak sortzea edo horietan parte hartzea.

b) Plangintzarako tresnak garatzea.

c) Hitzarmenak formalizatzea.

d) Araudian aurreikusitako beste edozein.

II. KAPITULUA

Hitzarmenak eta plangintzarako tresnak

88. artikulua. Hitzarmenak.

1. Oinarrizko legediarekin bat, hitzarmenak dira ondorio juridikoak dituzten akordioak, helburu amankomun bat lortzeko egiten dituztenak honako hauek: administrazio publikoek, haiei lotutako edo haien menpeko erakunde publikoek eta zuzenbide publikoko entitateek edo unibertsitate publikoek, beren artean edo zuzenbide pribatuko subjektuekin.

2. Interes komuneko aferetan administrazio publiko bakoitzaren jardunari buruzko orientazio jarraibideak ezarri edo guztien eskumeneko edo guztien intereseko esparru batean lankidetzak garatzeko marko orokorra eta metodologia finkatu baizik egiten ez duten hitzarmenei protokolo orokorrak esanzen zaie.

3. Hitzarmenek ezin dituzte xedetzat eduki kontratuei dagozkien prestazioak.

89. artikulua. Hitzarmenen edukia.

Hitzarmenak formalizatzeko tresnek honako zehaztapenak izanen dituzte gutxienez:

a) Hitzarmena sinatzen duten organoak edo pertsonak eta alderdietako bakoitzak jarduteko duen gaitasun juridikoa.

b) Administrazio bakoitzak, kasua bada, duen eskumena.

c) Hitzarmenaren xedea eta egin nahi diren jarduketak.

d) Finantzaketa.

e) Alderdiek hartutako obligazioak eta konpromisoak ez betetzearen ondorioak, eta hala bada-gokio, ez betetze horrek izan lezakeen kalte-ordaina zehazteko irizpideak.

f) Hitzarmena eta hartutako konpromisoak betetzearen jarraipen, zaintza eta kontrol mekanismoak.

g) Hitzarmena aldatzeko araubidea. Berariazko araudirik ez bada, hitzarmenaren edukia aldatzeko hura sinatu duten alderdien adostasuna beharko da.

h) Aurreikusitako indarraldia, araudiaren arabera, eta luzatzeko aukera, alderdiek hala adosten badute. Berariazko araudirik ez bada, hitzarmenak iraupen mugatua izanen du, gehienez ere lau urtekoa.

i) Araudian aurreikusi gabeko iraungitzeko arrazoiak.

90. artikulua. Onesteko tramiteak.

1. Deusetan galarazi gabe Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoan eta berariazko araudian ezarritakoa, hitzarmen bat onesteko beharrezkoa izanen da egitea memoria bat, justifikaziozkoa, ekonomikoa eta araudiarena, zeinak, besteak beste, jasoko duen haren hitzarmen izaeraren justifikazioa.

2. Xedeari, esku hartzen duten pertsonari, eta, hala dagokionean, finantzaketari erreparatuz, hitzarmenak honakoen bidez onetsiko dira:

a) Nafarroako Gobernuaren erabakia, gaiari dagokion arloan eskumena duen departamentuko titularrak proposaturik, eta sinatu beharko du Nafarroako Gobernuko lehendakariak edo proposamena egin duenak.

b) Gaiari dagokion arloan eskumena duen departamentuko titularraren foru agindua.

c) Egitura organikoen arabera, ebazpenak emateko ahalmena duenaren ebazpena.

91. artikulua. Iraungipena eta likidazioa.

1. Hitzarmenak iraungitzen dira xede dituen jarduketak burutu direlako, eta hitzarmenean bertan, oinarritzko araudian, eta, hala dagokionean, berariazkoan, aurreikusitako arrazoiengatik.

2. Hitzarmenaren likidazioa, alderdi bakoitzaren betebeharrak eta konpromisoak zehazteko, oinarritzko araudian xedatutakoaren arabera arautuko da.

92. artikulua. Hitzarmenak Kontuen Ganberara igortzea.

1. 600.000 eurotik gorako konpromiso ekonomikoak dituzten hitzarmenak sinatzen direnetik hasita hiru hilabeteko epean igorriko dira Kontuen Ganberara.

2. Halaber, Ganbera horretara igorriko dira aldaketak, luzapenak, epeen aldaketak, hartutako konpromiso ekonomikoen aldaketak, eta aipaturiko hitzarmenaren iraungipena.

93. artikulua. Elkarrekin jarduteko planak.

1. Foru Administrazio Publikoak gainerako administrazio publikoekin adostu ditzake elkarrekin jarduteko planak, administrazioaren sektoreen batean interes komunak daudenean.

2. Elkarrekin jarduteko planek, urteko programen bitartez, proposatutako helburuak lortze aldera administrazio bakoitzak bere esparruan egin beharrekoak finkatuko dituzte, bai eta konpromisoak eta konpromiso horiek eskatzen dituzten baliabideak ere.

3. Elkarrekin jarduteko planak, hitzartzen dituzten administrazioetako organo eskudunek onetsi ondotik, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

4. Foru Administrazio Publikoan, beste administrazioen batekin prestatutako elkarrekin jarduteko planak onesteko ahalmena Nafarroako Gobernuak izanen du, erabaki bidez, edo haren kideetako edozeinek.

94. artikulua. Elkarrekin Jarduteko Planen, Hitzarmenen eta Akordioen Erregistroa.

1. Elkarrekin Jarduteko Planen, Hitzarmenen eta Akordioen Erregistroa izanen da Foru Administrazio Publikoak hitzarmenaren gainean duen jardueraren publikitate, gardentasun eta kontrol tresna.

2. Erregistro honetan inskribatuko dira, gutxienez, foru lege honetan aurreikusitako hitzarmenak, akordioak eta planak.

III. KAPITULUA

Foru Administrazio Publikoaren harreman elektronikoak gainerako administrazio publikoekin

95. artikulua. Administrazioen arteko harreman elektronikoetarako irizpideak.

1. Foru lege honetan xedatutakoarekin bat, Foru Administrazio Publikoak informazio sistemak ezarriko ditu eta prozedurak eta zerbitzuak antolatuko ditu, halako moduan non posible izan den gainerako administrazio publikoekin:

- a) Informazioaren eta jakintzen trukea
- b) Datuak kontsultatzea eta igortzea
- c) Sinadura elektronikoko sistemen elkarreragingarritasuna
- d) Sistema eta aplikazio informatikoak berrera-biltzea eta transferitzea

2. Elkarreragingarritasun eta segurtasun eske-ma nazionalak kontuan hartu beharko ditu Foru Administrazio Publikoak erabaki teknologikoak hartzerakoan.

96. artikulua. Datuak kontsultatzea eta igortzea.

1. Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta hura garatzen duten xedapenetan ezarritakoarekin bat, Foru Administrazio Publikoak eskura dituen interesdunen datuetan sartzeko aukera emanen die gainerako administrazio publikoei, betiere zehaztuz datu horietan ahalik eta segurtasun, osotasun eta eskuragarritasun handienaz sartzeko baldintzak, protokolo eta irizpide funtzional edo teknikoak.

2. Datu horien eskuragarritasuna hertsiki mugatuko da; izan ere, gainerako administrazio publikoek bakar-bakarrak eskuratuko dituzte beren eskumenerako prozedurak tramitatu eta erabaki beharrez egoki den araudiaren arabera interesdunei eskatzen dizkietenak. Ondorio horietarako, interesdunak baimena eman duela ulertuko da, oinarritzko legediak ezarritako baldintzen arabera.

3. Foru Administrazio Publikoak beharrezko neurriak hartuko ditu eta behar dituen teknologiak sartuko, bere sareen interkonexioa ahalbidetzeko, eta, hala, komunikazio sare bat sortzeko, zeinaren bidez informazio sistemak elkarrekin lotuko baitira eta administrazio publikoen eta bestelako erakun-

deen artean trukatu ahal izanzen baitira informazioa eta zerbitzuak.

4. Horretarako, komunikazio-ingurune itxiak sortzen ahalko dira Foru Administrazio Publikoaren barrenean edo horren eta beste administrazio publiko batzuen artean, komunikazioetarako, datuen truke elektronikorako eta dokumentu elektronikoak igortzeko. Lehenbiziko kasuan, zehaztuko dira komunikazioa arautuko duten baldintzak eta bermeak, eta jasoko dira igorle eta hartzaile baimenduen zerrenda eta trukatu diren datuen nolaketasuna; bigarrenean, administrazio publikoen artean beharrezko hitzarmena sinatuko da.

97. artikulua. Sinadura elektronikoa segurtatzea.

Foru Administrazio Publikoak, ziurtagiri elektronikoa aitortu edo kalifikatueta oinarritutako sinadura elektronikoko sistemak ez diren beste sistema batzuk erabiltzen dituen beste organo, erakunde publiko, zuzenbide publikoko entitate edo administrazio publiko batzuei igortzeko edo haien esku jartzeko elektronikoki sinatutako dokumentazioa, ziurtagiri elektronikoa aitortu edo kalifikatueta oinarritutako zigilu elektronikoa gainjartzen ahalko du, elkarreragingarritasuna bultzatzeko eta agiri elektronikoen sinadura elektronikoa automatikoki egiaztatzea ahalbidetzeko.

98. artikulua. Sistemak eta aplikazioak berre-biltzea eta transferitzea

1. Hala eskatzen dion beste edozein administrazio publikoren esku jarriko ditu Foru Administrazio Publikoak bere zerbitzuek garatutako aplikazioak edo kontratatutak dituenak (horien jabetza intelektualeko eskubideen titular bada), salbu eta lotzen zaien informazioa arau baten babes bereziaren xede bada. Era berean eta baldintza bere-tan, Foru Administrazio Publikoak halako aplikazioak lortzen ahalko ditu beste edozein administrazio publikorengandik. Lagatzailea Foru Administrazio Publikoa bada, lagapen-hartzailearekin adostuko da lagatako aplikazioen erosketaren edo fabrikazio kostuaren jasanarazpena.

2. Aurreko apartatuan aipatutako aplikazioak iturri ireki deklaritzen ahal ditu Foru Administrazio Publikoak, baldin eta horrek administrazioaren funtzionamenduan gardentasun handiagoa bada-kar, edo herritarrak informazioaren gizartean txer-tatzea sustatzen bada.

3. Foru Administrazio Publikoak, aplikazio bat erosi, garatu edo haren bizi-ziklo osoan mantendu baino lehen, bai bere bitartekoen bidez bai dago-kion zerbitzuak kontratatuz, Estatuko Administra-zio Orokorraren aplikazioen direktorio orokorrean

ikusi beharko du eskura ote den hura berrerabiltzeko irtenbiderik, gauzatu nahi diren premiak, hobekuntzak edo eguneratzeak osorik edo hein batean estaltzen ahal dituenik, baldin eta elkarre-ragingarritasuneko eta segurtasuneko baldintza teknologikoek horretarako bidea ematen badute. Hura osorik edo partez berrerabiltzeko irtenbiderik bada, Foru Administrazio Publikoak justifikatu egin beharko du hura ez berrerabiltzeko erabakia, efi- zientziari dagokionez.

4. Estatuaren zerbitzu elektronikoak, erregis- troak edo plataformak erabiltzea erabakiko da, oinarrizko araudian aurreikusitako moduan, Nafa- rroako Gobernuaren erabaki baten bidez, baina horrek ez du ekarriko aldaketarik egindako admin- istrazio jarduketan gaineko arduraren, zeina admin- istrazio prozedura kudeatzeko eskumena duen organoari dagokion.

5. Erregelamendu bidez arautuko da aplika- zioen direktorioa eta Foru Administrazio Publikoak egunean izan beharko du, libreki berrerabiltzeko, Elkarreragingarritasunaren Eskema Nazionalean xedatuarekin bat. Direktorio horrek erabat elkarre- ragingarria izan behar du Estatuko Administrazio Orokorren aplikazioen direktorio orokorarekin, zeinean egonen baitira jasoak gainerako adminis- trazioen aplikazioak.

IV. KAPITULUA

Harreman gatazkatsuak beste administrazio publiko batzuekin

99. artikulua. Harreman gatazkatsuak.

Foru Administrazio Publikoak beste administra- zio publiko baten kontra administrazioarekiko erre- kurtsoa jarri behar duenean eta aginduzkoa edo aukerakoa bada aurrez errekerimendua egitea, horretarako eskumena Nafarroako Gobernuarena izanen da, ukitutako departamentuak edo departa- mentuek proposaturik, salbu eta toki entitateen egintzak legezketasun kontrolaren ondorioz aur- katzen direnean Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legean eza- rritako moduan, kasu horretan eskumena foru lege horrek adierazten duen organoarena izanen baita.

100. artikulua. Eskumena.

Nafarroako Gobernuaren izanen da organo esku- duna beste administrazioek Foru Administrazio Publikoari egiten dizkieten errekerimenduak bere gain hartzeko. Gai honen gaineko erabakiak Nafa- rroako Gobernuak hartuko ditu ukitutako departa- mentuak edo departamentuek aurretik proposatu- rik.

VI. TITULUA

Administrazio jarduketaren arau orokorrak herritarrekiko harremanetan

I. KAPITULUA

Pertsonen eskubideak

101. artikulua. Printzipio orokorrak.

1. Pertsonak, Foru Administrazio Publikoareki- ko harremanetan, titulu honetan jasotako eskubi- deak dituzte, bai eta legedi hauetan aitortutakoak ere: estatuaren oinarrizko legedian, Europar Bata- suneko zuzenbidean, gardentasunaren arloko berariazko legedian eta sektoreko beste arau bat- zuetan.

2. Foru Administrazio Publikoak, bere jardunbi- dean, beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu herritarrek eskubide horiek baliatu ahal izateko.

102. artikulua. Pertsonak Foru Administrazio Publikoarekiko harremanetan dituzten eskubideak.

Pertsonak, Administrazio Publikoekiko harre- manetan, eskubide hauek dituzte:

- a) Arreta egokia jasotzekoa.
- b) Administrazio egokia izatekoa.
- c) Fede ona eta konfiantza legitimoa babestua izatekoa.
- d) Zerbitzu publikoak jasotzekoa.
- e) Eskaerak egitekoa.
- f) Idazkiak eta dokumentuak aurkeztekoa.
- g) Iradokizunak, erreklamazioak eta kexak aur- keztekoa.

103. artikulua. Arreta egokia jasotzeko eskubi- dea.

1. Foru Administrazio Publikoarekin harrema- netan jartzen den pertsona orok eskubidea du adeitasunez, arduraz eta konfidentzialtasunez arreta eman diezaioten, bereizkeriarik gabe jaiot- za, sexu, arraza, erlijio, iritzi nahiz bestelako ingu- ruabar edo egoera pertsonal zein sozialak aintzat hartuta.

2. Era berean, Foru Administrazio Publikoare- kiko harremanetan edozein pertsonak gaztelania nahiz euskara erabiltzeko eskubidea du, euskara- ren erabilera arautzen duen foru legedian ezarrita- koari jarraikiz.

104. artikulua. Administrazio egokia izateko eskubidea.

Pertsona guztiek eskubidea dute Foru Admi- nistrazio Publikoaren organoek haren aferak

inpartzialtasunez eta berdintasunez tratatzeko eta, gainera, arrazoizko epe batean.

105. artikulua. Fede ona eta konfiantza legitimoa babestuak izateko eskubidea.

Foru Administrazio Publikoak betiere babestuko du pertsonak hartan jarritako fede ona eta konfiantza legitimoa, bai eta ordura arte erakutsitako ohiko jokabide zintzoa ere. Dena dela, eskubide hau erabiltzeak ezin du antolamendu juridikoaren kontrako ondorioz ekarri.

106. artikulua. Zerbitzu publikoak jasotzeko eskubidea.

1. Pertsonak eskubidea dute zerbitzu publikoak berdintasunez jasotzeko, bai eta tratatu pertsonalizatua eta egokia izateko ere.

2. Pertsonak eskubidea dute zerbitzu publikoak behar adinako kalitate mailaz eman daitezen; horien etengabeko hobetzea eta kalitatearen ebaluazioa helburu duten kudeaketa ereduak ezarriko dira.

107. artikulua. Eskaerak egiteko eskubidea.

Edozein pertsonak du Foru Administrazio Publikoari eskaerak egiteko eskubidea, Espainiako Konstituzioaren eta eskubide hori arautzen duen Lege Organikoaren arabera.

108. artikulua. Idazkiak eta dokumentuak aurkezteko eskubidea.

Erregistroen arloan laguntza emateko bulegoetako arduradunek ezin izanen dute dokumentuak aurkezteko mugarik edo debekurik jarri, ez formazko arrazoiengatik, ez dokumentuaren edukia-gatik. Aurkeztutako agiritik behar bezala izapidetzeko behar den gutxieneko informazioa ateratzerik ez badago, interesdunari jakinaraziko zaio eta, zuzentzen ez badu, agiria atzera bota dezakete. Horrelakoetan, kasuko agirian horren berri jaso beharko dute.

109. artikulua. Iradokizunak, erreklamazioak eta kexak aurkezteko eskubidea.

1. Edozein pertsonak du Foru Administrazio Publikoaren zerbitzu publikoen jardura edo funtzionamenduaren gaineko iradokizunak, erreklamazioak eta kexak aurkezteko eskubidea.

2. Berariazko arloetan ezarritako prozedurak galarazi gabe, Nafarroako Gobernuak, erregelamendu bidez, horiei arreta eman edo erantzuteko prozedura berezia ezarriko du.

3. Betiere, prozedura horiek ezarriko dute erantzun bat, berariazkoa eta arrazoitua.

II. KAPITULUA

Foru Administrazio Publikoaren betebeharrak izapidetze elektronikoen arloan

110. artikulua. Jardura administratibo elektronikoa.

1. Foru Administrazio Publikoak, oinarrizko legediarekin bat, bitarteko elektronikoa erabiliko ditu jarduketa guztietan, posible ez den kasuetan izan ezik.

2. Ondorio horietarako, oinarrizko legediak eta Foru Lege honek zehazten dituzte Foru Administrazio Publikoak bere gain hartzen dituen betebeharrak, izapidetze elektronikoen arloan pertsonen aitortutako eskubideei dagokienez.

111. artikulua. Prozedura elektronikoa.

1. Foru Administrazio Publikoak bermatuko du bitarteko elektronikoen bidez edozein administrazio prozedura hasi eta izapidetu daitekeela, teknologiak ezarritakoez beste mugarik gabe.

2. Foru Administrazio Publikoak bultzatuko du prozedura horiek tarteka arrazionalizatu, sinplifikatu eta eguneratu daitezela.

3. Prozedura guztiak espediente administratibo elektronikoen baten bidez formalizatuko dira, oinarrizko legedian ezarritako baldintzen arabera.

112. artikulua. Interesduneei laguntzea bitarteko elektronikoa erabiltzen.

1. Foru Administrazio Publikoak interesduneei bermatuko die bitarteko elektronikoen bidez izan dezaketela harremana berarekin. Horretarako, haien esku jarriko ditu beharrezko diren irispidekanalak eta kasu bakoitzerako erabakitzen diren sistema eta aplikazioak. Ildo horretan, beharrezko neurriak ezarriko dira bermatzeko emakumeek eta gizonek aukera berak dituztela bitarteko elektronikoen bidez eskuratu eta erabiltzeko.

2. Administrazio elektronikoen arloan esku-menak dituzten organoen ebazpen baten bidez balidatuko dira sistema eta aplikazio horiek.

3. Foru Administrazio Publikoak bitarteko elektronikoa erabiltzeko laguntza ematen die administrazioarekin elektronikoki erlazionatzeko betebeharrak ez duten interesduneei, hala eskatzen badute. Halaber, interesdun horietakoren batek ez baldin baditu behar diren bitarteko elektronikoa, Foru Lege honen 80. artikuluan adierazitako erregistroan inskribatutako langile batek egin dezake, balio osoz, hura administrazio-prozeduran identifikatzeko edo sinadura elektronikoa emateko izapidea, langileak berak erabil dezakeen sinadura elektronikoko sistemaren bitartez.

113. artikulua. Identifikazio elektronikoko sistemak

1. Foru Administrazio Publikoak oinarrizko araudian ezarritako interesdunen identifikazio sistemak erabiliko ditu, araudian aurreikusitako moduan, eta beste edozein sistema, zeina, oinarrizko araudian aurreikusitako betekizunak beteta, Nafarroako Gobernuaren erabakiz onetsiko den, administrazio elektronikoen arloan eskumena duen departamentuko kontseilari titularrak proposaturik.

2. Departamentu bakoitzean foru agindu bidez zehaztuko da zer identifikazio sistema dauden onartuta tramite eta prozedura jakin batzuetarako; edonola ere, ziurtagiri elektronikoetan oinarritutako sistemak beti izanen dira onartuak.

3. Identifikazio sistemak erabiltzen ahalko dira sinadura sistema gisa baldin eta aukera ematen badute interesdunen borondate eta baimen adierazpena benetakoa dela frogatzeko, aplikagarri den araudian hala ezarrita badago.

114. artikulua. Sinadura elektronikoko sistemak

1. Foru Administrazio Publikoak oinarrizko araudian ezarritako sinadura elektronikoko sistemak erabiltzen ahalko ditu, araudian aurreikusitako moduan, eta beste edozein sistema, zeina, oinarrizko araudian aurreikusitako betekizunak beteta, Nafarroako Gobernuaren erabakiz onetsiko den, administrazio elektronikoen arloan eskumena duen departamentuko titularrak proposaturik. Foru Administrazio Publikoaren eremuan onetsitako sinadura sistema horiek ezin zaizkie gainerako administrazio publikoei inposatu.

2. Departamentu bakoitzean foru agindu bidez zehaztuko da zer sinadura sistema dauden onartuta tramite eta/edo prozedura jakin batzuetarako; edonola ere, ziurtagiri elektronikoetan oinarritutako sistemak beti izanen dira onartuak.

115. artikulua. Jakinarazpenetarako sarbidea.

1. Foru Administrazio Publikoaren eremuan bitarteko elektronikoen bidezko jakinarazpenak eginen dira, oinarrizko araudian aurreikusitako baldintzetan, gaitutako helbide elektronikoa bakarren bitartez, edo zehaztutako egoitza elektronikoa agertzearen bidez. Egoitza horretan bertan pertsonen esku jarriko dira paperean idatzitako jakinarazpenak, oinarrizko araudian aurreikusitako moduan.

2. Jakinarazpenak bitarteko elektronikoen bidez jasotzera behartuak daudenei, Foru Admi-

nistrazio Publikoak ofizioz esleitzen ahal die gaitutako helbide elektronikoa.

3. Nolanahi ere, elkarreragingarritasuna bermatu behar da, edozeinek aukera izan dezan puntu bakar batetik sartzeko haren jakinarazpen guztietara.

III. KAPITULUA

Administrazio prozeduraren berezitasunak

116. artikulua. Xedapen orokorrak.

1. Foru Administrazio Publikoaren eremuan, administrazio prozedurak, barnean direla zehapen prozedura eta Administrazioari ondare erantzukizuna eskatzekoa, oinarrizko legedian xedatutakoari jarraikiz arautuko dira.

2. Foru lege bidez sartzan ahalko dira, arrazoituta eta oinarrizko legediaren printzipio orokorrak errespetatuta, izapide gehiago edo aipatutako legedian aurreikusi ez direnak.

3. Foru dekretu bidez ezartzen ahalko dira, oinarrizko legediaren printzipio orokorrak errespetatuta, organo eskudunei dagozkien prozeduraren berezitasunak, epeak, hasteko eta bukatzeko moduak, argitaratzea eta eskuratu beharreko txostenak.

117. artikulua. Prozeduren iraupena.

1. Foru Administrazio Publikoaren eskumeneko prozeduretan espresuki ebatzi eta ebazpena jakinarazteko gehieneko epea izanen da kasuan kasuko prozedurari buruzko arautegian finkatzen dena. Epe hori betiere sei hilabetetik beherakoa izanen da, non eta lege edo foru lege batek epe luzeagoa ezartzen ez duen edo Europako Batasunaren arauetan hala ezartzen ez den.

2. Prozedurari buruzko arauak ez badute epeirik ezartzen espresuki ebatzi eta jakinarazpena egiteko, epea hiru hilabetekoa izanen da.

118. artikulua. Espedienteak izapidetu eta gordetzeko eskumena.

Prozedurak izapidetzea eta espedienteak gordetzea prozeduraren ardura duen organoari dago.

119. artikulua. Administrazio bidearen amaiera.

1. Foru Administrazio Publikoan administrazio bideari amaiera ematen diote oinarrizko legedian ezarritako egintzek, bai eta honako egintzek ere:

a) Nafarroako Gobernuak eta bere lehendakariak emanak.

b) Kontseilariak emanak, legezko edo erregelamenduzko arau batek hala ezartzen duenean.

c) Erakunde eta entitate publikoetako zuzendaritza organoen egintzek, foru lege batek edo kasuko erakundea sortzeko arauak hala ezartzen badu.

2. Errekurtsoen ondorioetarako, kide anitzeko organoek ematen dituzten egintza eta ebazpenak, Nafarroako Gobernuarenak izan ezik, organoko buruak emanak bailiran hartuko dira.

120. artikulua. Zehapen arloan eskumenak dituzten organoak.

1. Foru Administrazio Publikoari dagokionez, zehatzeko ahala erabiltzea legezko edo erregelamenduzko xedapenen bidez berariaz esleitu duten organoei dagokie. Berariazko eskudantziarik ez badago, zehapen prozedura hasteko eta ebazteko eskumena kasuan kasuko gaian eskuduna den departamentuko kontseilari titularri egokituko zaio.

2. Egintza bakar batek arau-hauste bat baino gehiago ekar baditzake, eta arau-hauste horiek bateragarriak badira eta bidezkoa bada zehapen bat baino gehiago jartzea, arau-hauste larriena zehatzeko eskumena duen organoari egokituko zaio denak zehatzeko eskumena, betiere kasuko gaiaren arabera arau-hauste txikia ere zigortzeko ahalmena badu. Horretarako ahalmenik ez badu, berriz, hierarkiako nagusi komunari egokituko zaio eskumena.

3. Zehatzeko eskumenak esleitzeko arauak deskontzentratzea aurreikusten ez bada, zilegi izanen da, izaera orokorreko administrazio-xedapen baten bitartez, zehatzeko eskumenak eta haien gaineko titulartasuna dekontzentratzea, eskumen hori duten organoen menpe dauden beste organo batzuei uzteko. Deskontzentratzeko araua Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da. Deskontzentrazio baten bitartez eskudantziak jaso dituzten organoek ezin izanen dituzte gero beste baten esku deskontzentratu.

121. artikulua. Zehapena murriztea

1. Prozedura ebazteko eskumena duen organoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeko 85. artikulua xedatuari jarraikiz, diruzehapenak murrizteko portzentaje hauek aplikatuko ditu:

a) Zehapenaren zenbatekoaren %30, erantzukizun-aitorpena borondatezko ordainketarik gabe egiten bada prozedura hasteko egintzan emandako epea baino lehen.

b) %20 ebazpena baino lehen borondatezko ordainketa eginez gero.

Bi murriztapen horiek metagarriak izanen dira soilik a) letran erantzukizun-aitorpena egiteko emandako epean ordainduz gero.

2. Borondatezko ordainketak, erantzukizun-aitorpenarekin edo gabe, berekin ekarriko du ordainketa egiten den egunetik bukatzea prozedura, ebazpena emateko beharrik gabe.

3. Erantzukizun-aitorpenak edo borondatezko ordainketak berekin ekarriko du zehapenaren aurka inolako ekintza edo errekurtsio administrati- bo aurkezteari uko egitea.

4. Artikulu honen 2. apartatuan aurreikusitako kasuetan prozedura bukatzeak ez du eraginik izanen hondatutako egoera berrezartzeari edo arau-hausteak eragindako kalte-galeren ordaina zehazteari dagokienez.

5. Zilegi izanen da murriztapen horiek erregelamenduz handitzea.

122. artikulua. Ondare-erantzukizunaren arloko organo eskudunak.

1. Foru Administrazio Publikoan, ondare-erantzukizunari buruzko prozedurak ebazteko organo eskuduna izanen da ustezko erantzukizuna sortu duen jarduketa egin duen departamentuko kontseilari titularra, erakunde autonomoen kasuan izan ezik, zeinetan Foru Lege honen 58. artikuluan xedatutakoa hartuko den kontuan.

2. Dena dela, ustez kaltea eragin duen unitate organikoari txostena egitea eskatuko zaio.

123. artikulua. Egintza eta xedapen deusezak berraztertzea.

1. Foru Administrazio Publikoaren egintza eta xedapen deusezak berraztertze prozedurak jarduketa deuseza egin zuen organoak hasiko ditu eta, organo hori zein departamentutakoa den edo zeini dagoen atxikia, hango kontseilari titularrak ebatziko ditu, salbu eta Nafarroako Gobernutik baldin badator, kasu horretan gobernuak berak ebatziko baitu.

2. Erakunde publikoetako zuzendaritza organoek ematen dituzten xedapen eta egintzak ofizioz berraztertze prozedurak ebazteko eskumena, erakunde horiek zein departamenturi atxikita dauden, hango kontseilari titularrek izanen dute.

3. Egintza bat deuseza dela deklaratzeko Nafarroako Kontseiluaren adostasun irizpena beharko da.

124. artikulua. Egintza deusezgarrien kaltegarritasun deklarazioa.

1. Foru Administrazio Publikoaren egintza deusezgarrien kaltegarritasun aitortzea egiteko prozedurak egintzaren egilea izan den organoak hasiko ditu.

2. Egintza deusezgarrien kaltegarritasuna aitortzeko eskumena, egintza zein organok eman duen, hango departamentuko kontseilari titularri dagokio, salbu eta Nafarroako Gobernuak eman badu, kasu horretan aitortzea egitea Gobernuari berari egokituko baitzaio.

3. Erakunde publikoetako zuzendaritza organoek emandako egintza deusezgarrien aitortzea egitea, erakunde horiek zein departamenturi atxikita dauden, hango kontseilari titularrei dagokie.

125. artikulua. Administrazio-egintzak errebotatzea eta akats material edo aritmetikoak zuzentzea.

1. Egintza edo xedapena eman duen organoari egokituko zaio errebotatzea kargak ezartzen dituzten egintzak edo pertsonen kalterako diren egintzak, eta zuzentzea administrazio-egintza eta xedapenenetan egiten diren akats material, aritmetiko eta egitatezkoak.

2. Akatsen zuzenketa, horrek dakartzan ondorio juridikoak zehaztu beharko dira, horrelakorik baldin badago. Jakinarazi edo argitaratu diren egintzak izanez gero, zuzenketa ere nahitaez jakinarazi edo argitaratu beharko dira.

3. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den testuan, jasotako testuarekin alderatuz egiten diren akatsak Aldizkariaren ardura duen organoak zuzentzen ahalko ditu, zuzendu beharreko egintza edo xedapena eman duen organoari aldeztu aurretik komunikatuta.

126. artikulua. Gora jotzeko errekurtsioa.

1. Gora jotzeko errekurtsioen ondorioetarako, organo goren hierarkikotzat honako hauek hartuko dira:

a) Nafarroako Gobernuak, kontseilarien egintzei dagokienez.

b) Departamentuko kontseilari titularra, gora jotzeko errekurtsioa jartzen ahal zaien eta zuzenean haren menpe dauden departamentuko organoen egintzei dagokienez, salbu eta c) letran xedatutako kasuetan.

c) Funtzio publikoaren arloan eskumena duen departamentuko kontseilari titularra, Foru Administrazio Publikoaren kontseilarietatik beherako edo-

zein organok arlo horren gainean emandako egintzei dagokienez.

d) Zuzendari nagusiak, haien menpe dauden unitate organikoen egintzei dagokienez.

e) Egitura organikoak finkatzen dituzten xedapenen ezartzen direnak, Foru Administrazio Publikoaren gainerako administrazio-organoei dagokienez.

f) Lehendakaritza arloko eskumena duen departamentuko kontseilari titularra, Foru Administrazio Publikoaren kontseilarien mailatik beherako edozein organok parte-hartze eta elkarlan publikoen arloan emandako egintza guztiei dagokienez, baldin eta egintza horiek Gardentasuna eta Gobernu Irekia arautzen dituen Foru Legean araututa baldin badaude.

2. Foru Administrazio Publikoaren zerbitzuko langileak hautatzeko mahai eta organoek ematen dituzten egintza eta ebazpenen aurka gora jotzeko errekurtsioa jarri ahalko da, mahaiburua izendatu duen agintariari edo organoari zuzendua, errekurtsioaren izapidearen ondorioetarako, hura izanen baita organo goren hierarkikoa.

3. Foru Administrazio Publikoaren menpeko erakunde publikoetako zuzendaritza organoen egintza eta ebazpenen aurka gora jotzeko errekurtsioa jarri ahalko da, zein departamenturi edo zuzendaritza nagusiri atxikita dauden, hango titularri zuzendua, errekurtsioaren ondorioetarako hura izanen baita organo goren hierarkikoa, betiere administrazio-bidea amaituta ez badago. Artikulu honen 1. ataleko c) letran adierazia salbuespena da.

127. artikulua. Administrazio-errekurtsioen ordezkotza bideak.

1. Foru Administrazio Publikoan gora jotzeko eta berraztertzeko errekurtsioen ordeztu inbuzazio, erreklamazio, adiskidetze, bitartekotza edo arbitrajeko beste prozedura batzuk erabil daitezke, jarraibide hierarkikoen menpe ez dauden kide anitzeko organoen edo batzorde berezien aurrean.

2. Ordezko bide hori foru lege bitartez baimenduriko kasuetan onartuko da bakar-bakarrik, kasu edo eremu sektorial jakin batzuetarako, gaia berezia izanik horrela jokatzea justifikatuta dagoenean.

3. Administrazio-errekurtsioak ordezkatzeko prozeduren ebazpenak bidea libre uzten du administrazioarekiko auzien jurisdikziora jotzeko.

VII. TITULUA
Foru lege mailako arauak
eta erregelamenduak prestatzea

I. KAPITULUA
Arau-esparrua planifikatu eta hobetzea

128. artikulua. Arau plangintza.

1. Nafarroako Gobernuak arau plan bat onetsiko du urtero, hurrengo urtean onesteko aurkeztuko diren lege edo erregelamendu ekimenak jasoko dituen.

2. Onetsi ondoren, urteko arau plana Nafarroako Gobernu Irekiaren Atarian argitaratuko da.

129. artikulua. Erregulazio onaren printzipioak.

1. Nafarroako Gobernuak legegintza ekimena gauzatuko du, eta erregelamendu-ahalaren titularrak da, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoan eta gainerako ordenamendu juridikoan ezarritakoaren arabera.

2. Erregelamendu-ahala eta legegintza ekimena gauzatuta, Gobernuak arauen kalitatearen eta erregulazio onaren printzipioen arabera jokatu du. Arau proposamenen zioen azalpenean, behar adina justifikatu beharko da printzipio horien arabera jokatzeko dela.

3. Erregulazio onaren printzipioak honako hauek dira:

a) Behar eta eraginkortasun printzipioak: arau ekimena interes orokorreko arrazoi batek justifikatu behar du, lortu nahi diren helburuak garbi identifikatzen duen oinarria izan behar du, eta helburu horiek lortzeko egokiena den tresna izan behar du.

b) Proporzionaltasun printzipioa: ekimenak arauaren bidez ase nahi den beharrari erantzuteko ezinbestekoa den erregulazioa bilduko du, egiaztatu eta gero ez dagoela eskubideak gutxiago murrizten dituen beste neurririk edo betebeharko gehiago dakartzanik.

c) Segurtasun juridikoaren printzipioa: arau ekimena ordenamendu juridikoaren gainerako alderdiekin koherentea den moduan gauzatuko da, arau-esparru egonkor, ezagun, integratua, argia eta seguru bat sortzeko, zeinak bere jakintza eta ulermena erraztuko baitu eta, horren ondorioz, pertsonen eta enpresen jarduketara eta beren erabakiak hartzeko bidea ere bai.

d) Gardentasun printzipioa: indarreko araudirako eta horren prestatze-prozesuaren berezko

dokumentuetarako sarbide erraza, unibertuala eta eguneratua ahalbidetuko da, eta zioen azalpenean argi eta garbi zehaztuko dira arau ekimenen helburuak eta horien justifikazioa. Horrez gain, ahalbidetuko da balizko hartzaileek aktiboki parte hartzea arauak prestatzeko prozesuan.

e) Sinpletasun eta efizientzia printzipioa: arau ekimenak beharrezkoak ez diren administrazio kargak edo osagarriak direnak saihestu behar ditu, eta, bere aplikazioan, baliabide publikoen kudeaketa arrazionalizatu behar du.

f) Irisgarritasunaren printzipioa. Arau ekimenak barnean hartuko ditu zenbait neurri, beharrezko direnak pertsona guztiek administrazio publikoaren aurrean beren eskubideak gauzatzeko aukera izan dezaten eta zerbitzuak benetan eta eraginkortasunez eskuratu ditzaten, pertsona horien gaitasun teknikoak, kognitiboak edo fisikoak edozein direla ere.

130. artikulua. Arau-esparruaren egonkortasuna eta sinplifikazioa.

Nafarroako Gobernuak ahaleginak egingen ditu arau-esparru egonkor eta ahalik eta sinplifikatuen edukitzen, herritarrek aise eskuratzeko modukoa, indarreko araudi aplikagarria azkar eta modu ulergarri batean ezagutzeko balio duena, eta administrazio kargarik gabekoa, interes orokorra asetzeko behar-beharrezkoak direnak baizik ez.

131. artikulua. Arau-esparruaren kalitatea hobetzeko tresnak.

Arauen kalitatearen printzipioa betetzeko, Nafarroako Gobernuak jarduketara hauek egingen ditu:

a) Arau ekimenak aldeztetik aurretik aztertzeko tresnak sustatuko ditu, eragin daitezkeen ondorioak kontuan hartzen direla bermatzeko; hori guztia herritarrei ez sortzeko beharrezkoak ez diren edo neurrigabekoak diren desparekotasunak, kostu edo beharkizunak, lortu nahi den interes orokorreko helburuarekin lotuta.

b) Arau-xedapenak prestatzeko orduan, arretarik handiena jarriko du herritarrek parte hartu eta laguntzeko prozesuetan, eta, hori helburu, behar den informazioa eskainiko du arau ekimenetatik espero diren ondorioak hobeki ulertu eta baloratzeko.

c) Bere arau jarduketara ondoren ebaluatzeko prozedurak sustatuko ditu, bere ordenamendua bilakatzen dela eta aplikatu beharreko errealitate politiko, ekonomiko eta sozialera egokitzen dela bermatzeko.

d) Araugintzaren teknikarako jarraibideak prestatzea sustatuko du. Arau juridikoen balioa izan ez badute ere, irizpide teknikoak edo jarduketaildoak emanen dizkiete arauak erredaktatzen dituztenei, arauen kalitatea etengabe hobetzeko prozesuan laguntzeko.

II. KAPITULUA

Arauak prestatzeko prozedura, eta herritarrek arauak prestatzeko prozeduran parte hartzea

132. artikulua. Foru lege aurreproiektuak eta foru dekretu proiektuak prestatzeko prozedura.

1. Prestatze-prozedura arloaren arabera eskuduna den departamentuan abiaraziko da, xedapen proposamenaren testua idatziz.

2. Departamentu eskudunak bi edo gehiago baldin badira, Nafarroako Gobernuak erabakiko du zer den egokiena arau testuaren idazketari dagokionez.

3. Arauaren zioen azalpenean agertu behar den derrigorrezko justifikazioa ezertan eragotzi gabe, honako hauek frogatzen dituzten dokumentuak aurkeztuko dira proiektuarekin batera: arauaren egokitasuna, zuzenean ukitzen diren departamentuei egindako kontsulta, lehentasuneko eskumen tituluaren identifikazioa, arauaren aru-esparrua, ordenamendu juridikorako egokitzapena, indargabetutako arauen zerrenda, egitura organikoarekiko lotura, generoaren arabeko eragina, irisgarritasunaren eta desgaitasunaren arabeko eragina, atzemandako beste eragin garrantzitsu batzuk, gauzatutako izapideen eta egindako kontsulteren, entzunaldien eta jendaurreko informazioaren deskribapena, eta kontseiluen edo beste organo batzuen derrigorrezko txosten guztiak.

4. Arau proposamenarekin batera, sortuko duen kostuaren gaineko kalkulua zehaztuko da. Oraingo edo etorkizuneko gastu edo diru-sarrera publikoak ukitzen baditu, haren ondorioak eta efektuak kuantifikatu eta baloratu beharko dira, eta aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren printzipioak betetzearen baldintzapean jarri. Halaber, jarduera ekonomikoaren gaineko murrizketa bidegabeak edo neurrigabeak sartzearagotziko da.

5. Betiere, arau proposamenak departamentu eskuduneko idazkaritza orokor teknikoaren txostena jaso beharko du, eta txosten horrek, gutxienez, aditzera emanen du egindako prozedura zuzena ote den eta proposatutako araua ordenamendu juridikoarekin bat ote datorren.

6. Onetsi baino lehen, Nafarroako Gobernuko departamentu guztiei igorriko zaizkie, eta Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 18. artikuluan adierazitako Koordinazio Batzordeak aztertuko ditu.

7. Nafarroako Gobernuak edo lehendakariak larrialdi kasua dela uste baldin badu, ezabatu egin daiteke aurreko apartatua aipatutako tramitea.

8. Foru lege mailako xedapenak prestatzeko, aurreko apartatuetan aurreikusitako izapideei jarraituko zaie gutxienez.

9. Nafarroako Gobernuko lehendakariak onetsi beharreko erregelamenduei ez zaie aplikatuko artikulua honetan araututako prozedura.

133. artikulua. Herritarren parte-hartzea foru lege mailako arauak eta erregelamenduak prestatzeko prozeduran.

1. Lege aurreproiektu bat edo erregelamendu proiektu bat prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat sustatzen ahalko da lege aurreproiektuetarako, eta hori sustatu beharko da erregelamendu proiektuetarako, Nafarroako Gobernu Irekiaren Atariaren bitartez; eta bertan jasoko da zer iritzi duten datorren arauaren eraginpean gerta litezkeen subjektu eta ordezkariak handiena duten erakundeek puntu hauei buruz:

- a) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.
- b) Araua onestea beharrezkoa eta egokia den.
- c) Arauaren helburuak.

d) Aukeran dauden beste alternatiba batzuk (arauemaileak eta arauemaile ez direnak).

2. Arau ekimenak pertsonen eskubide eta interes legitimoak ukitzen baditu, Nafarroako Gobernu Irekiaren Atarian argitaratuko da, ukitutako pertsonen entzunaldia emateko eta beste pertsona edo entitate batzuek egiten ahal dituzten ekarpen osagarri guztiak jasotzeko asmoz.

3. Halaber, arau ekimenak ukitzen dituen eskubide edo interes legitimoen jabeak diren pertsonak taldekatzeko edo ordezkatzeko legeak aitortuak dauden erakundeen edo elkarten iritzia zuzenean jasotzen ahalko da, elkarte horien helburua zuzenean loturik dagoenean xedearekin.

4. Artikulu honetan arautzen diren entzunaldia eta jendaurreko informazioa halako moduan egin beharko dira non arau ekimenaren balizko hartzailerek eta horri buruzko ekarpenak egiten dituztenek aukera izanen baitute beren iritzia adierazteko. Horretarako, haien eskura jarri beharko da 15 egun balioduneko aldia arau ekimenaren zirriboto

roa, baita txosten bat ere, ekimena onestea beharrezkoa eta egokia dela justifikatzen duena.

5. Artikulu honetan aurreikusitako kontsulta, entzunaldi eta jendaurreko informazioarako izapideak alde batera uzten ahalko dira baldin aurrekontu edo antolaketa arauak badira edo interes publikoko arrazoi larriek hori justifikatzen badute.

6. Erregelamendu proiektuei dagokienez, posible da alde aurreko kontsultarik ez egitea, horrek jarduera ekonomikoan eragin nabarmenik ez badu, hartzaileei betebeharrak garrantzitsurik ezartzen ez badie, arlo baten alderdi partzialak arautzen baditu, edo erregelamendu-ahala arautzen duen araudiak presazko tramitatzea aurreikusten badu; azken kasu horretan, araudi horretan ezarritakoari jarraituko zaio.

Lehen xedapen gehigarria. Antolamendu ekonomiko-finantzarioa.

Foru lege honetan aurreikusi ez den orotan, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko foru legeriari jarraikiz arautuko da Foru Administrazio Publikoaren eta haren erakunde publikoen antolamendu ekonomiko-finantzarioa.

Bigarren xedapen gehigarria. Zerga arloko administrazio-prozedurak.

Zergen arloko prozedurak, zergen aplikazioa, zehatzeko ahala, arlo horretako prozedura eta zergei buruzko egintzen administrazio-bideko berrikuspena Zergei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorrari jarraikiz arautuko dira, bertan ezarritako iturri-sistemarekin bat.

Hirugarren xedapen gehigarria. Zerbitzuen katalogoa eta administrazio-prozedurak.

Foru Administrazio Publikoak eguneraturik izanen ditu bere zerbitzuen katalogoa eta bere eskumeneko prozeduren zerrenda. Horrez gain, honako alderdi hauek adieraziko ditu prozedura horietarako, gutxienez:

- a) Ebazteko organo eskuduna.
- b) Prozedura erregulatzeko arau zehatzak.
- c) Ebatzi eta jakinarazteko gehieneko epeak eta administrazioaren isiltasunaren ondorioak.

Laugarren xedapen gehigarria. Nafarroako Aldizkari Ofiziala.

1. Nafarroako Aldizkari Ofiziala da Nafarroako Foru Komunitateko aldizkari ofiziala.

2. Argitaratu beharreko araudia, administrazio xedapenak eta administrazio egintzak argitaratzen dira baliabide ofizial horretan, indarrean den ordenamendu juridikoarekin bat.

Bosgarren xedapen gehigarria. Atalburuak, bulegoburuak eta ataletik beherako unitateetako buruak bitarte baterako izendatzea.

1. Dagokion unitate organikoa zein departamenturi atxikirik dagoen, haren titularrak eginen du atalburu, bulegoburu eta ataletik beherako unitateetako buruen bitarte baterako izendapena, behin funtzio publikoaren arloan eskumena duen departamentuak haren aldeko txostena eman ondoren.

2. Izendapena beste departamentu bateko langile bati egiten baldin bazaio, departamentu horretako titularraren adostasuna beharko da.

Seigarren xedapen gehigarria. Zuzendaritza-ko langile funtzionarioen ordainsariak.

Administrazio publikoetako funtzionarioak eta bestelako langile finkoak izendatzen badira Foru Administrazio Publikoko erakunde publikoetako zuzendari nagusi izateko edo bitarte baterako zuzendaritza kargu batean aritzeko, Nafarroako aurrekontu orokorretan haientzat finkatuta dauden urteko ordainsariak handitu eginen dira, harik eta izendapenaren aurretik jasotzen zituzten ordainsarien zenbateko osoa berdindu arte, barnean dela ordainsari aldakorren urteko batezbestekoa barne.

Zazpigarren xedapen gehigarria. Genero-berdintasuna hizkeran.

Pertsona, lanpostu edo karguei buruz ari denetan foru lege honek, gaztelaniazko testuan, genero gramatikal maskulinoko hitzak erabiltzen dituen kasuetan ulertu behar da adierazpideen ekonomia hutsagatik jokatzeko dela horrela, eta postu horiek orokorrean hartzen dituela hizpide, aipatutako pertsonen edo kargu edo lanpostu horien titularren sexua edozein dela ere, erabateko berdintasun-baldintzetan ondorio juridikoen ikuspegitik.

Zortzigarren xedapen gehigarria. Prozeduren gehieneko iraupena.

Lege mailako beste edozein arautan ezarritakoa gorabehera, foru lege honetako I. eranskinean aipatzen diren administrazio-prozedurak espresuki ebatzi eta ebazpena jakinarazteko gehieneko epea eranskin horretan prozedura bakoitzarentzat ezarritakoa izanen da.

Bederatzigarren xedapen gehigarria. Isiltasunez ezesteko prozedurak.

1. Foru lege honetako II. eranskinean aipatzen diren prozeduretan, eta espresuki ebatzi eta ebazpena jakinarazi beharra gorabehera, eskabideak administrazioaren isiltasunez ezetsitzat hartzen ahalko dituzte interesdunek.

2. Diru-laguntzen edo bestelako laguntzen eskabideak administrazioaren isiltasunez ezetsitatzat hartzen ahalko dira baldin eta, gehieneko epea bukatuta, ez badira espresuki ebatzi eta jakinarazi, eta hori guztia ezertan galarazi gabe ebazpena eman eta jakinarazteko betebeharra.

Xedapen iragankor bakarra. Hitzarmenen eta Akordioen Erregistroa.

Hitzarmenen eta Akordioen Erregistroak, zeina sortu baitzen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen bidez, "Elkarrekin Jarduteko Planen, Hitzarmenen eta Akordioen Erregistroa" izena hartuko du, foru lege honek indarra hartu ondoren.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arauak oro har indargabetzea.

1. Indargabetuta geratzen da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legea.

2. Indargabetuta geratzen da Nafarroako Foru Komunitatean administrazio elektronikoa ezartzeko apirilaren 4ko 11/2007 Foru Legea.

3. Indargabetuta geratzen da Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legearen **28. artikulua**.

4. Indargabetuta geratzen dira foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

Azken xedapenetako lehena. Kontseilarien eskumen bereziak.

2005eko martxoaren 1a baino lehenagoko foru araudian kontseilariari esleitzen zitzaizkien ebazpen-eskumenak zuzendari nagusiek izanen dituzte, 32.1.d) artikuluan ezarritakoarekin bat; ez dira zuzendari nagusien esku geldituko, hala ere, gehiengo osoko foru legeen bitartez edo Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoen kontratuei buruzko foru legeriaren bitartez kontseilariari esleituriko eskumenak, ez eta zehatzeko ahala erabiltzeari dagozkionak ere, horiek lege edo erregelamendu mailako xedapen batean espresuki esleituak dituzten organoenak izanen baitira.

Azken xedapenetako bigarrena. Nafarroako Gobernuari gaikuntza ematea.

Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari foru lege hau garatu eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Azken xedapenetako hirugarrena. Indarra hartzea.

1. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

2. Hala ere, Ahalordetzeen Erregistro Elektronikoiari, Erregistro Orokor Elektronikoiari, Gaitutako Funtzionarioen Erregistroari, Administrazioaren Sarbide-puntu Nagusi Elektronikoiari eta Artxibo Elektronikoiari buruzko aurreikuspenek ondorioak sortuko dituzte 2020ko urriaren 2tik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen azken xedapenetako zazpigarreneko bigarren paragrafoarekin bat.

I. ERANSKINA

Espresuki ebatzi eta ebazpena jakinarazteko epea sei hilabetetik gorakoa duten prozeduren zerrenda

1. Udal-mugarteak mugatzeari buruzko kontuak, Nafarroako udalen artean: 12 hilabete.
2. Udal-mugarteen aldaketak: 12 hilabete.
3. Kontzejuak eratzea: 12 hilabete.
4. Kontzejuak aldatzea: 12 hilabete.
5. Kontzejuak ofizios iraungitzea: 12 hilabete.
6. Udaletako muga jurisdikzionaletako marrak leheneratzea eta geometria aldetik hobetzea: 12 hilabete.
7. Hirigintzako legezkotasunaren babesa eta hautsitako ordena lehengoratzea: 6 hilabete, aplikatzen den araudi sektorialak epe luzeagoa aurreikusi ezean.
 8. Zehapen prozedurak:
 - Industriaren arlokoak: 6 hilabete, aplikatzen den araudi sektorialak epe luzeagoa aurreikusi ezean.
 - Eraikinen efizientzia energetikoaren ziurtapenaren arlokoak: 6 hilabete, aplikatzen den araudi sektorialak epe luzeagoa aurreikusi ezean.
 - Gizarte mailan, laneko arriskuen prebentzioaren eta lan-harremanen arloetakoak: 6 hilabete, aplikatzen den araudi sektorialak epe luzeagoa aurreikusi ezean.
 - Kontsumoaren arlokoak: 6 hilabete, aplikatzen den araudi sektorialak epe luzeagoa aurreikusi ezean.
- Gizarte zerbitzuen arlokoak: 6 hilabete, aplikatzen den araudi sektorialak epe luzeagoa aurreikusi ezean.
- etxebizitzaren arlokoak: 6 hilabete, aplikatzen den araudi sektorialak epe luzeagoa aurreikusi ezean.
- Osasunaren arlokoak: 6 hilabete, aplikatzen den araudi sektorialak epe luzeagoa aurreikusi ezean.
- Artxibo eta dokumentu, museo eta bilduma museografiko iraunkor, eta kultur ondarearen arloetakoak: 6 hilabete, aplikatzen den araudi sektorialak epe luzeagoa aurreikusi ezean.
- Kirolaren eta gazteriaren arloetakoak: 6 hilabete, aplikatzen den araudi sektorialak epe luzeagoa aurreikusi ezean.
- Landa garapenaren, nekazaritzaren eta abeltzaintzaren arloetakoak: 6 hilabete, aplikatzen den araudi sektorialak epe luzeagoa aurreikusi ezean.
- Ingurumenaren eta lurraldearen antolamenduaren arloetakoak: 6 hilabete, aplikatzen den araudi sektorialak epe luzeagoa aurreikusi ezean.
- Toki administrazioaren arlokoak: 6 hilabete, aplikatzen den araudi sektorialak epe luzeagoa aurreikusi ezean.
- Ikuskizun publikoen eta josteta jardueren arlokoak: 12 hilabete, aplikatzen den araudi sektorialak epe luzeagoa aurreikusi ezean.
- Jokoaren arlokoak: 12 hilabete, aplikatzen den araudi sektorialak epe luzeagoa aurreikusi ezean.

II. ERANSKINA

Ezarritako epean espresuki ebatzi eta ebazpena jakinarazi ezean interesdunek eskabideak administrazioaren isiltasunez ezetsita daudela ulertu dezaketen prozeduren zerrenda

Herri lanen, garraioen eta turismoaren arloetan eskuduna den departamentua

1. Nafarroako Gobernuari egindako eskaerak, udalek eta kontzejuek lagatako errepideak har ditzan.

2. Toki entitateen eskaerak, Nafarroako Errepideen Sareari dagozkion bideak konpontzeko lanak egin daitezen.

3. Toki entitateen eskaerak, Nafarroako Errepideen Sareko bideetan zehar bide goratuak (abiada moteltzekoak) jartzeko.

4. Baimen eskaerak, propio ikasleentzako hiriarteko garraio erregularrak egiteko.

5. Baimen eskaerak, bidaiarien hiriarteko garraioa autoetan egiteko (taxia).

6. Garraiorako Gazte txartela lortzeko eta berritzeko eskaerak.

7. Erakunde publikoentzako baimena, irabazi-asmorik gabeko bidaiak antolatu eta sustatzeko.

Eskubide sozialen arloan eskuduna den departamentua

1. Eskubide sozialen arloan prestazioak edo zerbitzuak emateko prozedurak, berariazko araudiak isiltasunerako bestelako esanahirik ezarri ezean.

2. Alarguntza-pentsioengatikoen kenkariak eta kotizazio gabeko erretiro-pentsioengatikoen aurretik ordaintzea.

3. Gizarte zerbitzuak eskuratzeko administrazio baimenak emateko prozedurak.

4. Mendekotasun edo desgaitasun egoera aitortzeko eta berrikusteko prozedurak.

5. Autonomiarako eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemako zentro eta zerbitzuetako gero-kultoreen, zaintzaileen eta etxez etxeko laguntzako laguntzaileen eta laguntzaile pertsonalen lanbide-kategorietarako salbuespenezko gaikuntza, Autonomiarako eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemaren Gizarte Zerbitzuen Lurralde Kontseiluak ezarritakoaren babesean.

6. Bizigarritasun-zedula emateko prozedura.

Ogasunaren eta finantza politikaren arloetan eskuduna den departamentua

Aseguru artekari lanetan aritzeko baimena.

Funtzio publikoaren arloan eskuduna den departamentua

1. Lansarian ondorioaren bat dakarten eskaerak, Foru Administrazio Publikoan ebazpena emateko eskumena duen organoa zein den alde batera utzita.

2. Honako eskaera hauek, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Montepioko eta Nafarroako Toki Entitateen Montepioko funtzionarioek eginak: ezintasunaren ondoriozko erretiroa, ezintasun iraunkor partzialarengatik eta ezintasunik ez dakarten lesio iraunkorarengatik kalte-ordaina jasotzekoa, edo ezintasun mailaren berrikuspena.

Hezkuntzaren arloan eskuduna den departamentua

1. Hezkuntza itunaren onespina.

2. Hezkuntza itunaren aldaketa eta iraungitzea.

3. Hezkuntza itunaren eskaera, ikastetxerako baimenaren ondoren.

4. Ikastetxe bat jartzeko baimena lortzeko aukerari buruzko aurretiko deklarazioa (instalazioen egokitasuna).

5. Ikastetxeak jartzeko baimena.

6. Ikastetxeak jartzeko baimenaren edo baimen berriaren aldaketa.

7. Ikastetxea izateko baimenaren iraungitzea.

8. Eskolako jantokia izateko baimena.

9. Diru publikoaren laguntza duten ikasleen onarpena.

10. Ikastetxeetan erosketak egiteko baimena.

11. Ikastetxeetan prezioak jartzeko baimena.

12. Oker kobratutako tarifen itzulera.

Osasunaren arloan eskuduna den departamentua

1. Lurreko osasun garraiorako baimena.

2. Osasun zentro, zerbitzu eta establezimenduak sortzeko baimenak.

3. Nafarroan opiazioekiko tratamendua egiten duten zentro eta zerbitzuen kreditazioa.

4. Drogaren menpekoentzako laguntza-zentron kreditazioa.

5. Osasun Departamentuko eta haren erakunde autonomoetako langile fakultatiboan eta osasun arloko langile diplomadunen lanbide karreraren sistema.

6. Dediakzio eskusiboko araubidearen aldeko aukera.

7. Oinarrizko Osasun Laguntzako mediku orokorra eta pediatria hautatzea.

8. Botikak irekitzeko, eskualdatzeko eta titular-tasuna aldatzeko baimena.

9. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua-ren laguntza ortoprotesikoa, hauetarako: kanpoko protesiak, aulki gurgilduna, ortesi eta protesi bereziak.

10. Jaioberritan hipoakusia garaiz atzemateko programaren laguntza.

Kulturaren arloan eskuduna den departamentua

1. Esku-hartze arkeologikoetarako baimena.

Kirolaren arloan eskuduna den departamentua

1. Kirol elkarte bat eratzeko baimena.

2. Nafarroako Kirolaren Ohorezko Aipamenak ematea.

Toki administrazioaren arloan eskuduna den departamentua

1. Udal-mugarteak mugatzeari buruzko kontuak, Nafarroako udalen artean.

2. Udal-mugarten mugak aldatzeari buruzko kontuak, udalak adostasunera iritsi gabe.

3. Kontzejuak eratztea.

4. Kontzejuak aldatzea, ukitutakoak adostasunera iritsi gabe.

5. Batera emandako zerbitzuengatik, toki entitateek ordaindu gabe dituzten diru-kopuruaren ordezkoko ordainketa.

6. Toki entitateen batasun bateko partaide diren udal eta kontzejuak bidegabeki ordaindu gabe utzi dituzten diru-ekarpenen ordezkoko ordainketa.

Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako Foru Lege proiektua.

OSOKO BILKURAK OSOKO ZUZENKETAK EZETSI DITU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2019ko urtarrilaren 11n, ezetsi egin ditu Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketak.

Horrenbestez, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 132.5 artikuluan xedatuarekin bat, proiektua Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko Batzordeari igorri zaio.

Iruñean, 2019ko urtarrilaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru Lege proiektua, aldatzen duena martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legea, Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboen araubide iragankorrari buruzkoa.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezkeen Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboen araubide iragankorrari buruzko martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketak. Proiektu hori 2018ko abenduaren 14ko 153. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2019ko urtarrilaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

1. ZUZENKETA

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO,
PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI
ETA NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

Hamabi bis apartatu berri bat gehitzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

"Hemezortzigarren xedapen gehigarria. Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko tokiko polizien erretiro-adinaren murriztapen-koefizientea ezartzea.

Tokiko polizia edo antzeko lanpostu batean montepioen sistemaren araubidean zerbitzu ematen duten langileei aplikagarri izanen zaie erretiro-adinaren murriztapen-koefizientea, Gizarte Segurantzaren alorreko araudi indardunean ezarritakoaren arabera.

Pertsona interesdunak kasuko udal administrazioari urte bakoitzeko urtarrilaren 31 baino lehen jakinarazi beharko dio erretiroa hartzeko bide hau hautatzeko borondatea, 2019an izan ezik; urte honetan foru lege hau indarrean sartu eta hurrengo hilabetearen azken eguna baino lehen jakinarazi beharko da.

Nafarroan tokiko polizia edo antzeko lanpostu batean montepioen sistemaren araubidean zerbi-

tzu ematen duten langile funtzionarioek, foru lege hau indarrean sartu eta bi hilabete epean –foru lege hau indarrean sartzen den egunetik izanen ditu ondorioak–, uko eginen ahalko diote abenduaren 14ko 1449/2018 Errege Dekretuaren aplikazioari, zeinaren bidez ezartzen baita erretiro-adinaren murriztapen-koefizientea Toki Administrazioa osatzen duten entitateen zerbitzuko tokiko polizientzat.

Edozein arau aldaketaren ondorioz gertatzen bada dagoena baino baldintza hobea sortzen dela, erretiro adina murrizteko koefizientea aplikatzeari uko egin dionak hura aplikatzea hautatzen ahalko du atzeraeraginez, dagozkion ekarpen ekonomikoei kalterik egin gabe.

Halaber, Gizarte Segurantzak erretiro-adinaren murriztapen-koefizienteak ezarriko balitu edo, kasua bada, erretiroa hartzeko adina aurreratuko balu Foruzaingoarentzat, polizia kidego horretako montepioen sistemaren mendeko funtzionarioei aplikagarri izanen zaizkie, kontuan hartuta Gizarte Segurantzako araudi berariazkoa eta, kasua bada, aipatutako baldintzen antzekoak ezarrita Tokiko Poliziarentzat".

Zioak: Hamabigarren apartatuan suhiltzaileen-tzat ezarritakoaren bidetik.

2. ZUZENKETA

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO,
PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI
ETA NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
TALDE PARLAMENTARIOEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

Hamahirugarren apartatua aldatzeko zuzenketa. Honako eduki hau izanen du:

Hamahiru. Beste xedapen gehigarri bat gehitzen da. Testu hau izanen du:

"Hemeretzigarren xedapen gehigarria.

Gainontzekoak berdin jarraitzen du.

Zioak: Arrazoi teknikoengatik.

